

Zeberioko Matxurrena baserrian aurkituriko dokumentazio historikoa. Protokolo notarialen metodologiarako ekarpen didaktikoa

Kepa Perez Urraza

Euskal Herriko Unibertsitatea
kepa.perez@ehu.es

Abstract

In this paper documentation of historical value kept for several centuries in Matxurrena House in Zeberio sees the light. This valuable heritage can be classified in the following way: 1) Notarial protocols from the XVIIth century of the people from the Zeberio and Nerbioi areas. 2) 40 hearings and complaints resolved under judicial procedure. 3) A number of cash books and papers.

Laburpena

Zeberioko Matxurrena baserrian hiruzpalau mendetan gordeta egon den dokumentazio historikoa da hemen argitara ematen dena. Aurkituriko ondare baliagarriaz honoko sailkapen hau egin liteke: 1) XVII. mendeko Zeberio eta Nerbioi inguruko gizarteari buruz idatzitako protokolo notarialak. 2) Bide judiziala hartutako 40 auzi edo kereila. 3) Zenbait diru-kontu liburu eta paper solte.

Keywords: Notarial protocol, marriage certificate, ground rent, countryhouse, ironworking, judicial way

Gako hitzak: protokolo notarial, ezkontza-kontratu, diru-zentsua, baserria, olagintza, bide judiziala

1. Sarrera

Bada urte luzea, 2009ko udaran, Zeberioko Areiltza auzoko Joseba eta Aritz Zugazaga aita-semeak eurena den Matxurrena baserriko teilatua berritzen ari zirela, ganbaran aurkitutako zenbait dokumentu nire eskuetan utzi zutena, neuk aztertzeke. Material historiko hori kontuan hartuz, lerro hauetan idatzitako artikulua garatuko dugu ondoko eskema hau jarraituz:

Sarrera

1. Dokumentazioren testuingurunea
 - 1.1. Hiru erakundetze mota desberdin
 - 1.2. Eskuidazkien eskribau eta egileak
 2. Protokolo notarialak
 - 2.1. Protokoloen ezaugarriketa formala
 - 2.2. Matxurrenan aurkituriko protokoloak
 3. Zortzi urteen protokoloen laburpena
 - 3.1. 1613ko protokoloen laburpena
 - 3.2. 1617ko protokoloen laburpena
 - 3.3. 1623ko protokoloen laburpena
 - 3.4. 1632ko protokoloen laburpena
 - 3.5. 1640ko protokoloen laburpena
 - 3.6. 1644ko protokoloen laburpena
 - 3.7. 1744 eta 1761eko protokoloen laburp.
 4. Auzokideen arteko auziak
 - 4.1. Zeberioztarren arteko auziak
 - 4.2. Pantxike Larrea bortxatzearena
 - 4.3. Pedro Arana Olarra jotzearena
 5. Diru-kontu kaierrak eta zenbait paper solte
- Amaitzeko bi hitz
Bibliografia

Esku artean duzun artikulua hau, beraz, landa-ikerketan ibiliaren idatzizko aurkikuntza baliotsu baten deskribapena eta laburpena baino ez da. Zehatzago, baserri baten aurkituriko protokolo notarialen metodologiarako ekarpen didaktikoa izan nahi du, baina dibulgazio mailan aurkeztua. Beste modu batera esanda, Zeberioko Areiltza auzoko Matxurrena deitutako baserrian hiruzpalau mendetan gordeak egon diren eskuiskribu batzuen edukia berri ematea modurik ahalik eta didaktikoenean.

Zaku batzuetan pilatuta, hasieratik esan, eskuidazkiok egoera fisiko ez onean egon izan direla (paper zatiak janda, saguen arrastoak, gaizki tolestuak, hezetasunaren eraginpean...), eta gainera, urte-data, eskribau, gai eta leku desberdinak guztiz nahasiak. Horra, hurrengo hiru argazkitan, nik hartutako garaian dokumentuen multzoak zuen itxura fisikoa (1. eta 2. argazkia), eta garbitu eta sailkatu eta gero hartu dutenekoa (3. argazkia).



1. Argazkia: Dokumentuek zuten itxura fisikoa



2. Argazkia: Dokumentuen egoera fisiko



3. Argazkia: Protokoloak sailkatu ondoren

Lehenik eta behin egin nuena izan zen, dokumentazioa garbitzea, sailkatzea eta irizpide jakinen arabera, antolatzea. XVII. eta XVIII. mendeetakoa den dokumentazio historiko multzo hau hiru ataletan bana daiteke: alde batetik, protokolo notarialak deitutako idazkiak, urtez urte liburu desberdinetan bilduak eta josiak daudenak; bestetik, gehienbat lehen instantziako auzi judizialak, orohar espediente, autu, diligentsia, jakinarazpen eta argudioez osotuak; eta azkenik, zenbait diru-kontu liburu edo kahierrak, bertan agertzen direlarik jabeak, zor zieten zordunen izenak, diru-kopuruak eta hainbat zehetasun.

Protokolo notarialei dagokienez, honela bana daitezke: 1613-1644 urteen tartean Zeberiori eta Olabarrietari dagozkien sei urteko eskuidazkiak Juan Gesala Urraza eskribau zeberioztarrak idatziak, eta Nerbioi ibarreko 1744 eta 1761ekokoak, Ugaoko Jose Barañano Landa eskribauak idatziak.

Auzi judizialen arloan, ia 40 bat auzi agertu dira, nagusiki lehen instantzian jokatuak, hau da, Ugaoko Alkate-Epaile Ohikoaren aurrean; banaka batzuk bigarren instantzian epaituak, alegia Bizkaiko Korregimenduko Auzitegian; eta beste bi auzi, Valladolideko Erret-Kantzelaritzan. Azkenik, beste gatazka batzuk, ordea, Calahorrako Gotzaitegiko Auzitegian epaituak izan ziren.

Horrez gain, sei diru-kontu liburu eta zenbait paper solteren berri ere emango dugu. Dokumentazio baliagarri honen zehetasunetan sartu aurretik, komeni da berau sortu zen testuinguruneaz zeozer esatea;

batetik, Olabarrietako elizatea, Zeberio harana eta Ugao hiribilduaren arteko banaketa instituzional desberdinduak eta konplexua, eta bestetik, dokumentazioa aurkitu den Matxurrena baserriaren kokapen historikoa, edota, eskritura eta diru-kontu hauek idatzi zituzten egileen kronika laburra ematea.

2. Dokumentazioaren testuingurunea

2.1. Hiru erakundetze mota desberdin

1370. hamarkadan, *Ceberiano* deitutako eskualdean bizi ziren aitoren semeek eta nekazariak, orduko Bizkaiko Juan I Jaunari Ugao auzo zeberioztarren hiribildu bat sortzea proposatu zioten. 1375. urtean, landa-ingurune baten *Villanueva de Miravalles* gune urbanoa ezartzen da, eta horren lehen ondorioa Zeberio haran geografiko berean, bi esparru juridiko-administratibo ezberdinak sortzea izan zen:

Batetik, aurretiaz erakundetua zegoen **Olabarrieta elizatea**, edo *partzialitate infantzoia*, Bizkaiko lur lauean (Tierra Llana) kokatua, Bizkaiko Foruaren bidez arautua, eta Gernikako Batzar Orokoretan 70. aulkia ezertzen zena. Eta arlo judizialean, Arratiako Foru-Alkatearen pean, eta ordura arteko egoera berean iraun zuena. Eta orohar, Zeberioko erreka handiak zeharkatzen duen auzo aberatsez (dorretxe, ola, errota) osotua; Arezandiaga, Arbildu, Santa Kurtze, Areiltza, Sautuola, Egia eta Gesala. Bizkaian “tierra llana” kontzeptuak harresirik gabeko lurra adierazten du, hau da, hiribildu baten jurisdikzio pean ez dagoena.

Eta bestetik, **Zeberio harana** izen formala duen antolaketa politiko-administratiboa izango da. Beste modu batera, Bizkaiko Jaunarenak ziren lur eta baserrietako nekazari zentsuariak zeuden, Zeberion bertan fisikoki bizitzen jarraitu arren, gehien bat Artanda-Mandoia mendien maldetako auzoetan kokatutako baserrietan, baina hiribildu berrian auzokidetu, zentsatu edo fogeratu zirenak. Eta atal judizialean, Ugaoko Alkatearen jurisdikzio pean ezarriak eta horren truke, Olabarrietako Santo Tomas elizaren ondasunak (bereziki kortabasoak), gozatzeko eta abadeak aurkezteko eskubidea (hau da, patronatua), berenganatuko dutenak. Hori dela eta, XVI. menderako, baserritar zentsuari hauek *Patroi Partzialitatean* pean erabat antolatuta agertuko dira.

Beraz, banaketa honen ondorioa, Ugaon hiribildua sortu aurretik zegoen egoera erabat aldatzea eta korapilatzea izan zen. Espazio fisiko berean erakunde juridiko bakarra egotetik, hiribildua sortu eta gero, hiru eratako erakunde administratibo-politikoak egotea gertatu zen: batetik, Olabarrietako elizatea (edo infantzoi eremua), bestetik Ugao hiribildua, eta azkenik, Zeberio harana (edo Patroi partzialitatea), bakoitzak bere estatuto juridiko propioa zuelarik. Eta horren arabera, Fiel propioa, batzarrak egiteko leku berezituak, diru-kontu desberdinak... Jakina, egoera honek zaildu eta konplejizatu egin zituen hiru esparru hauen arteko erlazioak eta hiruron garapen historikoa eta

ekonomikoa. Beheko 1. taulan konplexutasun horren adierazpen grafikoa.

1375 baino lehen	Olabarrietako Santo Tomas elizatea (<i>Comarca de Ceberiano</i>) Ugao toponimoa Zeberioko auzoari dagokio		
1375-1859	Miravalles hiribilduaren jurisdikziopean (lur harresiduna)		Olabarrieta elizatea (lur laua)
	Eremu urbanoa	Nekazari zentsuariak	Landa-eremua
	Bilauak	Patroiak	Infantzoiak
	Ugao-Miravalles	Zeberio harana	Olabarrieta elizatea
	Alkatea	Fiel	Fiel
1860-Gaur Arte	Ugao-Miravalles hiribildua. Alkatea.	↓ ↓ Udalerri bakarra: Zeberio* eta Olabarrieta. Alkatea.	
* 1882. urtean, Zeberio haraneko 81 auzokidek Santo Tomas Patroien Komunitatea sortu zuten, egun Santo Tomas Elkargoa S.L. legez erakundetua dagoena.			

1. Taula. Miravalles, Olabarrieta eta Zeberio

Esaterako, horren adibideetarik bat, lehen instantziako arazo legalak konpontze aldera, patroiek Ugaoko Alkate-Epailearen aginpidera jotzen zuten, honen jurisdikziopean zeuden eta. Infantzoiak ordea, elizatekoak izanik, Arratiako Foru-Alkatearen jurisdikziopean. Beste berba batzuetan esanda, eremu judiziala deitutako esparruan ikusten dugu horren jarduera zehatza, hau da, zeberioztar patroien arazo juridikoen lehen epailea Ugaoko Alkatea izatea, eta Olabarrietako elizatearena berriz, Arratiako Merindadeko Foru-Alkatea.

2.2. Eskuidazkien eskribau eta egileak

Areiltza auzoan kokatua dagoen Matxurrena deitutako baserriaren lehen datu historikoak XVI. mendearen hasierara garamatza, eta baserri horren jabea Juan Martinez Areilza dela agertzen da- Baserri hau, Ugao hiribilduaren jurisdikziopean zegoen, eta beraz, haren fogerazioan agertzen zaigu. Baina batez ere, XVII. mendetik hasi eta gaurdaino, oso zehatz jarrai daiteke baserri honen historia luzea, bertara 1602. urtean ezkondu baitzen 43 urtez protokolo publikoak idazten aritutako Zeberioko Juan Gesala Urraza eskribaua. Eta kasua da, Juan Gesala hau eremu infantzoiaren jaioa zela, Gesalabekoa baserrian, eta ezkonduz geroztik, Areiltza auzoan kokatua agertuko zaigu. 4. argazkian Zeberioko Areiltza auzoa agertzen zaigu, eta ezkerrean Matxurrena baserria. Artikulu honen funtsa Areiltzako Matxurrena baserrian eta Juan Gesala eskribauak idatzitako hainbat dokumentu agertu izanaren berri ematea da.



4. Argazkia: Zeberioko Areiltza auzoa. 2004

Baserri aberats honen historia birpasatzean, ikus liteke, XIX. mendean jabe zen sendia ondare handia eskuratuz joan zela, eta etxe eranskiak edukitzeaz gain, Zeberioko hainbat baserri ere erosi zituela. Roke Antolin eta Juan Nikolas Tollara Mendibil, hurrenez hurren, abade eta abokatu, anaia bik, eragina izan zuten Zeberion eta Bizkaiko bigarren karlistadaren inguruan. Baserri honen historia ezagutu nahi duenak egilearen liburura jo dezake (2006: 515-529).

XX. mendearen bukaeran, errentadore bizi izan direnek eskuratu ahal izan dituzte Matxurrena aziendaren etxaguntza desberdinak. Gure kasuan, Matxurrenako dokumentazioa, bertan bizi den sendiko Joseba Zugazaga eta Aritz Zugazaga Lasa aita- semeak emanikoa da.



5. argazkia: Areiltzako Matxurrena baserria. 2004

Esku artean darabilgun dokumentazio hau Matxurrena baserriarekin lotura eduki duten hiru pertsonak idatzia izan da. Aipatutako Juan Gesala Urraza eskribaua, Martin Urraza Arana olagizona eta Jose Barañano Landa eskribaua. Lehen biak, Matxurrena baserriko alabekin ezkondu ziren, hurrenez hurren, Juan Gesala 1602. urtean, Marina Areilzarekin, eta Martin berriz, 1710. urtean, Maria Kruz Barañano Kareagarekin, eta beraz, biak ala biak, etxearen jabe bihurtu zirenak.


Bestalde, Ugaoko Barañano familiakoa eta eskribau zen Jose Barañano Landa eta Maria Uribarri Barañano ezkontideen alaba Ana Maria Barañano Uribarri, 1767. urtean, ezkonduko da Juan Martin Tollara Urraza

jabearekin. Berau ere eskribaua, nahiz eta lanbidean gutxi aritu. Hauxe da dokumentazio hau baserrian gordea eta aurkitua izanaren arrazoia. Hurrengo 2. taulan Matxurrena baserriak XVI.-XIX. mendeen artean izan duen jabetzaren bilakera historikoa:



2. Taula: Matxurrena etxearen jabe historikoak

Ondoren, agertzen dira XIX. eta XX. mendeetako Matxurrenaren bizi izan diren sendiak. Alde batetik, baserriaren beraren ugazabak, XIX. mendearen amaieran eta XX. ean, Zubialde auzoko Tollarena etxearen jabeak izanik ere, hemen biziko zirenak. Eta bestetik, maizterrak, azken hauek 1963. urtean, jabe bihurtuak. Hurrengo 3. taulan, Tollarena eta Matxurrena baserrietan bizi izandakoak:



3. Taula: XIX-XXI mendeetako sendien eskema

Are gehiago, Martinek baserriari egungo izen juridikoa emango dio, hau da, Martin Urraza honengandik eratorria litzateke Matx(i)urrena izena, jarraian, 4. taulan garatzen den moduan:

Martin Urraza → Matxin Urraza → Matxi Urrazena → Matxi-Urr(az)ena → Matxurrena

4. Taula: Matxurrena izenaren garapena

3. Protokolo notarialak

Jakina da dokumentazio notariala izendaketaren barruan era desberdinetako eskuidazki-motak daudela. Eskuidazki horiek izen desberdinez ezagutzen dira, eta bakoitzak hainbeste informazio desberdin eta barreiatu eskaintzen duenez, –pertsonen izenak, lekuen izenak, estamentu-klasea, diru-iturriak, jarduera ekonomikoa, negozio mota, lanbide bati dagozkion objektu eta prozesuak, gizarte-interesak, espazioaren banaketa–, ez da erreza izaten notario-eskuidazkien sailkapen adostua eratzea. Dokumentu horien izaera juridikoa hain da zabala ezen ia hogeita kategoriatan desberdin burutu baitaitezke.

3.1. Protokolo notarialen ezaugarri formalak. Eskuidazki motak

Protokolo notariala deitutako kontzeptua dokumentu publiko multzo jakin baten liburukiari dagokio. Gai edo negozio baten inguruan pertsona bi edo gehiagoren artean adosturiko eskuidazki-matriz bilduma da, eskribau edo notarioaren aurrean ezarria izan dena. Administrazioaren artxiboetan gordeta egon ohi dira protokoloak, eta izaera publikoa duten neurrian, alde batetik, gutxienezko ezaugarri eta elementu batzuk izango ditu; eta bestetik, protokoloen sailkapenaz esan, era eta mota askotakoak agertzen zaizkigula.

Protokoloen ezaugarriei dagokienez, laburki esanda, edozein protokolo edo eskuidazki notarialen egitura formala honako zortzi elementu orokorrez osaturik dago: 1) dokumentua idazten den lekua (herria, auzoa edota leku zehatza), eta data; 2) eskribauaren izena eta idazten denaren benekotasuna frogatzeko lekukoaren aipamena. Ondoren, 3) negozioaren izendapena edo gaiaren identifikazioa, eta 4) partaide zuzenen izen, deiturak, eta sarritan, adina, egoera zibila, jatorria, lanbidea eta bestelako ezaugarri batzuk, bai idazkiaren emaileak –pertsonalak ala kolektiboak–, zein hartzaileak –bat ala batzuk–. Gero, 5) negozioaren nondik norakoaren azalpen zehatza dago, eta 6) aurrekariak eta lege-aipamenak, baldintza jakinak, bakoitzaren obligazioak, bermeak, eta beste hainbat atal formal. Amaieran, 7) batetik, partaideen eta lekukoaren izenak eta sinadura datoz; sinadura alfabetaturik zeudenek egiten zuten, eta idazten ez zekitenek beste lekuko batzuen bidez adierazten zuten beren oniritzia. Eta bestetik, eta azkenik, 8) eskribauaren beraren sinadura eta ikur berezia. 5. taulan protokolo notarial baten ohiko elementuen eskema formala agertzen da.

5. Taula: Protokolo notarialen egitura formala

Eskuidazki baten egitura

1. Lekua (auzoa eta herria) eta data
2. Eskribauaren izena, lekukoaren azalpena
3. Negozioaren identifikazioa: kontratua, testamentu, salmenta, ordainagiri...
4. Partaide zuzenen izenak, jatorri, auzo, egoera zibila, lanbide,...
5. Negozioaren azalpen luzeagoa
6. Aurrekari legalak, baldintza jakinak, bakoitzaren obligazioak, bermeak eta beste hainbat atal formal
7. Lekukoaren izenak eta hauen eta partaideen sinadurak
8. Eskribauaren sinadura eta ikurra

Bestalde, eskuidazki-mota edo nahi bada, pertsonen arteko negozio eta gai desberdinak daude, eta hauetariko eskuidazki batzuen azalpen laburra baino ez dugu egingo: ezkontza-kontratua, testamentua, uzkuntza, ondasun-lerrokapena, diru-zentsua, ordainagiria, errentamendua, admeteri- eta amuñeria-kontratua, lanbide-ikasketarako aparejamendua, lan-kontratuak...

Ezkontza-kapitulazioa, edo beste era batez, ezkontza-kontratua deitutako dokumentuaz esan dezagun Euskal Herrian, alde batetik, lurraren eta familiaren arteko lotura baserria dela, eta bestetik,

baserriaren eta familiaren arteko lotura, berriz, tronkalitatea (Celaya: 1975, 42). Bizkaiko Foruak (6. taulan) araututako arloa da, eta horrela, ondasunak ezin dira familia batetik irten, hau da, ezin dira sendi-enborretik atera.




6. Taula: Bizkaiko Forua

Ezkontza-kontratuetan uztarkide bakoitzak daraman ondasun aipamena guztiz zehaztuta agertzen da, alde batetik, baserriko jabeak bere erro-ondasunak, zein altzariak, animaliak, objektuak, dirua eta gainerako zorrak ezartzen ditu, eta beste aldetik, baserria ezkontzen denak aurreko balio horren trukean baliokide den dotea eramaten du, dirutan, zentsutan eta arrioan erabat mugatua. Celaya (1970: 637) egilearen arabera, ezkontza burutu aurretiko kapitulazioetan, aurrekoaz gain, ezkontideen gurasoek jartzen dituzte ondasunekiko baldintzak: gozamina, bakoitzaren ekarpena, baserriaren aurka dauden zorrak, uzkuntzarako botere-trukaketak eta dotearen itzulketarako baldintzak.




6. Argazkia: Etxasoko Uria baserria, egun salgai



7. Taula: Ezkontza-kontratuen eskema

Kanpotik baserrira doan ezkontidea hilko balitz, edo ondorengorik ez balego, eta hauek izanik ere, hilko balira, dotearen itzulketa edo errebertsioa deitutako ekintza eta dokumentua egiten da. Hauxe da 1617ko ezkontza-kontratua egin eta gero, zenbait urtetara gertatu zen kasua, Juan Kastillo Telleria eta Pantxike Arana Aloaren artekoa. Hauek seme-alabak eduki zituzten, baina bai ama, zein haurrak hiltzerakoan, dotearen itzulketa egin zen. 7. argazkian XVII. mendeko ezkontza-kontratua eskuidazkia. Eta jarraian, 1617ko transkripzioa.



7. Argazkia: Ezkontza-kontratuaren kopia. ZUA

Contrato entre Juan de Castillo y Francisca de Arana

En el lugar de Areylza que es en el Valle de Ceberio,/ a veinte días del mes de abril de mil y seiscientos/ y diez y siete años, en presencia de nos Juan Hernani de/ Areilza y Juan de Guesala escribanos del rey nuestro señor y tes-/tigos de yuso escritos, parecieron presentes de la/ una parte, Juan de Castillo de Texeria y Marina de/ Urraza su madre, viuda mujer que quedó de Martin/ de Castillo difunto, y de la otra, Martin de Altua de Arana/ y Catalina de Aloa viuda su madre, todos vecinos del dicho Va-/lle, y dijeron que por cuanto al servicio de Dios Nuestro Señor/ estaba **tratado matrimonio** entre el dicho Juan de Casti-/llo y Francisca de Arana hija y hermana de los dichos/ Martin de Arana y Catalina de Aloa. = Y porque las cargas/ del dicho matrimonio son grandes y para el sustento de/ ellos estaban conformes de hacer la donación y/ ofrecimiento de dote que de yuso será declarado. =/ Por ende, en cumplimiento de ello dijeron los dichos/ Juan de Castillo y Marina de Urraza que por esta carta/ en la forma que mejor haya lugar de derecho hacían e hicieron/ donación, cesión y renunciación cual de derecho/ más fuerte y firme sea, para ahora y siempre jamás/ de la **casa y casería de Texeria** del dicho Valle, sita/ y notoria en el dicho Valle con todos sus montes robe-/dales, castañales, manzanales, jarales y tierras/ de pan sembrar y todos los demás derechos y acciones/ a ellos y a la dicha su casa y casería pertenecientes/ para el dicho matrimonio de con la dicha Francisca de/ Arana mujer que será de dicho Juan de Castillo = ... y luego los dichos Martin/ de Altua de Arana y Catalina de Aloa su madre ... y dijeron que en equivalencia y remuneración de la sobre dicha do-/nación ofrecían de dote a la dicha Francisca de Arana/ doscientos ducados en dinero más el arreo que yuso será/ declarado...”.

[Matxurrena baserria. 1617. urtea. Juan Gesala eskribaua. 34. fol.]

Ezkonduek oinordekorik badute, **testamentua** deitutako tresna juridikoaren bidez ziurtatzen dute lurra, baserria eta familiaren arteko lokarria, eta belaunaldiz belaunaldiko iraupena bermatu asmoz, gaur arte iritsi da. Testamentua hiru motatakoa izan daiteke: elkarrenartekoa (“*todopoderoso*”), hilburukoa, edo komisarioen bidez burutua. Testamentua egin gabeen kasuan –gurasoren baten heriotza gertatu geroztik–, hamaika gatazka eta interpretazio desberdin gauzatuko dira, eta aterabidea aurkituko da, auzitarako bidea hartuz, harik eta epaileak ebazpena burutu arte. Honekin guztiarekin lotuta **ondasunen lerrokapen** judiziala deitutako eskuidazkia dago, non norbere eremuko Fielaren aurrean, hildakoak utzitako ondasunen zerrendaketa burutzen baita, gero, oinordekoen artean banatu ahal izateko, edo dotearen itzulketara egiteko. Ondoko lerrootan, Areiltza auzoko Bengoetxea baserriaren jabe zen Martin Zabalak 1640. urtean luzaturiko testamentua du.

Testamento de Martin de Bengoechea 1640

En el nombre de Dios amén. Sepan cuantos esta/ **carta de testamento** y última y postrimera/ voluntad vieren como yo Martin de Zabala de Ben-/goechea de Areylça, vecino del Valle de Ceberio,/ estando enfermo en cama, de enfermedad/ que Nuestro Señor fue servido de me dar, aunque sano/ de mi juicio y entendimiento cual Nuestro Señor me/ dio, y creyendo como creo en la santa fe ca-/tólica y en todo lo que fiel cristiano/ debe creer, temiéndome de la muerte que/ es cosa natural a toda persona viviente,/ y deseando poner mi alma en carrera de sal-/vacación, otorgo y conozco que hago y ordeno es-/te mi testamento y mandas en la forma/ y manera siguientes:

- Primeramente encomiendo mi alma/ a Dios nuestro señor que la crió y redimió por su pre-/ciosa sangre, y el cuerpo a la tierra para don-/de fue formado.
- Iten mando que cuando la voluntad de Dios/ nuestro señor fuere servido de me llevar de esta pre-/sente vida, que mi cuerpo sea sepultado en/ la Iglesia de Santo Tomas de Olabarrieta del dicho Valle/ en la sepultura de **mi casa de Bengoechea/ de Areylça** donde están enterrados los pa-/sados de ella, donde mando se me hagan los/ cumplimientos de mi alma conforme a la/ calidad de mi persona y costumbre del lugar y se paguen de mis bienes...“

[Matxurrena baserria. 1632-X-9an.
 Juan Gesala eskribaua. Foliatu gabe]

 Beste dokumentu erabat klasikoa, **diru-zentsua** (*escritura de censo*) deitutako idazkia da. Laburki esanda, diru-zentsua pertsona batek beste bati diru bat aurreratzean datza, hartzaileak jarritako epe jakinean itzultzekotan, eta urtero interes baten arabera, erreditoak ordaintzeko obligaziopean, alegia. Egungo diru-mailegu legez ulertzen duguna da. Berme (hipoteka) legez, baserria eta etxaguntzak jartzen dira. Zeberrioko baserri guztiek, belaunaldiz belaunaldi, diru prestatua erabili

dute, eta ehundaka dira mota honetako dokumentuak. Horra adibidea:

1632 Censo que otorgó Pedro de Arteaga a favor de Domingo de Ugalde

Sepan cuantos esta pública **escritura de censo**/ vieren como yo Pedro de Arteaga de Çuybarria vecino/ de este Valle de Ceverio, otorgo por esta carta/ que en la mejor forma que de derecho puedo y debo/ fundo y vendo a Domingo de Ugalde vecino de este Valle/ de Ceverio para él, para sus hijos y herederos/ y para quien de él o de ellos tuviere título/ en cualquier manera, once reales de censo y renta en/cada un año puestos y pagados en su casa y poder./a mi costa y misión en su casa y poder en este/ dicho Valle de Ceverio, y la primera paga será de/ hoy día de la fecha de esta carta en un año/ cumplido, que será a los veinte y un días del mes/ de marco del año primero venidero de mil y/ seiscientos y treinta y tres años, y de allí en adelante en cada un año sucesivamente por el dicho día sin otro placo alguno, so pena de los dar y pagar/ con más las costas que su cobranza se le si-/guieren y recrecieren, los cuales dichos once/ reales de censo y renta en cada un año/ le vendo al dicho Domingo de Ugalde por precio y/ cuantía de veinte ducados de once reales cada uno/ que le debo al susodicho...

...y lo fundo y constituyo sobre/ mi persona y bienes muebles y raíces, derechos y acciones./ habidos y por haber, y especial y señaladamente/ sobre mi casa y **casería de Çuybarria** de este dicho/ Valle y sobre todos sus pertenecidos y foguera/ a ella perteneciente en el patronazgo de Olavarrieta,/ y todos ellos los hipoteco para la paga y segu-/ridad de este dicho censo...

[Matxurrena baserria. 1632-II-21.
 Juan Gesala eskribaua. Foliatu gabe.]

 Diru-zentsua delako eskuidazkiaren alboan, **ordainagiria** deitutako dokumentua dago, gaztelaniazko “carta de pago”, hau da, hartzekodun batek zordunari zor dion dirua eman diola adierazten duen dokumentua. Eta A. Anguloren iritziz, ziurtasun tresna idatzia da (1996, 45). 5. puntuan agertuko den moduan, Matxurrena baserriko protokoloetan hainbat ordainagiriren ereduak agertzen zaizkigu, oro har, hiru esparru hauetan erabiliak: sorturiko zentsu zaharra, zein ezkontza-dotearen ordainketan, nahiz baserriko legitimen dirua hartzean. Hurrengo adibidean, Etxebarri Aldañano baserriaren jabeak 1613.an, ordainagiria ematen dio Orbetzu Nagusiko ugazabari.

En el lugar de Olavarrieta que es en el Valle de Ceverio, a veinte y un días/ el mes de septiembre de mil y seiscientos y trece años/ ante mí el infraescrito escribano y testigos, Pedro de Barañano/ de Echevarri que presente estaba vecino del

dicho/ Valle, dio **carta de pago** y de liberación para/ ahora y siempre jamás a Juan Hernani de Horbe-/çua vecino del dicho Valle que así bien estaba/ presente, de los siete ducados que le debía en vir-/tud de escritura que pasó ante mí el escribano de los/ cuales se dio por contento y pagado a toda/ su voluntad por los haber recibido antes de/ ahora realmente, y confesó que sobre siendo necesario en razón de la paga de los dichos/ siete ducados...

[Matxurrena baserria. 1613. urtea.
Juan Gesala eskribaua. 126. fol.]



8. Argazkia: Uriondoko basabehiak larre librean

Errentamendua deitutako eskuidazkiak ere protokolo notarial multzoa osotzen du. Dokumentu honetan, denbora jakin baterako ondasun bat –baserria, lurra, ola edo errota– alokairuan uzten da, urteroko errenta baten truke. Porres (1996, 53) egilearen arabera, agiri hauetatik –nekazaritza bizitzaren atal ugari ukitzen duten heinean– atera daitekeen informazioaren garrantzia, ondoko honetan datza: talde sozioekonomikoaren osaketa eta jokaera, nekazaritza lanaren zikloak, landaketa-motak, ordaintzeko moduak, eta era horretan, aspaldiko eta eguneroko bizitza materialaren berreraiketa egiteko laguntzen du. Bestalde, animalien errentamendu-sistemari, hau da, alokairuan erabilitako kontratu-motari **admeteria** (abelburu nagusiak) eta **amuñeria** (abelburu txikiak) deitzen zaie. Sistema honetan animalien jabeak hartzailearen eskuetan abelburu kopuru jakin bat jartzen du, erdi irabazian eta erdi galeran, “a media ganancia y pérdida”, behin peritoen bidez ebalatuak izan eta gero. Hartzaileak bere burua behartzen du abelburuok (8. argazkia) bere baserrian gorde eta hazteko zenbait urtetan.

En el lugar de Olavarrieta que es en el Valle de Ceverio, a seis días del mes de enero de mil y seiscientos y diez y siete años, en presencia de mi Juan de Guesala escribano del Rey nuestro señor/ y testigos, Felipe de Eguia de Echaso vecino del dicho Valle que presente/ estaba conoció y confesó haber recibido a **media ganancia** de Dña./ Catalina de Anunçibay y Zuybarria viuda, mujer que quedó de San Pedro de Hernani,/ vecina del dicho Valle, ocho cabezas de vacas mayores y menores que/ habían sido apreciadas en cuarenta y dos ducados por hombres buenos non-/brados por las partes, las cuales recibía a medias a riesgo/ de los dos, y a las traer en su casa y casería de Goti de Echaso, por tiempo/ y espacio de seis años que corren de la fecha y otorgamiento de esta carta...

[Matxurrena baserria. 1617. urtea.
Juan Gesala eskribaua. 3. fol.]

Beste eskuidazki bi **lanbide-ikasketarako** kontratua eta **aparejamendu-kontratua** deitutako dokumentuak dira. Hauetan, besteak beste, bi aldeen arteko obligazioak idatziz ezartzen dira, bai lanbide bat irakasteko eta maisuari laguntzeko, zein lanbide jakin baten ofizial batek maisuari delako eginkizun eta funtzioetan laguntzeko. Esandakoa kontuan hartuta, ikus ondoko 8. taulan protokolo notarialen zenbait dokumenturen izenak:

Protokolo notarialak dira ondoko eskudazki-matriz hauen bilduma

- Ezkontza-kapitulazioak
- Testamentu eta uzkontzak
- Ondasunen lerrokapen juridikoak
- Diru-zentsuak edo maileguak
- Botere-luzapena
- Enkante eta erremate publikoak
- Lanbiderako ikasketak-kontratuak
- Lan-hitzarmenak
- Salerosketa-eragiketak
- Admeteria-, amuñeria-kontratuak
- Elkarre-sortzapena
- Auzokideen arteko diru-banaketa
- Abade-benefiziatuen aukeraketak
- Diru-obligazioak eta fidantzak
- Ezkontzaz kanpoko zenbait agiri
- Zenbait auzitarako konpulsak
- ...

8. Taula: Protokoloen eskuidazki mota ugari

3.2. Matxurrena baserrian aurkituriko protokolo notarialak

Gatozen bada, Matxurrena baserrian agerturiko protokolo notarial gaia zehaztera. Hurrengo 9. taulan, dokumentu horien urtea, idatzi duen eskribaua, folio kopurua eta egoera fisikoaren zertzeladak baino ez dira agertzen.

Urtea	Eskribaua	Fol.	Egoera fisikoa
1613	Juan Gesala	144	Gaizki. 28tik 115- ra goialdetik janda
1617	Juan Gesala	87	Ona
1623	Juan Gesala	88	Txarra. Lehen 21 folio: azpitik janda
1632	Juan Gesala	101	Txarra
1640	Juan Gesala	165	Erdizka. Lehen 18 fol.: tinta transpas.
1644	Juan Gesala	185	Ona
1744	J. Barañano	200	Ona. Tarteko fo- lioak falta 20, 43...
1761	J. Barañano	185	Hezetasunez. Tarteko folioak falta

9. Taula: Matxurrenako protokoloak zifratzen

Karp.	Urtea	Eskribaua	Folioak
7	1612	J. H. Areilza./J. Gesala	50
	1613	Juan Gesala Urraza	144
	1614	Juan Gesala Urraza	118
	1615	Juan Gesala Urraza	79
	1616	Juan Gesala Urraza	60
	1617	Juan Gesala Urraza	39
	1617	Juan Gesala Urraza	87
8	1618	Juan Gesala Urraza	64
	1619	Juan Gesala Urraza	76
	1620	Juan Gesala Urraza	57+41
9	1623	Juan Gesala Urraza	88
	1623	Juan Gesala Urraza	Legajo
	1624	Juan Gesala Urraza	98
	1625	Juan Gesala Urraza	41
	1626	Juan Gesala Urraza	Legajo
10	1627	Juan Gesala Urraza	90
	1628	Juan Gesala Urraza	156
	1629	Juan Gesala Urraza	119
	1630	Juan Gesala Urraza	
11	1632	Juan Gesala Urraza	101
	1633	Juan Gesala Urraza	178
	1635	Juan Gesala Urraza	178
12	1636	Juan Gesala Urraza	
	1638	Juan Gesala Urraza	101
	1639	Juan Gesala Urraza	164
	1640	Juan Gesala Urraza	165
	1641	Juan Gesala Urraza	156
13	1642	Juan Gesala Urraza	187
	1643	Juan Gesala Urraza	200
	1644	Juan Gesala Urraza	185
	1647	Juan Gesala Urraza	145
	1649	Juan Gesala Urraza	94
	1650	Juan Gesala Urraza	149
15	1652	Juan Gesala Urraza	122
	1653	Juan Gesala Urraza	78
	1654	Juan Gesala Urraza	84
	1655	Juan Gesala Urraza	18

10. Taula: Juan Gesala eskribauaren protokoloak

Juan Gesala eskribauaren protokolo hauek Zeberioiko Udal Artxiboan (ZUA) bereziki falta direnen artean kokatu behar ditugu, hurrengo laukian zehazten dugun moduan. Horra ba, 10. taulan adierazten da ZUAN dauden karpeten zenbakia eta Juan Gesala

Urraza eskribauaren prokokolo zahar eta berriek (beltziturik) bete beharko luketen lekua, eta hauen tuiuketa.

Taula honetan dagoen protokolo ilada ikusita, Juan Gesala Urraza eskribau-lanbidean aritutako tartegunean, 1612tik hasita 1655 urterarte, hau da, 43 urte posibletik 33 urteko protokoloak daudela esan liteke, eta bederatzi hauek falta direla: 1621, 1622, 1631, 1634, 1637, 1645, 1646, 1648 eta 1651. Ea beste nonbaiten agertzen diren!

Orokortasunetan aritu eta gero, joan gaitzen protokoloen edukira, edo horien mamira. Juan Gesala eskribauak idatzitako 1613, 1617, 1623, 1632. 1640 eta 1644 urteetako protokolo hauen laburpena daukagu hirugarren puntuan, hau da, ia 350 dokumentuen identifikazio-fitxa. Horrela, XVII. mendeko lehen erdiaren nekazaritza eremuko komunitate bateko ikuspegi orokorragoa edukitzeko aukera izango dugu. Eta horrez gain, jarraian, bospasei arazo edo negozio pribatu eta publiko desberdinen sintesia garatuagoa eskaintzen da. Giza-komunitatea, erabat euskalduna zen, euskara baino hitz egiten ez zekiena, salbuespenak salbuespen eskribau, abade, mediku... Baina dokumentazio hau guztia gaztelaniaz idatzita dago. Eta laburtu eta euskaratu behar izan dugu. Horra ba 11. taulan sei gai desberdinen zerrenda: errentamendua, salmenta, diru-kontuak, urretaketa kontratua, erremate publikoa eta lan-kontratua.

1613, Sto. Tomas behitaldearen errentamendua
1617, Sautuolako Burgoa baserriaren salmenta
1632, Juan Beti Fielaren diru-kontuen zehazketa
1632, Andramari erretaulako santuen urretaketa
1640, Herri-basoen egurraren enkantea publikoa
1640, Eskola-maisuarekin lan-kontratua

11. Taula: Jarraian garatzeko protokoloak

- 1613ko apirilaren 21ean. Olabarrietako Santo Tomas fabrikaren behitaldearen errentamendua. Juan Goti Uriondo eta Juan Arana Ereñoza patroien partzialitateko bi maiordomo zibilen ardurapean, errentamendurako enkante publikoa egitea agintzen da, eta ohiko hiru deialdi publikoak egiten ditu eskribauak. Eta jarraian, behitaldearen errentamendua betetzeko zortzi baldintza zehatz ezartzen dira, garrantzitsuenak hauek direlarik:

1. Errentzaileak San Juan inguruan, eskuratuko ditu 129 abelburu handi eta txiki, eta zezena. Kontratua hiru urterako izango da.

2. Ezin dezake inolaz ere abelbururik saldu.

4. Behitaldea hartu zein uzterakoan, abelburuen adina zehaztuko da, eta galerarik egonik, errentzaileak ordeko abereak jarriko ditu, eta hobekuntzak baleude, dirutan ordainduko zaio.

5. Arrabako heziak jartzea errentzailearen kontura izatea eta txabola konpontzea Elizaren ardurapean.

6. Ez errentzaileak ez eta artzainek, ez moztea Elizak dituen kortabasoetako zuhaitzik, ez bada sua egiteko edo txabola eta heziak konpontzeko.

7. Errentatzaileak diru-fidantzak aurkeztea.

Horrela, enkante publikoa burutzeko kandela bat piztu bazen ere, ez zen inor aurkeztu (65a-66i fol.). Horrela, apirilaren 26an, bi maiordomoek Orozko haraneko Olarte elizateko auzokide den Txomin Gotxirekin hitzartzen dute, honek urte beterako behitaldea har dezan, 46 dukatetan (97. fol.).

- 1617ko abuztuaren 1ean. Sautuola auzoan eta Juan Gesala eskribauaren lekukotasun pean, Juan Urizar defuntuaren alarguna den Pantxike Ugartek Sautuola auzoko etxe bateko bere zatia [Burgoa deituko dena], ortua eta sagastia saltzen dizkie Juan Burgoa sastre eta Maria Perez Goti ezkontideei, eta ondasun horien mugarriak publikoak, ezagunak eta nabarmenak dira. Prezioa 400 errealekoa da (errealeko 30 marabeditan), horrela ebaluatu baitzuen Areatzako Pedro Arteaga arotz-maisuak. Lekuko legez, Antonio Gesala, Martin Goti sastre eta Pedro Arteaga Agirre auzokideak dira (59a-60i fol.).

- 1632: Urtarrilaren 2an. Auzokide patroï batzuen aurrean, 1631. urtean, Patxi Beti Olazar Fiel izan zenak iazko **diru-kontuak** aurkezten ditu. Denetara zortzi folio idatzirik agertzen dira, eta hemen gastu batzuen aipamena besterik ez dugu egingo. Karguen artean, esaterako, Juan Bengoetxeak diru-banaketa baten batutako 30 dukat, hiru errealeko patroï partzialitateko auzokideko (edo 330 errealeko). Eta beste banaketa baten Juan Idirinek batutako 40 dukat, lau errealeko auzokideko (440 errealeko). Bestetik, deskargu edo gastuen artean zera agertzen da: otsoak harrapatu zutenei errealeko batzuk aldi desberdinetan; soldaduak Bilbora joan eta itsasoratu zirelako beste errealeko batzuk; hamar errealeko hilobietarako karea ordaintzeko; Olabarrietako abadeen eskubideak zirela eta, 12 dukat; lau dukat Martin Orbezu abadeari baino bat bedeinkatzegatik; Zuibarriko zubia konpontzeko lau errealeko eta hamar kalzadetarako. Orotara, kargoetan 1.102 errealeko, eta deskargoetan edo gastuetan osterara, 2.511 errealeko.

- 1632ko uztailaren 2an. Gai hau Zeberioگانeko Andramariko **erretaula urreztatze**ko kontratua dugu. Alde batetik, Txomin Ugalde Andramari ermitaren maiordomo zibila dena, eta bestetik, Aiara haraneko Menagaraiko auzokide den Juan Arana margolaria, eta alde biek adosten dute Andramariko erretaulan agertzen diren ondoko historia hauek margoztea eta urreztatzea. Amabirjinaren erretaulan, jaiotza eta erregeen gurtzea. Bestetik, Juan, Maria eta Kristo; gero, Kristoren oinak, eta pasioan dauden bi aingeru; Amabirjinaren koroatzea; Amabirjinaren agurra; Amabirjinaren aurkezpena; Espiritu Santuaren etorrera; Errosarioaren ezarpena; Amabirjina, Santo Domingo eta Sienako Santa Katalina.

Erretaularen ebangelioaren aldean historia hauek: San Pedro, San Pablo, San Franzisko, San Antonio, San Llorente, San Bizente, San Esteban, Santo Domingo, San Juan ebangelista... Eta epistolaren aldean, San Migelen historia. Eta hori dena moldurak urreztatuz eta lanbideari dagozkion atalak landuz “doraduras,

estofaduras, pinturas, encarnaciones y todo lo demás”. Amaiera data, urte horretako iraileko Amabirjinaren eguna jartzen da. Alde biek, lan honen kosto-dirua arloko arte-maisuak tasatuko luketenaren arabera ordaintzea adosten dute. Urriaren 18an, Juan Aranak 2.000 errealeko ordainagiria ematen dio Txomin Ugalderi.

- 1640ko otsailaren 5ean. Pedro Barañano eta Pedro Urigibel maiordomo zibilen ardurapean, herri-basoetako egur-kargen **enkante publiko**a egitek hiru deialdiak egiten dira. Zeberioگان Helbarren eta Hergoien bi eremuak banandurik, baso bakoitzean dagoen egur-kargak zehazten dira. Zeberioگان Helbarren eremuari dagokionez:

- Erniaga lekuan, Idirinen ondoan, 60 karga
 - Uriondolarran, 20 karga
 - Sasadurraga kortabasoaren ondoan, 40 karga
 - Kortabarrietan, 40 karga
 - “Junto a la esquina del agua”, 150 karga
 - Azpitarte lekuan, 200 karga
 - “Iten, en Querexminaga”, 20 karga
 - Zurrunzuaga lekuan, Ertzila aldera, 40 karga
 - Zulagortan, Goiaren gaztainadiaren ondoan, 24
 - Aztuibaltzan, 200 karga gutxi gora-behera
- Eta bestetik, Hergoien basoetan:
- Mozollotegi lekuan, 60 egur-karga
 - Eskiñezabalen, 100 karga
 - Pagatzazabal tokian, 200 karga
 - Urteagako telleriaren ondoan, 30 karga
 - Berdegorta gainean, 30 karga

Eta kandela piztuta, Pedro Idirin Goikoa gazteak Erniagako karga bakoitzeko 52 marabedi opatu zituelarik, horrenbestez kandela amatatu egin zen, eta postura beretzat izan zen. Beste kargetarako pujatu zutenak izan ziren Juan Garzia Sautuola, Pedro Barañano eta Martin Arestui Artiñano.

- Eta 1640ko abenduaren 12an. Patxi Urteaga eta Iñigo Barañano Isasi, hurrenez hurren Fiel infantzoia eta patroia, biek Arabako Trespuentes (Iruñea) herriko Andres González Vallejo **eskola-maisua kontratatzen dute** bi urterako. Eskola legez, ospitalean dagoen gela bat eta ohe bat ematea agintzen da. Eta soldatari dagokionez, batetik, Martin Ugaldek sortutako Erruki Obraren arabera bertako patroia ematera behartuta dagoen dirua, eta bestetik, ikasleek hilabetero zera emango diote: irakurtzen ari direnek errealeko bat, eta idazten eta zenbatzen ari direnek, 2 errealeko. Horrez gain, ohitura den neurrian, ume bakoitzak larunbatero ogitalo bat. Andres maisuak ohikoa zena irakatsiko du.

4. Zortzi urteen protokoloen laburpena

Esana dugu protokolo eta dokumentu hauek Zeberio herria osatu duen komunitateari buruzko informazio historiko bariatua eskaintzen digutela. Orohar, Zeberio zuzenean dagozkion protokoloak kontuan hartuta, sei urte hauetako bildumak laburbiltzen du Zeberioگان

XVII. mendearen lehen erdian zegoen bizimodua, batez ere, sendiaren eta lanaren bi munduen inguruko bizitza mota. Hau da, ia 350 idazki hauetan islaturiko garai hortako gai eta negozio nabarmenenak eta ugariak hiru eremuren inguruan murgilduko direla esan daiteke:

1. Baserriaren inguruan babestutako familia tronkala eta nekazaritza jarduera, ustiaketa, eta iraupena, bereziki ezkontza-kontratu, uzkontza eta testamentuen bidez bermatua eta frogatua.

2. Olaren funtzionamendua garatzeko operazio desberdinak (ikatz eta mea eskuratu, burdin landua entregatu, lan-kontratu desberdinak, matxuren konponketak, garraioak...).

3. Salerosketa, admeteria, errentamendu eta mailegu munduei dagokien eremuan.

Zehatz dezagun honelako atal bakoitza.

Baserriaren atala. Protololo hauetan etengabe agertzen dira Zeberioko baserri eta jabeei buruzko datu interesgarriak. Ondorengo orriotan, beltzez seinaturiko toponimoak funtsezkoak dira baserrien izen historikoa identifikatzeko. Zenbait kasutan, familiaren jatorrizko abizena izen horietan dago. Beste berba batzuetan, protokolo hauetan espazialki Zeberio herria banatzen den hiru eremu geografikoak kontuan hartuz, Hergoien, Ertain aldea eta Helbarren, edo nahiago bada, herrian zehar barreiatutako 25 auzotako baserri guztien izenak eta jarduera desberdinak behin eta berriro aipatuta datoz.

Eta baserri horietan bizi diren norbanakoen izen-abizenak identifika daitezke, eta zeintzu negoziotan sartuta zeuden ere bai, izan ere, aipatutako eskuidazki horiek (ezkontza-kontratu, testamentu, diru-zentsuak) baserria eta familia zuzenki ikutzen dituzte. Datu eta pieza guztien bilduman eta josturan berreraiki egin daiteke Zeberioko lauhun eta piku urtetik gaurdainoko baserriaren kronika indibidualizatua, hau da, baserri bakoitzaren esperientzia soziohistorikoa.

Olagintza esparrua aztertuz, kontuan hartu behar dugu, orduko Zeberio haran geografiko berean, edo Olabarrieta elizatean, zazpi ola eta hainbat errota martxa bizian funtzionatzen ari zirela. Zazpi olok, goitik hasita Ugaorako bidean hauek dira: Olabarri(eta), Zubibarria, Sautuola, Areiltzako Olabarri, Santa Kruz, Arbildu eta Arezandiaga. Matxurrena baserriko protokoloek olen inguruan mugitzen zen mundu konplexu eta aberatsaren isla utzi digute.

Ez zen gutxi ola batek eskatzen zuen horniketa ase-zina: basoetan egurra ziurtatzea, negurako egur-ikatz eskuratzea, horretarako besolana (bracería) bermatzea, eta berau zein burdin-mea olara garraiatzea, oletako ofizial kualifikatu desberdinak kontratatzea. Eta landutako produktua, burdin-kintal sotila zein platinatua Bilboko errenterian saltzea eta uztea. Azkenik, olaren zatien errentamendua, urteroko diru-kontuen zuriketa eta ohiko matxuren konponketa. Jarduera honek guztiak etengabeko konpromisuak, obligazioak, ordainketak eta

azken finean, eskuidazkiak eskatzen zituen. Horixe da ondoko orriotan ikus daitekeena.

Protokolo hauen bidez ikus daitekeena da baita komunitatearen hirugarren atala esan duguna, alegia, merkataritzaren, diru-maileguen edo diru-zentsuen eta ordainketen mundua, eta era desberdinetako errentamenduak. Hasteko esan, dena erosi zein saldu daitekeela. Baserria bera, solo eta baso, edo elizako hilobia bera, baina jakina, aurretiaz deialdi tronkalak bermatuta egonik. Baserriko basoetan zegoen egurra “montazgoa” ere saldu egiten zen egur-ikatz egiteko. XVII. mendearen hasieran bizi-bizirik zegoen abelburu desberdinen merkatua, batez ere, zaldi eta mandoak, baina bai eta idi, ardi eta ahuntzak ere eta mundu honek olagintzarekin lotura du: ikatz eta mea garraioetarako zamariak, hauspoak egiteko animalien larruak saltzea, zein zahagiak ardotarako... Eta herri-basoen egurra enkante eta erremate publikoan ateratzea, denen aurrean, kandela bat piztuz eta amatatu arte posturak egitea onartzen zen sistema.

Salerosketaz gain, gure komunitatean ohikoa zen errentamendu sistema ere. Baserria, soloren bat, fogera, eta olaren ur zatiak, ikaztegi, meategi eta erreminten alokairua, abelburuak erdi-irabazi eta erdi galeran hartzea, abelburuak errentamenduan ematea... Eta honi lotua, informazio historiko ugari ematen duen diru-zentsuen sortzapenak dauzkagu. Dakigun bezala, maileguak suposatzen zuen diruren bat eskuratu asmoz, norbere zein bermariaren baserria eta etxaguntza guztien hipoteka burutzea. Ugari dira era hontako dokumentuak.

Hiru esparru beraz, baserria, olagintza eta salerosketa. Ondoko laburpenak hiru esparru hauetaz gain, beste gai batzuekiko ere dokumentazioaren berri laburra emango dugu. Bertan, erabilitako notazioak zera esan nahi du: beltzez, Zeberioko baserri baten izena identifikatzeko; azpimarratua, protokolo, gai edo negozio mota adierazteko; azkenik, [] ikurren bidez adierazten dokumentazioan ez datorren informazio gehigarria. Horra ba, Zeberio haraneko Matxurrena baserrian aurkituriko protokolo edo eskuidazki guztiak, modu laburrean aurkeztuak, hala beharrez.

4.1. 1613ko protokoloen laburpena

Juan Gesala Urraza eskribaua. 144 folio; zenbatuta daude. Lehen 28 folioak oso gaizki.

- 16. fol. eta hurrengoak. Martin Perez Leginetxek boterea ematen die Menzia **Santa Kruzi** eta Madrilen bizi den Patxi Fuika Ladron de Zegamari, hauek Iñigo Santa Kruz idazkari defuntuaren heredentzia kobratu ahal izateko. Indietako Potosin dauden milekada dukatetako zentsuak agertzen dira.

- 24. fol. 1613. urtea. Barbatxao Uriarte baserrian, Pedro Uriarte Sautuaren eta Maria Saez Urizarren arteko ezkontza-kontratu burutzen da. Alde batetik, Martin Uriarte eta Maria Ibanes Sautua ezkontideek Pedro semeari dotetzat zera ematen diote: **Uriarte**

baserria eta etxaguntza guztiak, gozamenaren erdia eurentzat gordez. Eta beste aldetik, Juan Urizar aita eta Juan semea, biek Maria Saez alaba-arrebari dotetzat 200 dukat dirutan eta arreoa ematen dizkiote. Lekukoak Martin Ipiña batxilerra, Pedro Goti abadea, Martin Perez Leginetxe, Martin Ugalde eta Pedro Torrezar dira.

- 26i. fol. Juan Burgoak Juan Areilza Urrazaren aurka sartua zuen salaketa eta kereila erretiratzen ditu, honek lapurraren seme deitu ziolako, eta diruaren truke ez du aurrera egingo.

- 28. fol. Zeberrioko zenbait auzokidek eta tartean, Martin Perez Leginetxe, **Santa Kurtze** etxedorreko jabeak, eskatzen dute Areiltza auzoko harrizko zubitik hasita eta Hergoien aldera dauden egurbide-basoen finkapena. Aurretiaz, badirudi auziren bat egon zela Korreximenduaren aurrean.

- 29. fol. Juan Bezurten *Ezkerra* zordun nagusia, eta Martin Artiano Torre bermari legez, biek elkarrekin Martin Altuaranari zaldi bat erosten diote, irendu gabea eta arneseria guztia.

- 31. fol. Alde batetik, **Urkitzeko** Martin Urkizak, eta bestetik, Zubialden bizi den Maria Jauregik desadostasuna dute, Jeronimo deitutako bi urteko seme komun baten inguruan, honen heziketaz eta Mariaren birgintasan garbiketaz. Alde biak adostasunera iritsita, Martinek 30 dukat ordainduko dizkio aipatu Maria Jauregiri.

- 33. fol. Olabarrietako Santo Tomas fabrikako Juan Beti Olalzar eta Martin Arana Uriondo 1612. urtean egon zireneko bi maiordomok, 1611. urtean kargu bera izandako Juan Zabala mazukari eta Martin Ipiña Amezola, biei diru-kontuen ordainagiria ematen diete.

- 34. fol. Martin Hereño eta Marina Tollara Nafarrondo ezkontideek, Olatzar auzoko **Tollara** baserriko legitimak direla eta, 109 dukateko ordainagiria ematen diote Juan Tollara Nafarrondo defuntuaren alarguna den Maria Saez Urraza.

- 36. fol. **Elorriaga** baserriak zituen lur hipotekatuak direla eta, Martin Perez Leginetxek solo batzuk 40 dukatetan saltzen dizkie Maria Saez Barrenetxe eta Pedro Larrea Elorriaga ama-semeei. Eta 38. folioan, aurrekoaren jarraipena dago. Martin Larrea Elorriaga defuntuaren alarguna den Maria Saez Barrenetxe eta Pedro Larrea Barrenetxe semeak, biek elkarrekin diru-zentsua sortzen dute, urtero bi dukateko interesean, Martin Perez Leginetxeren alde, eta horretarako Elorriaga baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte.

- 40. fol. Pedro Barañano Etxebarri semeak eta Marina Arteaga amak Juan Hernani Orbezuri hiru zaldiko eta zekor batzuk erdi-irabazi eta galeran haziak izateko utziak zizkioten. Baina honek moxalak galdu omen dituzte, haiek auzia jartzen diote Bizkaiko Korreximenduaren Auzitegian. Bitartean, bakearen aldeko herriko pertsona nagusi batzuk tartekatzen dira, eta haien arteko desadostasuna bideratzen dute: Juan Hernanik 13 dukat depositotzat utzi behar ditu.

- 42. fol. Otsailaren 10ean. Olabarrietako Santo Tomas fabrikako maiordomo diren Juan Goti Uriondo eta Juan Arana Ereñoza, biek Arbilduko kortabasoaren egurra enkante publikoan ateratzen dute. Posturak egiten dituztenak Juan Larrea, Juan Goti Amezola eta Martin Perez Leginetxe dira.

- 44. fol. Ana Ipiñaren testamentua. Martin Uriarteren emaztea da, eta **Ereñotza** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea agintzen du. Seme-alabak Maria Perez, Marina eta Juan (Uriarte Ipiña) Ereñoza dira, baina oraingo ez du nahi oinordekorik aukeratu. Beraz, testamentari legez Martin Ipiña neba eta Patxi Uriarte senarra izendatzen ditu. Juan semeari 400 erreal estudiatarako agintzen dizkio.

- 46. fol. Martin (Sautuola) Urigibelen testamentua. Marina Urigibelez ezkontuta dago, eta adin gitxiko hiru seme-alaba daukate. Barbatxaoko **Urigibel** baserrian bizi dira. Beraz, emazteari boterea ematen dio Pedro Sautuola Urigibel semea oinordeko izendatzeko, eta Katalina eta Maria alabei, bakoitzari 60 dukat ematea agintzen du. Marina emaztea Juan Urigibelen alaba da.

- 48. fol. 1613ko martxoaren 10ean. Zeberrioko auzokide infantzoiek batzarra egiten dute boterea luzatzeko asmoz. Bertaratuak, besteak beste, hauek dira: Juan Hernani Arbildu nagusia, Martin Perez Leginetxe, Martin Ugalde Santa Kruz, Juan Hernani Areilza gaztea, Juan Areilza, Pedro Rekalde, Joan Hernani Areilza nagusia, Joan Iturrate, Martin Zabala Bengoa, Santorum Arbildu, Pedro Artiano, Mateo Artiano, Martin Arestui, Juan Arestui, Martin Hereñoza, Juan Urigibel, Hurruño Arteaga, Iñigo Arandia, Martin Arandia, Martin Ariz, Joan Tollara, Martin Egia, Pedro Sautua, Joan Gesala eta beste auzokide asko, luzatzeagatik jartzen ez direnak. Eta esan zuten Gernikako zuhaitz pean Batzar Orokorra deituta zegoela eta bertara joateko boterea ematen diote eskribau den Juan Hernani Areilza nagusiari.

- 49. fol. Migel Arana Zubiaur eta Ana Zubiaur uztarkideek hilobi bat saltzen diote Martin Perez Leginetxeri Olabarrietako Santo Tomas elizan, ebangelioaren aldeko lehen iladan kokatuta dagoena, Jauregi eta Larrakoetxea baserrien hilobien artean.

- 51. fol. Juan Berzuten *Ezkerra* deituak **Arezandiagako olan** entregatzeko, Ugao-Miravalles hiribilduko auzokide den Hurruño Rotalleri, 80 ikatz-karga saltzen dizkio, bere basoen muga barruan daudenak, hauetatik gaztainondoaz eginda 50, bi erreal eta laurdenetan karga bakoitzeko, eta haritzondoaz 30, bi erreal kargako. Lekukoak Pedro Larrea (Larrakoetxea), Martin Unzueta eta Arratiako Merindadeko merino den Andres Yurrebaso dira.

- 54. fol. 1613. Urtea. **Zubibarria olan** matxura batzuk egin zirela eta Martin Ugalde jabe-partzuariak ordaindu zituen denak. Beste jabe-partzuaria Zeberrioko **Agirre**(txu) baserri-sortetxearen jabea zen, hau da, Gregorio Idirin Ginea. Gregorioren izenean eta boterearekin arituko da Pedro Ginea batxiller-abadea,

eta honek aitortzen du arotz-maisuek matxurok ebaluatu ostein, 100 dukat ordainduko dizkiola Martin Ugalderi.

- 56. fol. Aurtengo Fiel biak hauek dira: Juan Areilza Areiltzakoa (infantzoi) eta Martin Barbatxano Barañano (patroia). Bi hauek eta Pedro Arteaga sastreak zera adosten dute, azken honek Errioxako ardo beltza bere etxera ekarriko duela.

- 58. fol. Asturiaseko Bernal de Llanes, eta Ugaoko Martin Unzueta, biek euren burua behartzen dute Arezandiagako olarako, Untzetabe eta Zurrunzuaga herri-basoetan 300 ikatz-karga egiteko eta entregatzeko.

- 60. fol. **Santa Kurtze** etxedorrean, Txomin Sautuola Arteagaren eta Magdalena Tollara Gesalaren arteko ezkontza-kontratua burutzen da. Batetik, Txominek ezkontzara Kerezaluzeta basoaren erdia eta bi zaldiko daramatza. Eta bestetik, Magdalenak, Bilboko Otxoa Fuikak sortutako Erruki Obratik 50 dukat eta Olaltzar Tollara baserritik dagozkion bi legitimak eta arreo. Batak zein besteak gurasoak hilak dituzte.

- 61. fol. Martin Ugaldek 40 dukateko ordainagiria ematen die Martin Beti Olalzarri eta honen suhia den Martin Urkizari.

- 63. fol. Martin eta Patxi Beti Olalzar, aita-emeak 40 dukat-zentsua sortzen dute, eta horretarako eurena den **Beti Olaltzar** baserria hipotekatzen dute.

- 67. fol. Martin Beti Torreren eta Marina Egia Tollaren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Juan Torre aita alargunak, Martin semeari dotetzat zera ematen dio: **Beti Olaltzar** baserria, etxeguntza guztiak eta Olabarrietako Patronazgoko fogera, gozamenaren erdia beretzat gordez. Eta bestetik, Santxo Egia defuntuaren Marina Tollara alargunak eta Martin Egia semeak, alaba eta arreba den Marinari, aurreko ondasunen baliokidetasunean dotetzat 640 dukat agintzen dizkiote.

- 70. fol. Martin Perez Leginetxek 40 dukateko ordainagaria ematen die Pedro Larrea Elorriaga Barrenetxeri eta Maria Saez Barrenetxe amari.

- 71. fol. Aurtengo Olabarrietako maiordomo diren Juan Goti Uriondok eta Juan Arana Ereñozak dirukontuen ordainagiria ematen diete, 1612. urtean kargu berean egon ziren Juan Beti Olalzarri eta Martin Arana Uriondori.

- 72. fol. Juan Solatxi eta Marina Egia ezkontideen seme den Juan Solatxi Egia ola-mazukariak zera dio, 1612ko maiatzaren 10ean, Marina amak eta Maria Saez arrebak **Zubibarria etxedorrea** saldu ziotela Martin Ugalderi, eta orain Juanek salmenta hori berresten du.

- 74. fol. Arantzazuko elizateko Albitzu lekuan Patxi Albizuren semea den Juan... (irakurtezina).

- 76. fol. Zeberioiko Ana Hernani auzokideak hiru behi erdi-irabazi eta galeran uzten dizkio Ugao-Miravalles hiribilduko auzokide den Maria Hernandez Uribarriri.

- 77. fol. Tomas Hereño Uriondok zamari bat 22 dukatetan erosten dio Juan Barañano defuntuaren alarguna den Ana Maria Ortiz Amezari.

- 78. fol. Juan Zabala, *Joaniko* deituak kolore argiko eta irendu gabeko zamari bat hamar dukatetan erosten dio aipatu Ana Maria Ortiz andeari.

- 79. fol. Pedro Zuibarria albaitarraren eta Maria Ortiz Gesala Areilzaren arteko ezkontza-kontratua. Pedrok ez du suztraizko ondasunik, eta Maria Ortizek arreo, ohea hiru aldiz hornitua, eta erropak eramaten ditu.

- 80. fol. Martin Abendaño Arandiak 100 dukat-zentsua sortzen du Martin Ugalderen alde.

- 81. fol. Orozko haraneko Muruetako elizateko Astoaga baserrian, zeberioztarrak diren Pedro Barañano Gorosituren eta Katalina Mendiaren arteko ezkontza-kontratua. Pedrok esaten du **Barañano** baserritik bi legitimak dagozkiola eta Katalinak berriz ezkontzara 54 dukat, arreo eta ohea lau aldiz hornitua eramaten ditu.

- 84. fol. Konponketarako hitzarmena. Alde batetik, Iñigo Barañano Amezakoa eta Marina Ameza senar-emeak, eta bestetik, Iñigo Zabala Amezakoa eta Ana Ameza, ezkontideak ere, eta laurak Zeberioiko auzokideak dira. Haranean bertan kokatuta dagoen **Ametza errotako** jabe eta partzuari direnez gero, errotaren errentaz eta eraikin berriaz dauzkaten desadostasunak konpondu nahi dituzte.

- 86. fol. Andres Yurrebaso defuntuaren alarguna den Marina Ugalde, Martin (Yurrebaso) Ugalde maisu defuntuaren ama eta oinordeko da. Honen herendentziatik eta Madrilen bizi den Antonio Xuarez de Vitoriaren eskuetatik 47.000 erreale kobratzeko dituela esaten du. Baina Antonioren aurka auzia jarria duela kobratu ahal izateko, eta hortaz, boterea ematen die Madrilen dauden Hurruño Azaibar eta Hurruño Urizar bie.

- 87. fol. Igorreko auzokide den Martin Ugarte Lasarte hauspoegileak oletarako hauspoak egiteko asmoz, lau narru erosten dizkio Okendoko Txomin Zabalarri 24 dukatetan.

- 88. fol. Pedro Gesala Idirinek, **Idirin** [Bekoa] bere baserriaren basoetatik 170 ikatz-karga eramango dizkio Martin Perez Leginetxeri, karga bakoitza 38 marabeditan delarik. Lekukoak Juan Hernani Areilza nagusia, Pedro Torreazar eskolamaisua eta Pedro Larrabide dira.

- 90. fol. 1613. urtea. Juan Olarra Bezurtenek, **Bezurten Marin** bere baserriarenak diren Zearra eta Egurza basoetatik 450 ikatz-karga eramango dizkio Martin Perez Leginetxeri.

- 91. fol. Martin Perez Leginetxek 59 dukat balio duten zortzi abelburu ematen dizkio Juan Olarra Bezurteni lau urterako, erdi-irabazian eta galeran, honek Bertzuten auzoko **Olarra Marin** baserrian hezi ditzan.

- 92. fol. Ekainaren 3an. Olabarrietako elizateko auzokideen artean fogera bakoitzeko lau errealeko diru-banaketa. Auzokide infantzoi gehienen izena idatzia dator, eta eremu honetan 54 fogera agertzen dira. Laster publikatuko da osorik transkribiturik.

- 94a. fol. Juan Otxoa Urizar zapatariak harizti-gaztainadi bat saltzen dio 25 dukatetan Iñigo Arandia

Sautuola errementariari. Juanen arrebak Pantxike, Maria eta Marina Urizar dira. Aipatu basoa guraso defuntuen heredentziatik, **Sautuolako** etxetxoari zegokiona eta gelditu zitzaiena da.

- 96. fol. Aurtengo ekainean, Ugao-Miravalles hiribilduko auzokide den Tomas Ibarretzek 8 dukateko ordainagiria ematen dio Pedro Arandia Olalzar-i, Martin Unzueta suhiaren heriotzagatik.

- 97. fol. Santo Tomas behitaldearen errentamendua. 9. orrialdean laburtuta dago.

- 97. fol. Apirilaren 26an. Olabarrietako Elezbasoko hariztian (9. argazkian), ekainaren 6an, Orozko haraneko Olarte elizateko Txomin Gotzik 46 dukatetan Olabarrietako Santo Tomas abelburuen behitaldea errentamenduan hartzen du, Juan Goti eta Juan Arana maiordomoen eskutik, eta urte beterako, 1614ko ekainaren 24 egunarte.



9. Argazkia: Elizondoko Elezbaso hariztia. FOAT

- 98i. fol. Maria Otxoa Ginea San Pedro Ereñozaren alarguna da eta Pedro Ginea batxillerraren arreba. Aparizio Arana eta Maria Goikoa ezkontide defuntuez, eta 1570eko apirilaren 12an Martin Idirin Ginea eskribauaren aurrean sorturiko diru-zentsuaz ari dira. Eta orain, Pedro Arana Areilza eta Maria Ortiz Arana uztarkideak Aparizioaren suhi eta alaba dira.

- 100. fol. Juan Barañano ola-mazukari defuntuaren alargun den Maria Ortiz Amezak, Esteban Barañano koinatuari dotearen itzulketa dela eta ordainagiria ematen dio.

- 101. fol. Esteban Barañanok Sautuola auzoko etxea eta solo bat errentan ematen dizkio Hurruño Arteagari bi dukat urteroko errentapean.

- 102. fol. Juan Arana Ereñozak bere etxean Pedro Egia Zeberioanaren bi idi heziak ditu.

- 103. fol. Juan Bezurten *Ezkerra* deituak Martin Artiano Torreri zapi dukat zor dionez, lau dukat balio duen zekor bat saltzen dio.

- 104. fol. Arantzazuko elizateko Kuzkurrita etxea errentan ematen zaio Martin Arteaga zapatariari.

- 105. fol. Areilza auzoan bizi den Juan Gesala iltzegileak, Pedro Zuibarria koinatu albaitariari hauspo batzuk eta ingudea saldu zizkion sutegi-errementeria

egin ahal izateko. Eta Juanek Pedrori horien 28 dukateko ordainagiria ematen dio. Pedro Maria Ortiz Gesalarekin ezkondua zegoen eta Zubialden bizi direla agertzen da.

- 106. fol. Juan Goti "clérigo presbítero beneficiado" Olabarrietako Santo Tomas elizan abade benefiziatu dago eta Gasteizen Juan Goti loba du zeinak Diego Ruiz Gamarra eskribauarekin ikasketak urte batzuetan egiteko asmoa baitu. Baina eskribauak ez du bere etxean eduki nahi, ez bada adosturiko denboraz diru-fidantzarik ezartzen.

- 108. fol. Martin Barañano Isasi ola-mazukariak 39 dukat prestatzen dizkio Iñigo Arandia Sautuolari eta honek zorra aitortzen du.

- 109. fol. Juan Barrenetxe Ereñozaren eta Maria Saez Urraza Artianoren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Santorin Barrenetxek semeari dotetzat zera ematen dio: Ereñotza auzoko **Barrenetxe** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera, gozamenaren erdia beretzat gordez. Eta beste aldetik, Juan Areilza Urraza eta Teresa Artiano ezkontideek alabari dotetzat hauxe ematen diote: 120 dukat dirutan, arrea eta Zeberioanako Andramari ermitaren eta Ereñotza auzoaren artean dagoen Sarriondo basoa.

- 112. fol. Juan Areztui Sautuolak Juan Barbatxano ola-tiratzaileari hiru urte dituen eta irendua dagoen mandoa erosten dio 40 dukatetan.

- 113. fol. Irailaren 2an, San Antolin egunez, Santxo Barañano eta Maria Martinez Barañano ezkontideek dira. Maria Martinezen ahizpak ziren Marina eta Maria Ortiz Barañano defuntuen heredentzia zela eta, haiek 40 dukateko ordainagiria ematen diote Martin Barbatxano Barañano mazukari eta koinatuari.

- 114 fol. 1613ko irailaren 2an, San Antolin egunean, Juan Argiñano Barañanoren eta Maria Perez Aloa Aranaren arteko ezkontza-kontratua burutzen da. Alde batetik, Pedro Argiñano alargunak Juan semeari dotetzat zera ematen dio: **Argiñano** [Andikoetxea] baserriaren erdia (etxearen beste erdia Maria Perez Barañano ama defuntuarengandik zermalako), eta etxaguntza guztiak, aulki, hilobi eta patronazgoan duen fogera, baina gozamenaren erdia beretzat gordez. Eta beste aldetik, Juan Aloa Barañano eta Katalina Arana ezkontideek Maria Perez Aloa alabari, aurrekoaren baliokidetzan dotetzat hauxe ematen diote: 180 dukat dirutan eta arrea (ohe berria 6 bider hornitua, kapa, saiak, sei buruko, arropa zuria...).

- 115 fol. 1923. urtea. Marina Beti Torreren eta Juan Urteagaren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Juan eta Martin Beti Olalzar aita-emeak Marinari 90 dukat dirutan, arrea ematen dizkiote. Eta **Olalzar Beti** baserrian bizitzeko aukera sei hilabetez errenta ordaindu gabe. Eta beste aldetik, **Urteaga** baserrikoa den Patxi Urteagak Juan anaia urtzaileari 40 dukat eta sei urteko zamaria ematen dizkio.

- 119. fol. Patxi Isasi Saldarianek Arantzazuko auzokide den Pedro Olarra Uriari mando beltz irendua eta arnesak erosten dizkio 50 dukatetan.

- 122. fol. Pedro Ugarte zirujau-maisua zordun nagusia, eta Martin Perez Leginetxe bermari legez, biek diote Bilboko Simon Zeberitxari 24 burdin-kintal platinatua jarriko diotela Bilboko Erreterian.

- 125. fol. Pedro Barañano Etxebarrik zazpi dukateko ordainagiria ematen dio Juan Hernani Orbezuri.

- 126. fol. Maria Ortiz Urkiaga, Juan Gorosituren alarguna, eta Iñigo Gorositu Urkiaga, ama-emeak 64 dukat-zentsua sortzen dute Martin Ugalderen alde, eta horretarako eurenak diren **Urkiaga** baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte.

- 128. fol. Zaratamoko San Lorente elizako Juan Uria abadea zordun nagusia, eta Juan Olarra Saldarian eta Katalina Uria ezkontideak bermari legez, hirurek elkarrekin diru-zentsua sortzen dute Martin Ugalderen alde, eta horretarako bikoteak **Saldarian** [Olarra] euren baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte, eta abadeak berea den Zaratamoko Iragorri baserria.

- 131. fol. Juan Gorositu defuntuaren alarguna den Maria Ortiz Urkiagak **Sautuolako** olako ur errentamendua egiten du Patxi Urteagaren alde, “y sacase fierro so la dicha peña”.

- 132. fol. Juan(?) Tollara *Gerra* deituak, Martin Beti Olazarren seme den Juan Gorositu Beti Olazarri lau urteko kolore gorriko mandoa erosten dio 44 dukatetan.

- 133. fol. Arantzazuko elizateko Patxi Albizuk bi behi eta behikumeak... (irakurtezina).

- 134. fol. Alde batetik, Iñigo Arandia Sautuola, eta bestetik, Antonio Ginea Sautuola, biak Zeberioko auzokideak. Bada hiru hilabete, behin Sautuolako Martin Arizen etxean zeudela, Iñigok makila batez Antonio jo egin zuela. Ondorioz, honek ezin izan zuen errementaritzza bere lanbidean aritu, eta Antoniok auzi kriminala jarri zion Iñigori Korreximenduren Auzitegian. Orain, biek arbitro konpontzaile izendatzen dituzte Pedro Ginea batxiller-abadea eta Martin Ugalde.

- 136. fol. Hurruño Arbildu eta Juan Hernani Arbildu gaztea, biek zordun nagusiak, eta Martin Perez Leginetxe bermari legez, hirurek diote 150 burdin-kintal platinatua ezarriko diotela Bilboko auzokidea den Martin Uribarri Bilboko erreterian.

- 137. fol. Martin Sautuola Urigibelek Pedro semea aprendiz aparejatzan du Juan Zuibarria errementariarekin, hiltzegintza lanbidea ikasteko lau urtez eta 11 dukat urteroko soldatan. Gazteak ez du inolako ausentziarik egingo.

- 138a-140i. San Pedro Hernani defuntuaren alarguna den Katalina Anunzibaik, euren seme-alaba gaztetxoaren tutore denak 300 dukat-zentsua sortzen du Martin Ugalderen alde, eta horretarako Katalinak zera hipotekatu behar du: **Zuibarriako** etxe nagusia, beste etxe bat, errota eta olaren laugarren zatia, etxaguntza guztiak eta Olabarrietako patronazgoko fogera. Lekukoak Iñigo eta Esteban Hernani seme ikasleak, eta Juan Amezola dira.

- 141. fol. Juan Hernani Areilza eskribauak errentan ematen dio Txomin Sautuola Areilza iltzegileari **Areiltzako** etxedorrea, erremerteria eta ortua, sei urterako eta hiru dukat urteroko errentapean.

- 142. fol. Juan Olarra Saldarianek 40 dukat-zentsua sortzen du Martin Perez Leginetxeren alde, eta horretarako **Saldarian** [Olarra] bere baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen ditu. Lekukoak Pedro Torrezar eskolamaisua, Juan Arandia *Brokel* deitua eta Pedro Garai dira.

- 144. Fol. Juan Idirin Idiringoak mando irendua 37 dukatetan erosten dio Martin Barbatxano olamazukariari.

4.2. 1617ko protokoloen laburpena

Juan Gesala Urraza eskribaua. 87 folio zenbatuak eta osorik. Egoera ona.

- 1. fol. Juan Hernani Areilza aita eskribaua, eta Juan Hernani Areilza seme eta oinordeko, zordun nagusiak, eta Martin Ugalde bermari legez, hirurak Zeberio haraneko auzokide direnek, Bilbo hiribilduko Santxo Bilbao La Vieja merkatariari 200 burdin-kintal, erdia sotila eta beste erdia platinatua, Bilboko erreterian entregatuko dizkiotela adosten dute, 100 dukaten prezioan.

- 2. fol. Arantzazuko elizateko auzokide den Patxi Albizuk bederatzi behiburu, nagusi zein txikiak, erdi-irabazian ematen dizkio Txomin Urraza Uriondori. Alde bien artean izendaturiko perituek 59 dukatetan ebaluatuak izanik, Txominek Uriondo auzoko **Urraza** bere baserrian hiru urterako gorde ditzan.

- 3a. fol. 1617. urtea. San Pedro Hernani defuntuaren alarguna den Katalina Anunzibaik, 42 dukatetan baloratutako zortzi behiburu nagusi zein txiki, erdi-irabazian ematen dizkio Felipe Goti Etxasori, sei urterako, Etxasoko **Goti** baserrian gorde ditzan.

- 3a. fol. 1617. urtea. San Pedro Hernani defuntuaren alarguna den Katalina Anunzibaik, 42 dukatetan baloratutako zortzi behiburu nagusi zein txiki, erdi-irabazian ematen dizkio Felipe Goti Etxasori, sei urterako, Etxasoko **Goti** baserrian gorde ditzan.

- 3i-4a. fol. Pedro Larrabide Sautuola zordun nagusia eta Juan Goia Areilza bermari legez, biek elkarrekin 28 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Areilza Presalderen alde.

- 4i. fol. Juan Burgoa sastrea eta Maria Perez Goti ezkontideek mando bat erosten diote Pedro Etxebarria Moiarri 35 dukatetan.

- 5a-6i. fol. Juan Egia (Larrabide) gaztea, amaren heriotzagatik, Juan Egia nagusiaren, hau da, aitaren ondasunez jabetzen da: ohe, ahuntz, behi, arropa, kutxak, eta Unzesietako eta Albizurizaga gaztainadiak. Ea nola dagoen familia lerroa: Juan Solatxi Egia zaharra eta Marina Egia ezkontide defuntuak zeuden. Hauek Juan Solatxi Egia nagusia eta mazukariaren gurasoak ziren eta berau, Maria Saez Larrabide

defuntuaren alarguna eta Juan Solatxi Egia Larrabideren aita da. Dirudenez, Juan gaztea, aitite-amama eta ama defuntuen ondasunez jabetu zen, eta Bizkaiko Korreximenduaren Auzitegian aita-semearen arteko auzia zegoen. Baina herrian, bakearen aldeko pertsona nagusiek parte hartuz, Juan Egia nagusiak 100 erreale ordainduko dizkio semeari eta honek ondasunok itzuliko dizkio.

- 7. fol. Zeberioako Maria Otxoa Argiñano Ozerin alargunak bi idi erosi zizkion Bilboko auzokide den Bastian Etxebarri koinatuari 24 dukatetan, eta oraindik 14 dukat zor dizkiola aitortzen du.

- 8. fol. Alde batetik, Martin Ipiña Amezola, eta bestetik, Marina Zeberiogana ama eta Martin Areztui semea, neskatala baten heziketari buruzko gastuez Ugaoko Auzitegian zegoen auzia ekidin nahi dute. Eta horretarako, Martin Ipiñak 12 dukat ordainduko dizkie ama-semeei.

- 9a. fol. Pedro Gesala Idirinek zamari gorrixka erosten dio Txomin Urraudori 13 dukatetan.

- 9i. fol. Txomin Urraudori honek Juan Kareagari lau urteko zamari gorrixka erosten dio 24 dukatetan.

- 10a. fol. Pedro Goia Areilzak bost urteko mandoa erosten dio Juan Arana Etxasori 37 dukatetan.

- 10i. fol. Juan Martinez Sautuolak bere etxeke sotoko gela errentan ematen dio Katalina Amezolari sei urterako eta 20 erreale urteroko errentapean.

- 11. fol. Zolloko parrokiako Txomin Ameztui Azpiunzak 100 burdin-kintal entregatuko ditu **Arezandiagako olan** Martin Ugaldereentzat.

- 13. fol. Hurtuño eta Juan Arteaga Sautuola aita-semeak, Juan Baztarretxe Rotate eta Pedro Zapateriaren aurka 14 dukat-zentsua dute. Eta zentsu hau, 1605. urtean Hurtuño Areilza Olabarri eskribauaren lekukotasun sortu zen. Aita-semeek boterea ematen diote Juan Martinez Sautuolari haiengandik kobratu ahal izateko. Maria Tollara defuntua Hurtuñoaren emaztea eta Juanen ama zen.

- 15a. fol. Martin Idirin ete Ana Irigorri ezkontideak direla agertzen da.

- 15i. fol. Durangon auzokidetuak dauden Txomin Zeberiogana eta Magdalena Eizaga ezkontideek legitimen ordainagiria ematen diote Martin Zeberiogana anaia-koinatuari. Txomin eta Martin anaia dira eta **Zeberiogana** baserriko jabe ziren Hurtuño Zeberiogana eta Elbira Zeberiogana uztarkide defuntuaren semeak.

- 17a. fol. Anton Perez Rekalde eta Coscojales, Iraurgiko olaren jabe eta jaunak, Alonsotegiko Aldanazarra kortabasoan dagoen egur heldua nahi du, baina egur-karga (10. argazkia) hauek enkante eta kandela publikoan errematatu behar direla erantzuten zaio.



10. Argazkia: Oletarako egur-ikatz. Gorbeialde

- 19. fol. Olabarrietako Santo Tomas fabrikako maiordomo sekular diren Juan Solatxi Irigorri eta Juan Solatxi Ereño, biek Aldanazarra kortabasoan dagoen egurra enkante publikoan ateratzeko hiru deialdiak egitea eskatzen dute eta errematearen baldintzak ezartzen dituzte. Anton Perez Rekalde jaunak boterea ematen die Barakaldoko elizateko lau auzokideri, hauek enkante publikoan posturak egin ahal izateko. Bi aldeek ezarritako gizon on eta perituen arabera, 1.900 egur-karga ateratzen direla agertzen da. Ikatz-karga bakoitzeko egur- multzoaren prezioa 68 marabeditan estimatzen da.

- 24. fol. Katalina Anunzibai alargunak 60 dukatetan ebaluatuak dauden bederatz bi behiburu nagusi eta txiki erdi-irabazian ematen dizkio **Bezurten etxedorrean** errentadore bizi den Pedro Ortiz Etxebarriari, lau urterako.

- 25a. fol. Juan Goti Uriondok 34 dukat itzuliko dizkio Martin Ugaldere, honek aurretiaz prestatu egin zizkiolako.

- 25i. fol. Juan Iturrondok 20 dukat-zentsua sortzen du Pedro Egia Zeberioganaren alde, eta horretarako **Iturrondo** bere baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen ditu.

- 26. fol. 1617. urtea. Aurtengo Juan Solatxi Irigorri eta Juan Solatxi Ereño bi maiordomoek, 1616. urtean izan ziren Santxo Gesala eta Juan Argiñano bikoteari diru-kontuen gaia finitzeko eskatu egiten diete.

- 28. fol. Sautuolan bizi den Pantxike Ugarte Ibarra alargunaren testamentua. Ibarra auzoko **Hernando** baserriak elizan duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du, bertan ehortzia baitago bere ama Maria Hernandez Ibarra. Martin Goti urtzaile eta Ana Arandia ezkontideengandik lau erreale kobratzea agintzen du. Pantxike Anaren loba da eta ohea agintzen dio. **Sautuolako** bere etxea Zeberioganako Andramari ermitari ematen dio eta testamentari Martin Ugaldere izendatzen du.

- 29a. fol. Martin Iturriaga eta Maria Iturriaga uztarkideak **Iturriaga** etxearen jabe dira.

- 30. fol. Santxo Gesalak bere fogera errentan ematen dio Pedro Etxebarria Moiarri, zortzi dukatetan.

- 30i. fol. Martin Altua Arana zordun nagusia eta Martin Bengoa Sautuola bermari legez, biek elkarrekin,

zazpi eta bost urteko bi mando eta tresneria erosten dizkiote Txomin Arestuiri 160 dukatetan.

- 32. fol. Hamalau auzokide infantzoik boterea ematen diote Juan Hernani Areilzari.

- 33. fol. Bizkaiko Korreximenduaren Auzitegian eta Txomin Zuazaga eskribauaren lekukotasun pean, Juan Urkiza Larrabidek auzi kriminala aurkezten du Juan Aloa Barañano gaztearen aurka, honek lantza erdi batez, buruan zauritu eta ahozko irainak jaurti egin zizkiolako.

- 34. fol. Juan Castillo Texeriaren eta Pantxike Arana Aloaren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Martin Castillo defuntuaren alarguna den Marina Urraza amak Juan semeari dotetzat **Telleria** baserria eta etxaguntza guztiak ematen dizkio. Eta beste aldetik, Katalina Aloa alargunak Pantxike alabari dotetzat 200 dukat dirutan eta arreoa ematen dizkio. Martin Arana Pantxikeren neba da.

- 37a. fol. Juan Olarra Bezurtenek Zeberio haraneko Kerezaguenaga herri-basoan 70 erreale balio duen ikatz-besolana egingo dio Pedro Gotiri, eta **Arbilduko olan entregatu**.

- 37i. fol. Pedro Solatxi defuntuaren alarguna den Maria Saez Urigibel Solatxiren testamentua. Solatxi baserriak (Moiinak) Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du. Pedro senarrak eginiko uzkontza berresten du, non Pedro Solatxi Urigibel semea oinordeko izendatu baitzuen. Honek Iñigo, Patxi eta Maria Ibanes neba-arrebei legitimak ordainduko dizkie. Bestetik, Iñigo Undurragarenak diren **Undurraga** eta **Zubialde** baserri bien aurka duen 150 dukat-zentsua Pedro semeari agintzen dio. Juan Gesala iltzegileak eta Pedro Arana Arkulandak mandoen salmentatik dirua zor diote, eta Txomin Oleak 60 dukat zezina egiteko idi bat saldu ziolako. Solatxiko baserrian idi pare, mandoa, ardiak eta abar ditu.

- 39i. fol. Pedro Arana Arkulandak 68 ikatz-karga erosten dizkio Martin Aretzui Artiano albatarrari Urrestoi lekuan eta 164 errealetan, bi erreale eta 14 marabedi karga bakoitzeko.

- 40a-41i. fol. 1617ko maiatzaren 20an, Pedro Argiñano Areilza eta Pedro Arana Arkulanda eta Marina Argiñano senar-emazteak, haren suhi eta alaba direnak, hirurek elkarrekin 40 dukat-zentsua sortzen dute Martin Bengoa Sautuolaren alde, eta horretarako **Areiltza** eta **Arkulanda** [Patroiena] baserriak, etxaguntza guztiak eta Olabarrietako patronazgoko fogera hipotekatzen dituzte.

- 42a. fol. Juan Garzia seme defuntuaren aita eta oinordeko da Juan Garzia Sautuola. Honek harena zen lau urteko zamari beltza saltzen dio Uriondon bizi den Pedro Garzia beste semeari 11 dukatetan.

- 43. fol. Alde batetik, Martin Perez Leginetxe eta bestetik, Juan Hernani Areilza eskribaua eta Juan semea, **Arbilduko olan** partzuari direnak, eta azken bi hauek beste partzuarrien izenean, auzia dute olan gertaturiko matxura batzuk direla eta gertatutako kalteez.

- 44. fol. Juan Hernani Areilza eskribaua eta Pantxike Elejabeitia ezkontideek boterea ematen diote Dimako eta Elexabeitiako elizen patroia den Hurruño Urizarri. Arazoa da, Elizabeitia sortetxeak 180 dukat zor dizkiela senar-emazteei, izan ere ezkontzarako Pantxikeren guraso ziren Martin Iñiguez Elezabeitiak eta Antonia Undurragak agindu baitzien Pedro Leginetxe eskribauaren aurrean.

- 45i. fol. Juan Ibarrondo ola-tiratzailak 11 dukat ebaluatutako 18 ardi-buru erdi-irabazian uzten dizkio Santorin Ibarrondori bost urterako.

- 46. fol. **Areiltza auzoko olaz** diru-kontuak zehazten dira. Partzuari-jabe bakoitzak matxura zibil eta tronkaletan egindako gastuak argitzen ditu.

- 47. fol. Arrankudiagako auzokidea den Pedro Ipiñak, **Ametzola** baserritik zegozkion legitimen 30 dukatetik falta ziren zortzi dukateko ordainagiria ematen dio Martin Ipiña Ametzola jabe den anaiari.

- 48a-50i. fol. Martin Arana Ugaoko eskribaua eta Marina Ortiz Areilza Olabarri ezkontideek 100 dukat-zentsua sortzen dute Martin Ugaldere alde. Beraz, Areiltza auzoko **Beaskoetxea** sortetxea, etxaguntza guztiak, **Sautuolako** olaren laurdena eta errotaren erdia hipotekatzen dituzte. Zenbait baldintza ezartzen dira, 5 dukat urteko errentapean.

- 51. fol. Martin Bengoa Sautuolak ordainagiria ematen dio Pedro Argiñano Areilzari.

- 52. fol. Alde batetik, Juan Meaka eta bestetik, Patxi Mendieta eta Juan Barrenetxea Gallano, denak pintoreak, Bilbao hiribilduko eta Elizabeitiako auzokideek zera diote: Olabarrietako Santo Tomas elizaren erretaularen margozketa eta urrezketa enkante publikoan atera zela eta errematea Juan Meakak irabazi zuela, eta orain, hiruren artean lana eta fidantza banatzea adosten dute.

- 53. fol. 1617. urtea. Olabarrietako Santa Kurtze etxedorreko (11. argazkian) jabe eta ezkontide dira Martin Perez Leginetxe eta Menzia Santa Kruz. Eta Menzia, Iñigo (Santander) Santa Kruz defuntuaren ondasunen administrari eta arreba denak boterea ematen dio Martin senarrari, Villaverde haraneko Laiseka lekuan Iñigorenak ziren ondasunen salmentarako.



11. Argazkia: Zeberioko Santa Krutz etxedorrea eta ermita. I. Ojanguren bilduma. 1940

- 54. fol. **Solatxi** [Moiena] baserriaren jabe ziren Pedro Solatxi eta Maria Saez Urigibel ezkontide defuntuen semeak dira Pedro, Iñigo eta Patxi Solatxi Urigibel. Legitimak direla eta, Pedro jabeak 55 bana dukat ematen dizkie Iñigo eta Patxi anaiei, eta hauek ordainagiria etxeko anaia jabeari.

- 55. fol. Hurtuño Zeberiogana eta Elbira Zeberiogana ezkontide defuntuen semeak dira Martin eta Patxi. Patxi bost dukaten ordainagiria ematen dio Martin anaia, egun **Zeberiogana** baserriaren jabe denari.

- 56. fol. Maria Iñigez Larrabideren testamentua. Juan [Uriarte] Larrabide defuntuaren alarguna da, eta **Larrabide** [Goikoa] baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea agintzen du. Baserrirako oinordeko Juan semea izendatzen du Maria Saez Barbatxanogaz ezkontuta dagoena. Juanek Pedro anaia 30 dukat ordainduko dizkio legitimetatik. Katalina alaba Bertzutengo Martin Aldekoarekin ezkontuta dago. Testamentari Martin Ipiña abadea bigarren lehengusua izendatzen du.

- 58. fol. Martin Ugaldek 600 dukateko ordainagiria ematen dio Juan Moja eskribauari, Arrigorriagako Agirre etxeak zor duen 1.400 dukat zor osoaren zatia delarik.

- 59a-60i fol. Pantxike Ugarte alargunak **Sautuola etxea** [Burgoa] saltzen du. Ikus 8. orria.

- 61. fol. Patxi Mendieta Juan Brustin pintorearen aitagarreba zen eta Santo Tomas elizako erretaularen obrak 1.450 dukat balio duela agertzen da. Eta amaiturik egonik, urreztaketa-arte inguruko maisuek tasatu eta ebaluatu egin behar dutela agintzen da.

- 64a. Bilboko auzokide den Juan Brustin arkitektoak bere boterea ematen die Patxi Mendieta aitagarrebari eta Juan Meakari, Santo Tomas erretaularen gaia argitzeko.

- 66. fol. Martin Perez Leginetxeren eta Pedro Areilza Artianoren arteko diru-kontuen amaiera.

- 61i. fol. Pedro Areilza Artiano Uriondoko Ana Olarra Goikoetxeagaz ezkontuta zegoen. Eta boterea ematen dio Martin Perez Leginetxeri, honek Txomin Olarra Uriondo koinatuaren eta Maria Ibanes Goikoetxea amagarrebaren eskutik Anaren dotearen zati bat kobratu ahal izateko.

- 69. fol. Pedro Gorostizagak bere basoetatik 400 ikatz-karga botoz kanpo entregatuko dizkio Pedro Ugarteri.

- 70. fol. Juan Iturrondo harginak Juan Gorosituri zortzi dukat zor dizkio.

- 70i. fol. Iñigo Barañano Agirre Amezak boterea ematen dio Martin Bengoa Sautuolari, honek Maria Martinez Larrabideren eskutik 47 dukat kobratu ahal izateko. Maria Martinez San Juan Bengoa defuntuaren alarguna da, eta bigarren ezteietan Juan Ibarrondo tiratzailearekin ezkontuta dago. Zorra osorik 270 dukatekoa zen.

- 71. fol. Zeberioako auzokide den Martin Unzuetak sei kare-hanega erosten dizkio Bilboko Patxi Lartuondo merkatariari, 78 erreal (34 marabeditakoak) eta 13 erreal karga bakoitza delarik.

- 72. fol. Iñigo Urigibel defuntuaren alarguna den Pantxike Undurraga amak eta Maria Paz Urigibel Undurraga alabak Korrexidorearen Auzitegian kereila bat dute Zeanuriko Pedro Egileor ferratzailearen aurka. Arazoa zen Pedrok Maria Pazen birgintasun galera eragin zuela, eta alde biak euren arteko hitzarmen batera heltzen dira.


- 73i-751. fol. Umeei irakasteko Pedro Torrezar eskola-maisuaren testamentua. Bera jaio zen **Torrezar** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea agintzen du. Bere etxean apopilo haur batzuk eduki izan ditu eta zor batzuk kobratzeko dauka. Esaterako, Lontzo Durango eta Teresa Arezandiaga alargunaren Lontzo Durango semea hiru urte eta bi hilabetez, lehen urtea 28 dukatetan adostuta zeuden, eta beste biak 30 dukatetan urte bakoitzeko. Hori dela eta hartuak dauka zortzi dukat dirutan eta zazpi dukat balio duen zamari bat. Iñigo Gutioloren semea bederatzi hilabetez. San Juan Albizu, Iñigo Albizu eskribauaren semea hiru hilabete eta sei egunetan. Felipe, Hernandoren semea.

Martin Ugalde maisu defuntuak sortu zituen Oroimen eta Erruki Obrek ezarri zuten eskola-maisuari ordaintzeko soldata, eta horregatik bi dukat eta 40 erreal kobratuak dituela Martin Ugalde egungo patroien eskutik. Halaber, Obra horiek umezurtzen laguntzarako ezarritako dirutik, eta Maria Paz Santa Kruz bere emaztea ezkontu zeneko hamar dukat kobratzeko dauka.

Bost seme-alaba daukate: Pedro, Marina, Maria Saez, Maria Ibanes Torrezar Santa Kruz eta hilondoko bat. Azkenik, eskatzen du bera hiltzen denean, Bilbon bizi den Martin anaia Zeberiora etorri, eta bere etxean umei eskola ematea utzi diezaioten. Testamentari Martin Perez Leginetxe, Martin Ugalde eta emaztea izendatzen ditu.

- 76. fol. 1617. urtea. Juan Solatxi Ereñok 20 dukat-zentsua sortzen du Pedro Sautua eta Marina Urizar ezkontide defuntuen seme-alaba gaztetxoekin kuradore diren Pedro Uriarteren eta Juan Urizarren alde, eta horretarako, Juanek **Solatxi** [Ereño] baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoan duen fogera hipotekatzen ditu. Lekukoak Juan Solatxi Iragorri, Txomin Zabala eta Juan Barbatxano dira.

- 78i. fol. Pedro Goti Uriondok gurdi (12. taulan) bat erosten dio Abandoko auzokide den Iñigo Solatxiri 16 dukatetan, eta 1618ko Pasko egunerako ordainduko dizkio.



12. Taula: Gurdi, idi... eta mandoen salerosketa

- 79. fol. Juan Bezurten eta Maria Iñigez Artiano ezkontideek bi diru-zentsu sortuak zituzten, bata 1596. urtean, eta bestea 1609an Bilbon auzokidetuta dagoen Santxo Zeberitxaren alde, eta orain honek bi zentsuok Martin Ugalderei eman eta transpasatu egiten dizkio.

- 81. fol. Juan Idirin eta Domenja Larrea ezkontideek, Txomin Perez Arandia indianoak sortutako Oroimen eta Erruki Obraren administratzaile den Santxo Zeberitxari 1.350 errealean ordainagiria ematen diote. Eta arrazoia da, Oroimenaren patroia den Martin Abendaño Arandia Jaunak Domenja izendatu zuela sortzailearen senide legez.

- 82a-85i. fol. Juan Hernani Areilza gaztea eta Menzia Leginetxe Santa Kruz ezkontide eta zordun nagusiak, eta Martin Perez Leginetxe bermari legez, hirurek elkarrekin 100 dukat-zentsua sortzen dute Martin Ugalderearen alde, eta horretarako haiek zera hipotekatu behar dute: **Areiltza etxea** [Hernani], etxaguntza guztiak, Areiltza lekuan dituzten beste etxe batzuk, **Areiltzako Olabarriko** olaren laurdena eta errotaren erdia.

4.3. 1623ko protokoloen laburpena

Juan Gesala Urraza eskribauak idatzita, 90 folio zenbatuak dauzka. Lehen zortzi folioak falta dira. Eta hurrengo beste 21 folioen ezker-azpi aldeko zati bat janda dago, eta horrez gain, orri batzuetan hezetasunaren eragin nabarmena, batetik, tinta folioaren beste aldera transpasatuta dago, eta bestetik, grafemak gastatuta daude eguzkiak janda, eta ondorioz, folio batzuk irakurtezinak dira, eta ez da ia ulertzen idatzita dagoena.

- 9a-10i. fol. 1623ko urtarrilaren 13an. Zubialde auzoko eremu infantzoian kokatuta dagoen **Jauregi** baserriaren salmentarako foru-deialdiak burutu asmoz, Juan Otxoa Larrabazter eta Maria San Juan Jauregi senar-emazte eta jabeek eskabidea egiten diote Bizkaiko Korrexidore Jaunari. Jauregi baserria Martin Ugalde defuntuaren alde zorrez josita dagoenez, eta errenta gutxi ematen duenez, jabeek saltzea erabakitzen dute, baina horretarako Bizkaiko Foruaren arabera, sendi-tronkalekoak baserrirako izan dezakeen eskubidea dela eta, Santo Tomas parrokian hiru igande jarraian, hiru deialdi formalak burutu behar izaten dira.

- 11a-13i. fol. Otsailaren batean. 1622. urtean, Fiel patroia izan zen Patxi Isasi Saldarianek aurkezten du

diru-kontuen zehazketa, alde batetik, hartutako dirua (cargos) eta bestetik gastatutakoa (descargos). Esaterako, karguen artean, ganaduen etxapastoa zela eta zortzi erreale hartuak zituela, eta gastuen artean berriz, “más se le hizo cargo de 8 reales que cobró de ciertos echapastos de ganados que se debieron de los pastos del dicho Valle”.

- 14a-17a fol. Urtarrilaren 7an. Olabarrietako Santo Tomas elizako maiordomo zibil Juan Arana Uriondokoa eta Juan Goia Areiltzako dira, eta ikatza egin ahal izateko herribasoetan haziak dauden 3.500 egur-karga saltzeko enkante publikoan ateratzea eskatzen dute. Ohiko hiru deialdien ondoren, errematea bi eremu geografiko kontuan hartuz burutzen da: Helbarren eta Hergoien.

Helbarrenen, lehenik, Arbizagutxia lekuan, 100 karga; gero, Erzilalandan, beste 100 karga; Arriandiagaren ondoan, 160; Elorriagaondoan 200; Quereixa-goenagan [Kerizona], 320 karga; honen gainean dagoen Zurrunzuagan [Zurruntza] eta Zurrunzuagaondoan 250 karga; Iturria ateratzen den bazterrean, 50; eta Arrateondoan, 200 karga.

Eta Hergoienen berriz, ondoko basook agertzen dira: Ereñostui lekuan 100 karga; Urardui basoan 230 karga; Urteagagoitian 130; (...) zuriagaondo lekuan 80 karga; Garaigorta bazterrean eta Arri[...] 400 karga; Aibelagabe kortabasoaren ondoan, 180 karga, Igarostan, 220 karga, eta azkenik, Olaguenaga eta Arrateko alde bakoitzean, 200 karga.

- 18a-19i fol. Otsailaren 12an. Aurreko enkante publiko burutu ondoren, errematatzaile Juan Areilza Hernani gaztea eta Txomin Ipiña sastrearen ateratzen dira, eta eskuidazki banatan, bakoitzak bere bermeriak aurkezten ditu, hurrenez hurren, Juan Areilza gazteak, Juan aita eta Juan Kareaga, eta Txominek ostera, Martin Ipiña Ereñoza.

- 20a fol. 1623ko otsailaren 19an. **Sautu** baserriko jabeak izan ziren Pedro Sautua eta Maria Urizar ezkontide defuntuen adin txikiko seme-alaben tutore eta kuradore den Juan Urizar osabak 20 dukateko ordainagiria ematen dio Juan Arestui zeberioztarrari, honek Pedro eta Mariari defuntuei zor zielako.

- 21 fol. Martxoaren 17an. Pedro Ginea batxilerra, Santo Tomas elizako abade eta benefiziari denak boterea ematen dio Bilbon bordatzaile den Agustin Amezolari, honek Arrigorriagako Santxo Zeberitxarengandik hari zor dizkion 204 erreale kobratu ahal izateko eta bai Pedro Agirre eskribauarengandik ere 110 erreale.

- 22. fol. Martxoaren 24an. Pedro Gesala Idirin zeberioztarra eta Arratiko Merindadean dagoen Castillo olarako mea hornitzaile den Hernando Mena abadearen arteko hitzarmena. Pedrok Billarita meategitik 50 burdin-mea kintal garraiatuko eta entregatu ditu aipatu olan, erdia lodia eta beste erdia txirta motakoa, 25 kintal San Juanerako eta beste erdia San Antolin egunerako. Kintal bakoitza 2 eta erdi errealetan ordaindu zen.

- 23. fol. Martxoaren 24an. Martin Arana eskribau eta **Areiltza Beaskoetxea** baserriaren eta **Sautuolako olaren** 16. zatiaren jabe denak zati hau errentan ematen dio Pedro Uriarte zeberioztarrari, lau urterako eta hiru erreal landuko duen burdin-kintal bakoitzeko baldintzapean.

- 24. fol. Martxoaren 19an. Gatazka eta berba batzuk zirela eta, Pedro eta Juan Goti anaiak, Santxo Gesala eta Martin Arana Uriondo, laurek elkarrekin boterea ematen diete Korreximenduko Prokuradore batzuei, Juan Hernani Areilza nagusiaren aurka, honek haien kontra jarritako auzi kriminaletik babestu ahal izateko.

- 25a-26i. fol. Apirilaren 18an. Juan Arana Etxasok 30 dukat-zentsua sortzen du Uriondoko Martin Aranagoikoaren alde, erreditotan 6,5 erreal urtero pagatzekotan, eta horretarako, Juan Aranak bereak diren Etxaso auzoko **Arana** baserria, etxaguntza guztiak eta, Santo Tomas patronazgoan duen fogera baten eskubidea hipotekatzen ditu.

- 27. fol. Apirilaren 18an. Pedro Aloa Barañanok zera dio: urte honetan Errioxatik ekarritako ardo beltzez hornituko duela Zubibarriko taberna-etxea Patroien jurisdikzio pean zegoena eta Pedrok zuena.

- 28. fol. Juan Torrekoak zera adieratzen du: irailako San Migel egunerako zortzi dukat ordainduko dizkiola Juan Barañaño Isasiri, honek mesede egite arren hari utzi egin dizkiolako.

- 29a-31i fol. Apirilaren 13an. Santo Tomas fabrikaren behitaldea errentan hartu zuen Zeanuriko Otxoa Ozerin behitzainak, Juan Solatxi eta Pedro Solatxi bi maiordomoak abisuan jartzen ditu, izan ere, ganaduen gaixo bat zela medio, behi gehienak hiltzeko arriskuan zeudela eta errentamenduko baldintzen artean, holako kasuetan, lehen baitlehen jakinaraztea beharrezkoa zela. Maiordomen erantzuna da behi gaisoen ardura behitaldea errentan hartutakoarena dela.

- 32a-33i fol. 1623ko apirilaren 28n. Juan Ibarretxe Olabari eta Pantxike Areilza Olabari ezkontideek Berazeaga, Berdegorta eta Aibelagabe kortabasoetan zegoen 2.300 ikatz-karga egiteko egurra saltzen diote Ana Ugarte andereari, berau Martin Ugalde defuntuaren alarguna baita. Aipatu kortabasoak **Olabarri** sortetxearenak dira, eta Berezeagako kargaren salneurria errearen hiru laurdenekoa da, eta beste bietakoen karga osterara, 18 marabeditakoa.

- 34a-35a fol. Ekainaren 2an. Solatxi auzoko **Moia** baserrian bizi den Pedro Etxebarria Arana Moia testamentua. Solatxi Moia baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatzea agintzen du, etxe horretara Maria Etxebarria Gorositu alaba Pedro Solatxi Moiarekin ezkondua baitago. Emaztea Maria Gorositu da eta ama Maria Perez Arana. Hainbat jendek dirua zor dio eta oinordeko alaba uzten du.

- 36a-37i fol. Ekainaren 23an. Martin Uria Etxaso eta Maria Ormaza ezkontideek 40 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Gesalaren alde, eta horretarako Etxaso auzoko **Uria** baserria, etxeguntza guztiak eta

Olabarrietako Santo Tomas Patronazgoan duten fogera hipotekatzen dituzte.

- 38a-39i fol. Uztailaren 5ean. Juan Barrenetxe Ereñoza, zordun nagusia, eta Pedro Elorriaga bermari legez, biek elkarrekin 20 dukat-zentsua sortzen dute Olabarrietako Santo Tomas eliz kabildoaren alde, eta horretarako bakoitzak bereak dituen, hurrenez hurren, **Ereñotza Barrenetxe** eta **Elorriaga** baserriak, etxaguntza guztiak eta Santo Tomas Patronazgoko fogera hipotekatu behar ditu.

- 40a-41a fol. Uztailaren 6an. Pedro Solatxiren eta Juan Arandia Areiltzaren arteko hitzarmena. Hark botoz kanpo 250 ikatz-karga salduko dizkio, erreal eta laurden karga bakoitzeko.

- 41a-41i fol. Abuztuaren 6an. Ana Ugarte (Ugalde) alargunak Txomin Senper merkataritari ola-hauspoak egiteko lau narru erosten dizkio 64 dukatetan.

- 42a-47i fol. Abuztuaren 10ean. Areiltza auzoko baserri bati buruzko hitzarmen-eskuidazkia. Alde batetik, Juan Goia Areilza eta Marina Artiano senar-mazteak, eta bestetik, Bilbon bizi diren Nikolas Sautuola eta Marina Arteaga ezkontideak. Arazoa honetan datza: **Areiltza** [Txiteena] baserriaren jabe Patxi Garai defuntua izan zen; eta oinordeko Marina Artiano izendatua zuen, baina hark zor batzuk zituenez gero, eta Marina Artianok dotearen zatiren bat zor zion Marina Arteagari, berau Patxiren eta Katalina Arteaga uztarkideen loba zen eta. Auzia ezarrita zegoen Bizkaiko Korreximenduaren auzitegian, baina auziak luze eta garestiak, eta azken ebazpen argirik ez dagoenez, bi alderdiak adosketara heltzen dira: Nikolas eta Marina Arteaga senar-emazteek 600 erreal ematea Juan eta Marina Artiano uztarkidei.

- 48a-49i fol. 1623ko uztailaren 21ean. Pantxike [Altu] Aranaren testamentua. Juan Castillo Telleriaren emaztea da, eta **Areiltza Arana** baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du, bai eta mezak ospatzea hainbat ermitatan. Ama Katalina Aloa da. Eta **Telleri** baserrira ezkondu zenean, dotetzat 180 dukat ekarri zituela adierazten du. Oinordeko Juan Castillo Telleria Arana semea izendatzen du.

- 50. fol. Abuztuaren 27an. Behiburuen admeteria. Juan Egia Sautuola arotzak lau behi erdi-irabazian eta erdi-galeran ematen dizkio Martin Urraza Solatxiri, honek **Solatxi Urraza** baserrian zazpi urtez edukitzeko. 30 dukatetan baloratuak izan dira.

- 51. fol. Abuztuaren 31an. Juan Etxebarriak urtebete barru, 10 dukat ordainduko dizkio Santxo Gesalari, beroni, Pedro Larrabidek, etxearen errenta dela-eta, zor dizkionak baitira.

- 52. fol. Abuztuaren 20an. Migel eta Juan Goti, aita-sermeak, batetik, eta Juan eta Juan Hernani Areilza aita-semeak ere bestetik, **Arbildu olaren** burni-lanketaz auzia dute Valladoliden.

- 53a. fol. Irailaren 8an. Zeberio haraneko jurisdikzio pean dagoen Udiarragan eskuidazki hau burutzen da. Arakaldoko Hernando Jauregik 10 dukat ordainduko dizkio Santxo Gesalari.

- 54a-56i fol. Irailaren 11n. Pedro Amezola Jauregi gaztea eta Katalina Rekalde senar-emazteek 30 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Elorriagaren alde, eta horretarako eurenak diren **Jauregi** baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte.

- 57a-70a fol. Urriaren 2an. Zuibarria auzoko Zuibarria dorrean Joan Zubiaur Anunzibairen eta Maria Iñigez Ugalde Ugarteren arteko ezkontza-kontratua burutzen da Juan Gesala zeberioztar eta Martin Zabala okendoar eskribau bien aurrean. Alde batetik, Iñigo Zubiaur Olaeta Laudioko Zubiaur dorretxearen jabe eta Magdalena Anunzibai defuntuaren alargun; eta bestetik, Martin Ugarte defuntuaren alarguna den Ana Ugalde, Maria Iñigez alabaren ama, tutore eta administratzaile dena. Hurrenez hurren, Joan eta Maria Iñigezzen aitak eta amak, seme-alabaren ezkontza kapitulazio hauen baldintzak adosten dituzte. Eta Iñigok semeari dotetzat zera ematen dio: batetik, Zubiaur dorretxea eta etxaguntza guztiak, olatxua, eta errota, eta bestetik, Ana Olaeta anderea amamak Iñigo semeari emaniko 7.000 dukat zentsotan. Eta Ana Ugarte alargunak alabari, besteak beste, 2.000 dukat dirutan eta gainerako arreo.

- 71a fol. Iñigo Zeberioگانak bere baserrian elikatze bederatzi ardi amuñerian erdi-irabazi eta galeran hartzen ditu Maria Barbatxanoren eskutik.

- 71i-72a fol. Urriaren 8an. Martin Egia eta Iñigo Oketa suhiak, zordun nagusiak, eta Juan Egia arotza eta Juan Urteaga urtzaile eta bermari lez, laurak elkarrekin zera esaten dute: haiek Juan Amezari 50 dukat emango dizkiotela mando hezia eta ferratua erosi diotelako.

- 73a fol. Urriaren 18an. Pedro Arteaga sastreak 11 dukat ordainduko dizkio Martin Gorostiza ola-urtzaileari.

- 73i-74a fol. Urriaren 18an. Santo Tomas elizako Martin Orbezua abadeak boterea ematen dio Juan Ortiz Zarragari, honek Juan Orbezu haren loba aparejatu dezan Gasteizko Gregorio Los Arcos zirujauarekin behar diren besteko urte eta baldintzetan.

- 74a fol. Aurreko urtean Andres Goti Uribarri maiordomo izan zenak 30 dukat ordainagiria ematen dio Ana Ugarte alargunari, Martin Ugalde maisuak sortutako Erruki Oroimenen patroia izanik, aipatu Erruki Obrak Zeberioگانeko Andra Mari ermitari zor zizkion eta.

- 75a-75i fol. Urriaren 29an. Iñigok Urkiagak ikatzetan 21 dukat ordainduko dizkio Martin Barañano Isasiri, aurretiaz honek utzi zizkiolako.

- 75i-76a fol. Urriaren 29an. Pedro Aloa Barañanok 400 erreale ordainduko dizkio Pedro Gotiri, honek 8 urteko mando bat saldu diolako.

- 77a-80a fol. Azaroaren 12an. Katalina Barañano dontzeilaren testamentua. **Barañano** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du, eta horrez gain, mezak ospatzea hainbat ermitatan. Martin Aranagoikoa Uriondok 60 dukat-zentsua zor dio. Senideei hainbat diru eta arropa agintzen dizkie: Txomin Orberen den emazte Marina Barañano ahizpari; Martin Barañano nebaren alabak

diren Katalina eta Marina lobei; Maria Ibanes Solatxi koinatari, Maria Ibanes Barañano izekoari, berau Martin Albisuren emaztea. Albazea Martin neba izendatzen du.

- 81a fol. Azaroaren 24an. Orozko haraneko Olarte elizateko Juan Adaro auzokideak diru-segurantzak aurkezten ditu Zeberioگان lurretan bere 48 ahuntz harrapatu izan direlako, eta horregatik isuna jartzen zaio.

- 81i-82a fol. Azaroaren 27an. Orozko haraneko auzokideak diren Juan Alde[ko]ja Arrugaetak eta Juan Garaik zera esaten dute: Juan Urizar Fiel patroia aginduz eurenak diren abelburu batzuk Zeberioگان bertan harrapatuta eta atxilotuta daudela. Haien izenean Patxi Urteaga eta Txomin Orbe zeberioztarrak bermari agertzen dira.

- 82a fol. Abenduaren 2an. Orozko haraneko Murueta elizateko Martin Odiaga prest dago dirua ordaintzeko, Juan Urizar Fielaren aginduz, haren bi zekor harrapatu dituztelako Zeberioگان belardietan.

- 83a-84i fol. 1633ko abenduaren 3an. Auzokide partikular batzuk baimenik gabe, herri-basoetan ebakitako egur-kargen enkante publikoa egiten da, Martin Perez Leginetxe eta Juan Urizar, bi Fiel Infanzoi eta Patroien ardurapean. Agertzen diren leku-izenak hauek dira: Arbizagutxia, Meako, Egiarreka, Pagatzazabal eta Ereñostui. Pedro Gotik enkantea irabazten du, kargako 24 marabedi eskainiaz.

- 85a-86i fol. Abenduaren 18an. Pedro Areilza Artiano zordun nagusia eta Martin Altua Arana Areilza bermari lez, biek elkarrekin, 40 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Goti abadearen alde eta horretarako bakoitzak bereak dituen, hurrenez hurren, **Artiano** baserria eta **Arana Areilza** baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen ditu.

- 87a-88i fol. Abenduaren 4an. Juan Beti Olazarren testamentua. Bere etxeak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea agintzen du. Herriko ermitetan hainbat meza ospatzea agintzen du. Olabarrin bizi den Marina Larrea joskileak sei erreal zor dizkio. Arropa agintzen du herriko ospitalerako. Seme-alaba hauek uzten ditu: Katalina, Maria Ibanes, Marina eta Martin (?) Beti Torre, zeina baserrirako oinordeko izendatzen baitu. Katalina alaba, Pedro Otxoa Barbatxanorekin ezkondu dago, eta Marina oster, Juan Urteaga Egiarekin.

4.4. 1632ko protokoloen laburpena

Juan Gesala Urraza eskria. 101 folio, zenbatur gabe. Zenbait data kronologikoki nahasian daude. Egoera eskaxa.

- 1632ko urtarrilaren 1a. **Urkitz**a baserrian Pedro Urraza Urkizaren eta Maria Ibarrondo Rotarteren arteko ezkontza-kontratua burutzen da. Alde batetik, Maria Ortiz Urkiza ama alarguna eta Martin Urraza semea, Pedro seme eta anaiari dotetzat zera ematen diote: 150 dukat dirutan, hiru urteko zekorria eta Aretxurriaga lekuko 150 ikatz-kargen balioa. Eta beste aldetik,

Martin Ibarrondo eta Maria Rotate ezkontide defuntuen alaba den Mariak, ezkontzara hau eramaten du: **Rotate** baserria, etxaguntza guztiak, hilobia eta patronazgoko fogera. Lekukoak Txomin Ugalde, Martin Barañano Isasi, Martin Urkiza eta Txomin Ibarrondo dira.

- Urtarrilaren 2an. Ereму patroiairen diru-kontuen zuriketa. Ikus 10. orria.

- Urtarrilaren 6an, Olabarrietako Santo Tomas elizako abade den Martin Orbezuk, 49 dukatetan baloratutako sei behiburu (lau behi ernari eta bi txahal), erdi-irabazian ematen dizkio Pedro Gorostizari, sei urterako, honek **Gorostiza** baserrian gorde eta hezi ditzan. Balorazioa alde biek izendatutako gizonen burutakoa izan da.

- Juan Arana eta Kasilda Beraza ezkontideen alaba eta Maria Ortiz eta Marina Arana isekoen oinordeko den Maria Gomez Arana Beraza dontzeilak boterea ematen dio Eliz-kabiloari, honek Martin Ipiña Ereñozari eta Pedro Gotiri diru-zentsuetako konturen bat kobratu ahal izateko.

- Marina Orbezuak 40 dukateko ordainagiria ematen dio Martin Ipiña Amezola eta Marina Larrabide uztarkide defuntuen seme den Martin Ipiña Larrabideri.

- Urtarrilaren 25ean. Txomin Ugaldek 37 dukatetan ebaluatutako dauden sei behiburu handi eta txiki, erdi-irabazian ematen dizkio Juan Arteagari, **Arteaga** baserrian gorde eta hezi ditzan lau urtean.

- Urtarrilaren 25ean. Marina Zeberiogana egoiliarak 24 dukatetan baloratuak izan diren hiru txahal erdi-irabazian ematen dizkio Juan Ipiña Ugarteri, bost urterako.

- 1630. urtean maiordomo izan zen Pedro Goti Etxasok ordainagiria ematen dio Martin Ozerin Argiñanori, berau Zeberioanako Andramari eta erantsiriko ermiten maiordomoa izan zelako.

- Martxoaren 7an. Iñigo Undurragak ezkontza-dotearen ordainagiria ematen dio Juan Urigibel hauspogileari. Eta arrazoa da Juan Urigibelen eta Iñigoren arreba den Antonia Undurragaren seme-alabak ezkondu egin zirelako, eta Zeberio haraneko **Zubialde** [Tollarena] baserria eman zitelako.

- Martxoaren 13an. Pedro Ibarrondoren eta Maria Iñigez Ibarra Barbatxanoren arteko ezkontza kontratua. Alde batetik, Pedro Ibarra eta Marina Barbatxano ezkontideek Maria Iñigez alabari dotetzat zera ematen diote: **Ibarra** [Aldekoa] baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera, baina gozamenaren erdia eurentzat gordez. Ezkongaiak Marina ahizpa du. Eta beste aldetik, Pedro Ibarrondo ola-urtzailak aurrekoaren baliokidetasunerako 70 dukat dirutan eramaten ditu eta bermari Martin Barañano Isasi izendatzen du.

- Martxoaren 19an. Iñigo Barañano Isasik Olabarrietako Santo Tomas patronazgoko fogerari dagozkion hamarrenak errentamenduan ematen dizkio Pedro Gesalari, lau urterako eta zortzi dukateko errentapean (bi dukat urte bakoitzeko).

- Aurreko eskuidazkiaren ondoren dator 1632ko urtarrilaren 2ko hau. Auzokide patroia batzuen aurrean, 1631. urtean, Patxi Beti Olazar Fiel izan zenak iazko diru-kontuak aurkezten ditu. Denetara zortzi folio idatzirik agertzen dira, eta hemen gastu batzuen aipamena besterik ez dugu egingo. Karguen artean, esaterako, Juan Bengoetxeak diru-banaketa baten batutako 30 dukat aipatzen dira, hiru erreal patroia partzialitateko auzokideko (edo 330 erreal). Eta beste banaketa baten Juan Idirinek batutako 40 dukat, lau erreal auzokideko (440 erreal). Bestetik, deskargu edo gastuen artean zera agertzen da: otsoak harrapatu zituenei erreal batzuk aldi desberdinetan; soldaduak Bilbora joan eta itsasoratu zirelako beste erreal batzuk; 10 erreal hilobietarako karea ordaintzeko; Olabarrietako elizako abadeen eskubideak zirela eta, 12 dukat; lau dukat Martin Orbezu abadeari laino bat bedeinkatzegatik; Zuibarriko zubia konpontzeko lau erreal eta hamar kaltzadetarako. Orotara, kargoetan 1.102 erreal, eta deskargoetan edo gastuetan oster, 2.511 erreal.

- 1632ko urtarrilaren 18an, Lexartza kortabasoaren 200 egur-karga enkante publikoan hartzeko deialdia. Kandelak piztu ondoren, Pedro Gesalak karga bakoitzeko 26 marabedi opatzen ditu. Gauza bera, Igarosta kortabasoan dauden 800 egur-kargaz. Elezabeitiako eskribaua den Iñigo Albizu Ibarrek erreal erdi opatzen du karga bakoitzeko. Eta deialdia ere, Muñaran altuan eta Zollo aldera dagoen Ezpatañaza kortabasoko 500 kargaz. Arrankudiagako Ugarte olaren jabe den Antonio Landaberdek 12 marabedi opatzen ditu karga bakoitzeko eta ez da besterik agertzen.

- Martxoaren 17an. **Sautuola olari** buruzko diru-kontuak. Jabe-partzuariak honoko hauek dira: Antonio Meñaka (1/4ren jabea), Juan Solatxi Irigorri, Iñigo Urkiaga, Pedro Sautua (hiru hauek bakoitza 1/16 zatiaren jabe da), eta Martin Arana eskribau defuntuaren alarguna den Marina Ortiz Areilza Olabari.

- Txomin Sautuola Areilzak 40 dukateko ordainagiria ematen dio Pedro Beti Tollarari.

- Apirilaren 13an. Pedro Arandia Areilza eta Maria Saez Sautuola ezkontideek diru-zentsua sortzen dute Txomin Sautuola Areilzaren alde, eta horretarako **Areilza** euren baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte.

- Apirilaren 13an. Juan Arteaga Sautuola, zordun nagusia eta Pedro Beti Tollara bermari legez, biek elkarrekin, 40 dukat-zentsua sortzen dute Txomin Sautuolaren alde, eta horretarako bakoitzak, hurrenez hurren, berea duen **Sautuola** baserria eta **Olatzar Tollara** baserria hipotekatzen du.

- Patxi Larrea Rementeria Argiñanok 150 dukateko ordainagiria ematen die Pedro Urteaga eta Ana Gorostiza Gesala ezkontideei, hauek Juan Gorostiza eta Maria Ortiz Gesala uztarkide defuntuen oinordeko direlako eta Juan Larrea Rementeria semea Maria Gorostiza Gesalagaz ezkondu zelako.

- Juan Goti Uriondok Erniaga basoetatik 100 ikatz-karga entregatuko dizkio Pedro Durango Uribiarte eskribauari.

- Maiatzaren 9an. Iñigo Andiko Etxaso zordun nagusia, eta Juan Andiko Arkulanda anaia bermari legez, biek elkarrekin 40 dukat-zentsua sortzen dute, Olabarrietako Santo Tomas elizan abade egon zen Juan Rotalde defuntuak sortutako Oroimen eta pobreentzako Erruki Obren alde. Eta horretarako, bakoitzak, hurrenez hurren, berea duen **Andiko Etxaso** eta **Arkulanda** [Gerrako] baserria hipotekatu behar du. Aipatu Oroimen horren patroik eta administrariak Martin Orbezua abadea, Juan Durango abadea eta Martin Urkiza dira.

- Martin Uria Etxasok ordainagiria ematen dio Juan Urkiza Gorosituri.

- Ekainaren 6an. Zeberio haraneko auzokide diren Antonio Meñaka Billela eta Antonia Azurdui Trauko ezkontideek, 2.600 dukat inguruan auzia dute Ignazio Azurdui koinatu eta nebaren aurka, izan ere, Antonia Tota Ortiz Trauko Rekalde ama defuntuaren oinordeko da eta.

- Ekainaren 6an. Santorin Arbilduren testamentua. **Arbildu** [Bekoa] bere baserriak Santo Tomasen duen hilobian lurperatua izatea agintzen du. Maria Saez Arbildu defuntuaren alarguna da eta Martin semea baserrirako oinordeko izendatua zuen. Beste alaba bi Maria Saez eta Ana Arbildu dira.

- Txomin Ugalde Ugarte, Martin Ugalde eta Ana Ugarte ezkontide defuntuen semea da.

- Ekainaren 21ean. Igorreko Txomin Etxebarria Garairen eta Maria Iñiguez Barañano Barañaokoaren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Juan Etxebarria eta Maria gurasoek Txomin semeari Igorreko Etxebarri baserria eta etxaguntza guztiak dotetzat ematen dizkiote. Eta bestetik, Pedro Barañano eta Maria Barañano Isasi gurasoek Maria Iñiguez alabari dotetzat 160 dukat dirutan eta arreea ematen dizkiote.

- Ekainaren 2an. **Olabarri olari** buruzko diru-kontuen arrazoiketa eta zehazketa.

- Uztailaren 8an. Katalina Anunzibai alarguna eta Martin Hernani Zuibarria Anunzibai, ama-semeak **Zuibarria** sortetxeari dagokion hilobi bat saltzen diete Bartolome Garai eta Maria Artiano ezkontideei 20 dukatetan. Kokapena da, gradetako laugarren iladan, eta mugakideak: aurretik, San Juan Arandia; eskuma aldetik, Juan Solatxi Iragorriren hiolobia; ezkerretik Martin Aldekoa Ereñozaren hilobia, eta atzetik, Martin Urreza Uriondorena.

- Pedro Aloa eta Maria Saez Mendia ezkontideek, Juan Etxebarriarena den **Etxebarria** baserria alokairuan dute. Eta etxearen errentagatik zortzi dukat ematen dizkiote Santxo Gesalari, Juanen koinatuari, eta Juan bera ere elikatu zutela.

- Elorriagako Ana Amezaren testamentua. Pedro [Larrea] Elorriagaren emaztea da eta **Elorriaga** baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du. Pedro senarrari boterea ematen dio baserrirako oinordeko izendatu ahal izateko.

- Abuztuaren 24an. Iñigo Solatxi Zeberioanek Pedro semea aparejatzin du Txomin Ibarrondo enteiliarekin, hiru urterako eta hamar dukat hiru urteak igarotakoan. Apendizaian ohitura den moduan, lanbidea irakatsiz gain, oinetakoak eman eta elikatu egingo du, Pedrok ezelako ausentziarik egin gabe.

- Juan Arteaga Arteagakoak 40 dukat-zentsua sortzen du Pedro Gesalaren alde, eta horretarako **Arteaga** baserria, etxaguntza guztiak eta patronagozko fogera hipotekatzen ditu.

- 1632. urtea. Zeanuriko Juan Agirrereren seme den Martinek Otxoa Ozerinekin adosten du Olabarrietako abelburuen taldean edo “busto”an laguntzeko hiru urtean.

- Urriaren 4ean. Menagaraiko Juan Arana pintoreak Andramariko erretaularen urreztaketa dela eta, ordainagiria ematen dio Juan Barañano Isasiri.

- Juan Egia Sautuolaren testamentua. Sautulako **Areztui** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatzea eskatzen du. Marina eta Maria alabei 80 bana dukat agintzen die. Marina Areztuiren senarra da eta Juan Areztuiren suhia. Martin Arezui Artianoren seme-alaba gaztetxoek kuradore izan zen. Martin Barañano Isasirekin adostu zuen **Olabarri olar**ako erruda bat egingo zuela, 15 dukatetan zeinetatik sei hartuta baitauzka. Errudarako material ebagia eta zerratua duela adierazten du eta Martin anaiak amaitzea eta olan jartzea agintzen du. Pedro Egia Zeberioanaren anaia da eta oinordeko Martin semea izendatzen du.



12. Argazkia: Mazukaria Legazpiko Mirandaolan. Mintegi.blogspot.com.2010048

- Txomin Ugalde maiordomoak hala aginduta, Zeberioanako Andramari ermitak Mugizorroz kortabasoaren ondoan duen basoko 400 ikatz-karga erremate publikoan ateratzen dira. Martin Ipiñak 35 marabedi opatzen ditu karga bakoitzeko eta diru horrekin guztiarekin Juan Arana pintoreak erretaulan egindako urrazketa lana ordainduko da.

4.5. 1640ko protokoloen laburpena

Juan Gesala Urraza eskribauak idatzia. 165 fol. 74. folioraino zenbatuak, hortik aurrera ez. Hasierako 18 orrietan tinta transpasatua. Bestela, egoera nahiko ona.

- Hasierako dokumentua. [Bartolome] Garairen testamentua. Seme-alabak Maria eta Frai Bartolome Garai Artiano dira. Lobak berriz, Marina eta Maria Artiano, hurrenez hurren, Nikolas Urigibelegaz eta [?] Gesalarekin ezkonduak. Lekukoaren artean Juan Artxua [eskolamaisua] agertzen da.

- Aurtengo bi Fielak Patxi Urteaga [infantzoia] eta Iñigo Barañano Isasi [patroia] alde batetik, eta Pedro Arteaga eta Arabako Betolaza herriko Juan Paskual bestetik, adosten dute azken honek Errioxako ardo beltzez hornituko duela Pedro bizi den Sautuolako taberna-etxea. Jarraian, Fiel biek eta Pedro Arteagak okelaz Zeberio harategia hornitzeko sistemaz dihardute.

- Enkante eta errematearen bidez pisu publikoa kontrolatzeko deialdiak egiten dira.

- Juan Arteagaren ama Marina Arandia da, berau Juan Arteaga defuntuaren alarguna.

- 15. fol. Pedro Arteagak Sautuola auzoan, eta Martin Barañanok Etxebarrian, Zeberio herria jenero desberdinez hornituko dutela adosten dute: olio, bakailao, arrainaren eta abazeriaren horniketari dagokion guztia.

- 17i. fol. Gamarrako auzokide den Juan Garzia Mendibilek zera esaten du: Errioxako upelategi onenetatik ardo gorritz eta beltzez hornituko duela Martin Barañanoren **Etxebarria** taberna-etxea.

- 21. fol. Urtarrilaren 21ean. Igarosta eta Lexartza kortabasoetako egurretarako enkante publikoa egiteko deialdia. Martin Arana eta Pedro Urbarri maiordomoak dira eta 340 karga inguru egotea kalkulatzeko da. Pedro Solatxi Irigorrik 99 marabedi eta erdi opatzen du karga bakoitzeko.

- 23. fol. Otsailaren 2an. Pedro eta Juan Solatxi aita-seme zeberioztarrak 200 ikatx-karga egingo dizkiote Migel Gotiri, honen Ostola kortabasoan, epea aurtengo San Juan eguna da eta karga bakoitzeko besolana dela-eta, 44 marabedi kobratuz.

- 28. fol. Pedro Hernani Areilzak [Areiltzako auzoko] **Olabarri** etxea eta alboko ortua errentan ematen dizkio Patxi Bezurteni, lau urterako eta 16 erreal eta oilo bat urteko errentapean.

- 31a. fol. Juan Arteaga defuntuaren alarguna den Marina Arandiak 20 dukaten ordainagiria ematen dio Pedro Arandia Areilzari.

- 31i. fol. Fuenmayor hiribilduan auzokidetuta dagoen Martin Zabala arotz-maisuak 40 dukat-zentsua sortzen du Marina Arandia Urteagaren alde, eta horretarako, bereak diren **Zabalabekoa** baserria, etxaguntza guztiak eta Fuenmayor-eko ondasunak hipotekatzen ditu.

- 35. fol. Areiltza auzoan bizi diren Pedro Gallano eta Maria Ibanes Aldekoa ezkontideek, 24 ahuntz

saltzen dizkiote Antonio Meñaka Billelari. Alde biek izendatutako gizon onen arabera, 16 dukat balio dute, eta bizi diren etxearen errenta ordaintzeko.

- 37. fol. Fuenmayorren auzokidetuta dagoen Martin Zabala arotz-maisuak boterea ematen dio Txomin Ipiñari, honek harena den **Zabalabekoa** baserria Tomas Larrabiderekina eta honen emaztearekin errentamendua formalizatzeko. Horrez hain, solo bat dela-eta, Juan Arandia Sautuolagaz auziren bat zuen.

- 1640. urtea. Santo Tomas elizan dauden hilobi bi direla eta, auzia dute Martin Ibarrondo Goikoak eta Martin Zabalabekoak. Hilobien mugakideak agertzen dira.

- 43. fol. Martxoaren 20an. **Arbildu olari** buruzko diru-kontuak jabe eta partzuarrien artean.

- 44. fol. Juan Martinez Sautuolak 34 dukateko ordainagiria ematen dio Maria Saenz Arandia Unzuetari, berau Juan Olarra Bezurten nagusiaren emazte dena.

- Patxi Beti Olalzar eta Marina Urkiza ezkontideak direla agertzen da.

- 49. fol. Apirilaren 9an. Txomin Ibarrondo arotz-maisuak Juan Zubiaur ola-tiratzailarena den **Zubiaur baserria** konponduko duela esaten du. Juanek zura guztia etxean ipiniko du eta lantzea eta latea ipintzea Txominen esku.

- 50. fol. Iñigo Barañano gazteak 35 errealeko ordainagiria ematen dio Juan Ibarrondo Orbezuri, honen ahuntzak haren solo barrian egindalo kalteagatik.

- 53. fol. Apirilaren 8an. Martin Areilza **Urraza Solatxi**koak Elezurriagan lekuan dagoen (I)Yartua deitutako basoa saltzen dio Pedro Uriarteri 108 dukatetan, eta hau, bere gurasoek Maria Otxoa Urraza arrebari ezkontza-dotetzat eman ziotelako, aipatu Pedorekin ezkondu zenean.

- 55. fol. Apirilaren 22an. Juan Zubiaur ola-tiratzaila eta Ageda Zabalgoiti ezkontideek 30 dukat-zentsua sortzen dute Patxi Egiaren alde, eta horretarako **Zubiaur** beren baserria eta ezagunak diren etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte.

- 57. fol. Apirilaren 23an. Pedro Zabala eta Maria Bengoetxea ezkontideek 40 dukat-zentsua sortzen dute Barbatxaoko Juan Bengoetxea gaztearen alde, eta horretarako, eurena den **Zabalabekoa** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen dituzte.

- 59. fol. Apirilaren 22an. Herri-baso batzuetan dauden 100 egur-kargen enkante eta erremate publikorako deialdiak. Basook hauek dira: Luzandegieta, Aibelagabe, Igarosta kortabasoaren azpia, Belaustegi lekua eta Urteaga-ondo.

- 60. fol. Apirilaren 23an. Juan Zubiaur ola-tiratzailak, Sautuola olarako presaren ondoan dauden eta **Zubiaur** bere baserriari dagozkion solo bat eta Zearra deitutako sagastia errentan ematen dizkio Patxi Egiari 10 urterako eta 16'5 erreal urte bakoitzeko errentapean.

- 68. fol. Martin Larrea Gallano eta Maria Ortiz Aldekoa ezkontideek, ezkontza-dotea zela eta, 80 dukateko ordainagiria ematen diote Patxi Aldekoa koinatu eta nebari.

- 69. fol. Maiatzaren 13an. Pedro Jauregik bere burua behartzen du Olabarrietako Santo Tomas fabrikak duen behitaldea Arrabako kortabasoan gorde eta zaintzeko, aurtengo San Juan eguna arte eta 216 errelako soldatapean.

- 70. fol. Maiatzaren 13an. Pedro Gesalak 40 dukateko ordainagiria ematen dio Iñigo Barañano gazteari. Arrazoia da 1634. urtean, Iñigo Barañano eta Ana Ginea uztarkide, bere gurasoek sortutako zentsua zela. Eta orain, Iñigo Barañano Isasik hartua du, bere arrebaren dotea ordaindu ahal izateko, aipatu Iñigo Barañano gaztearekin ezkondua delako.

- 71. fol. Juan Urteaga Egia zordun nagusia eta Pedro Urteaga loba eta bermari legez, biek elkarrekin 40 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Gesalaren alde, eta horretarako bakoitzak, hurrenez hurren, berea duen **Egia** eta **Urteaga** baserria hipotekatzen du.

- 73. fol. Maiatzaren 13an. Iñigo Barañano eta Pantxike Barañano Isasi ezkontideek 100 dukateko ordainagiria ematen diote Iñigo Barañano Isasi koinatu eta nebari. Izan ere, Martin Bakiola eskribauaren aurrean sinaturiko eskuidazkiak hala zioen eta.

- 75. fol. Pedro Otxoa Barbatxano zordun nagusia eta Juan Larrabide bermari legez, biek elkarrekin 30 dukat-zentsua sortzen dute Txomin Ugalderekin alde, eta horretarako bakoitzak berea duen **Barbatxao** eta **Larrabide** baserria hipotekatzen du.

- Maiatzaren 17an. Santorin Ibarrondo eta Marina Ortiz Idirin uztarkideek, eta Martin Barañano eta Maria Ibanes Ibarrondo ezkontideek, laurek 200 dukateko ordainagiria ematen diote Pedro Arandia Sautuola eta Juan Martinez Sautuola zordun nagusiei, eta Iñigo Barañano Isasi bermariari, hauek 1636. urtean sortutako zentsua horrela askatuz. Lekukoak hauek dira: Iñigo Hernani Arbildu, Iñigo Barañano gaztea Barañanoa eta Pedro Ortiz Artiano. Lehenengo lekuko bien sinadura dator.

- 1640ko ekainaren 3an. Juan Barrenetxe Ereñozaren testamentua. **Barrenetxe** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du. Maria Saenz Urrazarekin ezkondua dago eta lau seme-alaba daukate: Maria Saenz, zeinari ezkontza-dotetzat 140 dukat dirutan gehi arreoan agintzen baitizkie; Martin eta Pedro, zeintzuei 50 dukat bana agintzen baitizkie. Sarriondo deitutako basoa agertzen da. Oinordeko Juan semea izendatzen du, eta testamentari Maria Saenz emaztea. Ikatza egiten aritutakoa zen.

- 1640ko ekainaren 5ean, herri-basoen egur-kargen enkante eta erremate publikoa burutzen da. Ikus 10. orria.

- Abuztuaren 4an. Iñigo Urkiagak 40 dukat-zentsua sortzen du Martin Barañano Isasiren alde, eta

horretarako **Urkiaga** bere baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen ditu.

- Ekainaren 12an. Martin Ibarrondo Bekoak eta Marina Ibarra ezkontideek **Ibarra** [Hernandoena] baserriko legitimak direla-eta, 200 dukateko ordainagiria ematen diete Martin Solatxi Ibarra eta Maria Ibanes Ibarra uztarkideei, azken hau Marinaren ahizpa baita, eta biak Martin Arandia Ibarra eta Marina Gesala senar-emazte defuntuen alabak.

- 1640ko ekainaren 28an. Gazteluko elizateko auzokide den Jeronimo Julian Gortazarrek boterea ematen dio Juan Martinez Sautuolari. Eta honek Pedro Urteaga Gorostizakoari 50 erreal kobratu behar dizkio, Pedrok Laueta kortabasoan egindako kalteen ordainetan.

- Igorreko Katalina Zabalgoiti Juan Zubiaur tiratzailearen amaginarreba da.

- Ekainaren 21ean. Patxi Egiaren testamentua. Martinen semea da eta Pedoren loba. Magdalena Arbidegaz ezkondua dago eta bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea agintzen du. Hainbat pertsonak dirua zor dio eta kontuak zehazten ditu. **Egia** [Ansoena] baserriarako oinordeko Martin semea izendatzen du eta honek Ana arrebari 200 dukat dirutan eta arreoan eman behar dizkio.

- Ekainaren 20an. Martin Solatxi Ibarra eta Maria Ibanes Arandia Ibarra uztarkideek 80 dukat-zentsua sortzen dute Patxi Ibarrondo ola-mazukariaren alde, eta eurenak diren **Ibarra** [Hernandoena] baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen dituzte. Lekukoak Juan Durango Uribiarte abadea, Pedro Elorriaga eta Juan Ameza zapataria dira.

- Uztailaren 18an. Juan Solatxi [Ereño] ola-urtzailea eta Marina Ugarte ezkontideek ezkontza-dotetzat 60 dukateko ordainagiria ematen diote Juan Ipiña Ugarte koinatu eta nebari.

- Uztailaren 18an, Txomin Areilza Artiano [Goikoa] ola-urtzaileak 100 dukateko ordainagiria ematen dio Juan Solatxi [Ereño] koinatuari, Katalina Solatxigaz ezkondu zenean Juan Solatxi aitagarrebak hala agindu ziolako.

- Ekainaren 30ean. Gaixorik dagoen Txomin Bezurtenen testamentua. Bere [Ezkerrena] baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du. Emaztea Marina Irigorri da, zeinak Joanes Goikoetxea kapitainak sortutako Erruki Obratik 100 dukat kobratu behar baitu. Bilbon bizi den Marina Bezurten isekoari 200 dukat ematea agintzen du. Eta Juan Urigibel hauspoegile defuntuaren alarguna den Maria Iñiguez Areilzari beste 50 dukat. Ikatza egiten besolaneari aritu zen. Jose Aldekoa Ereñozaren emazte den Marina Bezurteni 60 dukat zor dizkio, eta horren prendan bere baserriaren aurrean dagoen garaia “el elorrio”, eta soloa erabil ditzatela. Ama Maria Iñiguez Artiano da eta baserriaren laurdena goza dezala agintzen du. Santa Kurtze errota errentan bost urtean izan zuen. Emaztea testamentari izendatzen du, eta oinordeko Juan Bezurten Irigorri semea, eta beste

seme-alaben artean herenean eta bosgarrenean hobesten du.

- Abuztuaren 5ean. **Olabarri olaren diru-kontuen** zuriketa. Jabe eta partzuariak honoko hauek dira: **Olabarri** sortetxeko administrari den Marina Ortiz Areilza Olabarri alarguna, Juan Orbezu zirujaua, eta Pedro Barañano, eta lekukoak ostera, Martin Goti sakristaia, Juan Ipiña Ugarte ola horretako mazukaria eta Txomin Ibarrondo enteilaria bertan obrak egin zituen. Guztiak Zeberio haraneko auzokideak dira.

- Abuztuaren 10ean. Juan Ugalde abadeak Txomin Ibarrondo enteilaria etxe berri bat eraikitzearen obragatik, kontu handiago bateko 500 errealean zatia ematen dio.

- Abuztuaren 11n. Pedro Solatxi Iragorrik zaldi batzuk erosten dizkio Txomin Sautuola Areilza iltzegileari 25 dukat ordaintzekotan, eta horrez gain, diru-zentsua sortzen du honen alde, eta horretarako **Solatxi** [Iragorri] baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen ditu.

- Abuztuaren 22an. Ana Sautuaren testamentua. Juan Hernani Arbilduren emaztea da eta **Sautua** bere jaiotetxeak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatzea eskatzen du. Juan Urizar eta Maria Garairen kuñata da. Pantxike Sautua Bezurtengoa bere ahizpa da. Adin txikiko hiru seme-alaba ditu: Pedro, Inesa eta ?. Kontu asko agertzen dira ordaintzeko eta kobratzeko. Testamentari senarra eta Pedro neba izendatzen ditu.

- Abuztuaren 27an. Martin Larrea Olabarrikoa olamazukariaren testamentua. Juan bere aita jaio zen **Larrakoetxea** baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du. Katalina Arandiagaz ezkondata dago eta bost seme-alaba ditu: Juan, Pedro, Katalina, Maria eta Martin Larrea Arandia. Txomin Ugaldegaz kontu luzeak ditu. Bere izenean sei behiburu (5 behi eta zekor bat) Arrabako larretan dauzka, baina Juan semearenak dira, feriatik ekarriak. Pedro Arandiarekin ezkondua dagoen Katalina alabari behia eta txahala agintzen dizkio. Maria alabari laguntzeko, zaldia eta ardiak agintzen dizkio. Bi idiak Juan eta Pedro semeentzat, eta Martini zekorria eta moxala. Testamentari emaztea izendatzen du eta oinordeko Pedro semea.

- Irailaren 8an. Olabarrietako elizateko auzakideen artean diru-banaketa burutzen da soldadu bat eta bi kinto ordaindu ahal izateko. Patxi Urteaga Fielaren ardurapean bi dukat kobratzeko banaketa burutzen da. Auzokide infantzoi gehienen izena idatzita dator, eta orotara 51 fogera agertzen dira. Laster publikatuko da dokumentu hau osorik transkribatuta.

- Abuztuaren 30ean. Magdalena Areztui Artianoren eta Pedro Zuibarria Gesala albaitariaren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Martin Areztui eta Magdalena Artiano ezkontide defuntuen seme den Martinek Magdalena arrebari dotetzat 50 dukat dirutan eta arreo zehatza ematen dizkio. Eta bestetik, Pedro Zuibarria eta Maria Ortiz Gesala uztarkide defuntuen Pedro semeak albeitar bere lanbidea, jantzia, hauspoak

eta lanerako erremintak eramaten ditu. Lekukoak Pedro Gesala abadea, Martin Madariaga albaitaria, Juan Gesala iltzegilea eta Juan Zuibarria dira.

- 1640ko irailaren 10ean. Juan Ona Urbinak Juan Martinez Sautuolarekin **Santa Kurtzeko ola** tiratzailean lanean arituko dela adierazten du, iraileko San Migel egunetik San Juan egunarte, eta 200 errealetan eta beste baldintza batzuetan.

- Irailaren 18an. Zeberioko auzokide den Martin Zubiaurrek soldadu plaza hartzen du Kataluniako probintzian zerbitzatzeko. Erregeak Bizkaiko Jaurerriari 200 infante eskatu zizkion eta Olabarrietako elizatearen izenean Martin doa. Patxi Urteaga Fielak 72 dukat eta ezpata emango dizkio.

- Irailaren 16an. Martin Arbilduk sutegirako hauspo batzuk erosten dizkio Pedro Arandia Areilzari 20 dukatetan.

- Irailaren 16an. Zeberioko auzakide patroien izenean Kataluniara soldadu lez joateko plaza hartzen du Basauriko Pedro Goirik. Iñigo Barañano Isasi Fiel patroiak 80 dukat, ezpata eta alkandora emango dizkio.

- Irailaren 16an. **Sautuolako olaren** jabe-partzuarien eta Txomin Ibarrondoren arteko eskuidazkia, olaren zenbait obra burutzeko: olaren antepara berria, presaren kolomadura, “guiçalegue” deitutako olaren gorputza, zuraje guztia berria izatea, guztia, 200 dukatetan, eta 1641eko irailaren S. Migel egunerako bukatua.

- Egun berean, Orozkoko Martin Olarra arotzak **Arbilduko olan** konpontze-lanak burutuko ditu, zehazki, “gizalege” deitutako horman 100 dukatetan eta materiala bertan ipiniko zaio.

- Urriaren 10ean. Juan Arteaga eta Maria alaba batetik, eta bestetik Pedro Etxebarri. Haiek Calahorrako Gotzaitegiko Auzitegira jotzen dute, Pedrok Arantzazuko Mariana Zalbiderekin ezkondu nahi duelako, baina aurretiaz Maria Arteagari berba emana ziolako. Alde bien arteko arazoa 40 dukaten bidez gainditu egiten da.

- Urriaren 18an. Iñigoren semea den Martin Amezola Gotik zazpi urteko mando bat erosten dio Juan Larrabide Zeberioanakoari, bere atal on zein txarrekin eta 40 dukatetan. Bermari Juan Arteaga ateratzen da.

- Urriaren 21ean. Martin Amezola Gotik 20 dukat-zentsua sortzen du Pedro Urraza Rotateren alde, eta horretarako, bereak diren **Ametzologoti** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen ditu.

- Juan Arteaga Sautuolak 20 dukat-zentsua sortzen du Olabarrietako Santo Tomas elizan Maria Saenz Urraza Tollarak ezarritako perpetualaren alde, eta horretako Juanek **Sautuola** [Ozeringo] baserria, etxaguntza guztiak eta egurbidea hipotekatzen ditu. 20 dukatok Maria Saenzen suhia den Pedro Beti Tollarak, eman dizkio.

- Martin Bengoetxearen testamentua. Areiltza **Bengoetxea** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du. Ana Iturrategaz

ezkonduta dago eta hiru seme-alaba dituztela agertzen da: Maria, zeinari 50 dukat agintzen baitizkio, Martini 10, eta Juan Zabala Bengoetxea Iturrate. Testamentari emaztea izendatzen du eta oinordeko Juan semea.

- Felipe Gorostizak 20 dukat-zentsua sortzen du Juan Orbezu zirujau-maisuaren alde, eta horretarako **Gorostitza** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen ditu.

- Martin Zabala arotz-maisuaren izenean ari den Txomin Ipiñak **Zabalabekoa** baserria, soloak baina ez basoak errentan ematen dizkio Tomas Larrabideri lau urterako eta sei dukat urteroko errentapean.

- Pedro Ugarte Gesala abade lizentziatua Avilako San Nicolas elizan benefiziari dela agertzen da.

- Abenduaren 8an. Iñigo Amezola Goti eta Marina Argiñano ezkontide defuntuen seme den Martinek, amaren legitima dela-eta ordainagiria ematen dio Juan Argiñanori.

- Eta 1640ko abenduaren 12an. Arabako Andres González Vallejo eskola-maisuaren kontrataua. Ikus zehatzago 10. orria.

4.6. 1644ko protokoloen laburpena

Juan Gesala eskribaua. 185 folio, zenbatu gabe. Data nahasiak ditu, batez ere uztaila-abuztuan. Egoera ona baina azkeneko folioak txarto daude.

- Urtarrilaren 9an. Martin Urraza Uriondok 40 dukat-zentsua sortzen du Txomin Ibarrondo entailariaren alde, eta horretarako bereak diren Uriondo auzoko **Urraza** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogera hipotekatzen ditu. Lekukok Pedro Barañano, Martin Ipiña Ereñoza eta Pedro Arteaga Sautuola dira.

- Urtarrilaren 9an. Pedro Bengoetxea Saldarian ola-urtzaileak zaldi bat erosten dio 20 dukatetan Juan Arteaga Sautuolari.

- Urtarrilaren 9an. Pedro Zeberioanak 100 dukateko ordainagiria ematen dio Martin Urraza Uriondo koinatuari, izan ere, Pedro Maria Ibanes Urraza arrebarekin ezkondu baita. Horrez gain, Txomin Ibarrondok **Zeberioana** baserria berregin duela agertzen da.

- Urtarrilaren 17an. Pedro Solatxi Iragorrik 30 dukat-zentsua sortzen du Juan Gorosituren alde, eta horretarako **Solatxi** [Iragorri] baserria, etxaguntza guztiak eta patronatoko fogera hipotekatzen ditu.

- Sautuola olan diru-kontuen zuriketa. Antonio Meñakak bi hauspo berriengatik 1.012 erreal ordaindu dituela agertzen du.

- Pedro Arana Areilzak irendu gabeko mandoa erosten dio Pedro Aloari, 400 errealetan eta epeka ordaintzekotan.

- Otsailaren 2an. Juan Goti abadeak admeterian hamar behiburu nagusi eta txiki ematen dizkio Pedro Gorostizari, honek lau urtez **Gorostitza** bere baserrian hezi eta gorde ditzan.

- 1644. urtea. Batetik, Olabarrietako Santo Tomas fabrikako Igarosta, Lezartza eta Meako kortabasoetako egurra enkante publikoan eskuratzeko deialdiak egiten dira, eta bestetik, 13. argazkian dagoen Andramariren Elezegiko egurra, honengatik Patxi Ibarrondok 40 marabedi eskaintzen ditu.



13. Argazkia: Andramari ermita. Ojanguren 1950

- Martin Urkiza Larrabide ola-mazukariaren testamentua. **Larrabide** bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du, bertan bere gusasoak lurperatuta baitaude. Pedro Barbatxano eta Pedro Urizar lehengusuak eta Pedro Goti, hirurak ola-urtzaileak berarekin lan egin zutenak zorren bat dute beragaz. Iñigo Zubiaurrena zen Laudioko Bitorika olan mazukari lanean aritu zen. Tomas bere anaia da, eta Millan lobak legitimen dirua zor dio Martini. Marina Arandia emaztea da.

- Otsailaren 20an. Martin Gesala *Matxigorri* deitua eta Patxi, aita-semeak 30 dukat-zentsua sortzen dute Martin Gesala eta Maria Saenz Tejeria ezkontideen alde, eta horretarako haiek **Gesalagoikoa** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoaren fogera hipotekatzen dituzte.

- Otsailaren 21ean. Felipe Gorostizak 30 dukat-zentsua sortzen du Juan Orbezu zirujau-maisuaren alde, eta horretarako **Gorostitza** baserria, etxaguntza guztiak eta Olabarrietako patronatoko fogeraren erdia hipotekatzen ditu.

- Martxoaren 14an. Iñigo Goti Etxasok 20 dukat-zentsua sortzen du Pedro Barañanoren alde, eta horretarako **Goti Etxaso** baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen ditu.

- Martxoaren 21ean. Iñigo Barbatxano Urizar eta Ana Urizar ezkontideek 30 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Arteaga Sautuola eta Maria Ibanes Larrea uztarkideen alde, eta horretarako **Urizar** baserria, etxaguntza guztiak eta fogera hipotekatzen dituzte.

- Martxoaren 24an. Pedro Ortiz Artianok 20 dukat-zentsua sortzen du Pedro Gesala abadearen alde, eta horretarako **Artiano** baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen ditu.

- Pedro Otxoa Goti eta Pedro Barañano maiordomoek Idiringorta kortabasoko egurra erremate publikoan ateratzen dute. Denetara 350 karga daude, eta Arrigorriagako Agirre ola hornitzen duen Maria Saenz

Aperribai alargunak 34 marabedi opatzen ditu karga bakoitzeko.

- Martxoaren 31n. Iñigo Ibanes Zubiaurrek **Zubibarriako olaren** bere zatia, erreminta, ur, ikaztegi eta arragoak errentan ematen dizkio Juan Martinez Sautuolari, bi urterako.

- Apirilaren 2an. Olabarrietako Santo Tomas elizako koruan egindako lanak direla eta batzen dira, alde batetik, Juan Gesala, Juan Ugalde eta Juan Durango hirurak abadeak eta Pedro Barañano Etxebarri maiordomo legez, eta bestetik, Foruako Juan Agirre hargin-maisua. Euren artean adosten dute bi hilabetez koruan egindako lanak 150 dukatetara prezioa zuela.

- Kataluniako probintziaren aurkako gerran eta infante lez aritzeko Orozkoko Pedroren seme den Martin Goienengoak auzokide patroien izenean soldadu plaza hartuko duela esaten du. Eta Txomin Ibarrondo Fielak 30 dukat ematen dizkio.

- Apirilaren 10ean. Tomas Urkiza Larrabide soldadu izateko asmoz aurkezten da, 30 dukatetan.

- Soldadu joateko ere, 32 dukatetan eta auzokide infanzuoen izenean Patxi Artxua Lexarmendi doa.

- Apirilaren 17an. Tomas Urkiza Larrabidek boterea ematen dio Marina Arandia emazteari. Eta honek Milan Larrabide lobarengandik kobratu ahal izateko Larrabide baserriko legitimak. Juan Urkiza Larrabide eta bere emaztea, Tomasen guraso izan zirenek hala agindu zuten-eta.

- Pedro Otxoa Goti Uriondo eta Pedro Barañano Etxebarri bi maiordomoek, elizako koruaren obra ordaindu ahal izateko Pedro Urteaga Gorostizaren aurka duten 36 dukat erabiliko dituzte.

- Zortzi urteko idi hezi bat 16 dukatetan saltzen da.

- Apirilaren 17an. Pisu publikoaren edo kintalaren enkante eta errematea ateratzen da.

- Apirilaren 20an. Alonsotegiko Aldanzarra kortbasoaren egurraren enkante eta erremate publikoa egiten da. Aldanondo etxearen eta olaren jabe den Damian Etxebarrik, 54 marabedi karga bakoitzeko ordainduta, 850 kargak 1.350 errealetan eramango ditu.

- Apirilaren 29an. Martin Solatxi Ibarra eta Maria Ibanes Ibarra ezkontideek diru-zentsua sortzen dute Patxi Ibarrondo Gorositu ola-mazukariaren alde, eta horretarako **Ibarra** beren baserria, etxaguntza guztiak eta patronatoko fogera hipotekatzen dituzte.

- Martxoaren 19an. Sautua sortetxean, Juan Hernani Arbilduren emazte den Ana Sautuak senarrari boterea ematen dio, honek salmenta bat egin ahal izateko. Areiltza eta Sautuola auzoen artean eta errepidearen ondoan dagoen Aztui deitutako sagastia saldu nahi dio Txomin Ibarrondo Gorozitu enteilarari, izan ere, Pedro neba seme-alaba barik hil zenez gero, Ana zelako **Sautua** baserrirako oinordeko bakarra.

- 1644ko maiatzaren 2a. Mariana Artianoren testamentua. Areiltza auzoko **Goikoetxea** baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du. Juan Goia Areilzaren emaztea da, zeina oinordeko unibertsal eta testamentari izendatzen baitu.

- Maiatzaren 3an. Iñigo Barañano Isasik irendu gabeko bi mando, akats on zein txar, publiko zein sekretu, eta ardoz betetzeko lau zahagi saltzen dizkie Arteako Lasarte baserriaren jabe diren Patxi Lasarte eta Ana Elezabeitia ezkontideei, 200 dukatetan eta lau epe jakinetan ordaintzeko.

- Maiatzaren 8an. Egun Areiltzan bizi den Pedro Arana kapelagileak zordun nagusia, eta Juan Castillo Tejeria bermari legez, 80 dukat-zentsua sortzen du Juan Andiko Arkulandaren alde, eta horretarako, hurrenez hurren, Pedrok, Martin Arana anaiarena den Uriondo auzoko **Arana** baserriko legitimak hipotekatzen ditu, eta Juan Kastillok ostera, **Tejeria** baserria eta etxaguntza guztiak.

- Maiatzaren 12an. Pedro Urraza Rotatek 40 dukat-zentsua sortzen du Pedro Gesalaren alde, eta horretarako **Rotate** baserria, etxaguntza guztiak eta patronazgoan dagokion fogera hipotekatzen ditu.

- Maiatzaren 16an, Tomas Arbildu kapitainak diru-zentsu desberdinetako 738 dukaten ordainagiria ematen dio Pedro Sautua defuntuaren emaztea zen Maria Garai alargunari.

- Orozkoko abelburuen larraketa eta harrapaketa Zeberioko lurretan.

- Iñigo Albizu ola-urtzailea Ugalden bizi da.

- Maiatzaren 25ean. **Sautuola olaren** jabe-partzuarien arteko diru-kontuen zehazketa.

- Ekainaren 10ean. Pedro Hernani Areilza eta Txomin Ibarrondo Fiel bien deialdi pean 50 auzokide patroei eta infanzuoiaren batzarrea egiten da. Gaia da Juan eta Juan Solatxi aita-semearen salaketa zela eta, Tomas Amezola Iturriaga kartzelan preso dagoela, emaztea makilkadak eman zizkiolako eta horrez gain, abelburuak lapurtuak izan direla eta bizitza txarreko pertsona dela, eta horrelako jokaerarik Zeberion ezin dela onartu.

- Ekaina. Zeberioanako Andramari Kofradiko maiordomo den Juan Arteagak Egia auzoan **etxetxoa** eta solo bat errentan ematen dizkio Juan Egia urtzaileari. Eta Juan Arteagak berberak, Andramari ermitarenak diren **Zubialdeko** etxea eta soloa errentan ematen dizkio Martin Zabala arotzari, bost urterako eta bost dukat urteroko errentapean. Andramari ermitak hiru baserri hauek bereak zituen:

- Ermitaren aurrez aurre zegoena.

- Zubialde auzoan, egun Udaletxea dagoen lekuan zegoen etxea (Ikus 14. argazkia).

- Egia auzoan, Andramari deitutakoa.



14. Argazkia: Zubialde eta Egia auzoak. FOAT

- Ekainaren 12an. Martin Gorostiza Larrabide defuntuaren seme den Juan Larrabidek 30 dukaten ordainagiria ematen dio Millan Larrabide koinatuari, berau Marina Urkiza Larrabideren neba baita, eta haren emaztea.

- Ekainaren 16an. Pedro Ibarraren testamentua. **Ibarra** [Aldekoa] bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian lurperatua izatea eskatzen du, hortxe baitaude bere guraso eta aurrekoak ehortziak. Pedro Ibarrondo suhiak 70 dukat eman zizkion Maria Ibanes Ibarra alabarekin ezkondu zenean. Marina beste alabari 80 dukat dirutan, arropa eta amaren jantziak agintzen dizkio.

- Ekainaren 12an. Pedro Otxoa Goti Uriondo, zordun nagusia eta Andres Isasi bermari legez, biek elkarrekin 50 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Arteaga Sautuolaren alde, eta horretarako, bakoitzak, hurrenez hurren, bereak diren **Uriondo Goti**, Saladarian **Isasi** baserriak, etxaguntza guztiak eta patronazgoko fogerak hipotekatzen dituzte. Horrela, Pedro Gotik aurreko eskuidazki baten arabera, Juan Amezari zor ziona ordaintzen dio.

- Ekainaren 12an. Juan Larrabide zordun nagusia eta Millan Larrabide koinatua bermari legez, biek elkarrekin 10 dukat-zentsua sortzen dute Pedro Gesalaren alde, eta horretarako **Larrabide** baserria, etxaguntza guztiak eta patronagozko fagera hipotekatzen dituzte.

- Ekainaren 15ean. Pedro Barañanok Olabarrieta Santo Tomas fabrikako behitaldea errentan hartzen du, eta orain Juan Amezolarekin aparejatzen da San Juan egunean hasita urte baterako.

- Ekainaren 24an. Txomin Ibarrondo Gorosituk **Sautuolako** bere etxea eta ostatua errentan ematen dizkio Pedro Arteagari, domusantu egunean hasita lau urterako eta 12 dukat urteroko errentapean.

- Ekainaren 24an. Olabarrietako behitalderen errendamendurako deialdiak. Martin Barañano Etxebarri eta Pedro Otxoa Goti Uriondo maiordomoak dira eta zortzi baldintza ezartzen dituzte. Pedro Barañano Barañaokoak hartzen du 200 erreal urteroko errentapean.

- 1644ko uztailaren 10ean. Martin Urkiza ola-mazukari edo gabi-arotza Zeberio haranean bizi den

Matias Zubiaurrekin aparejatzen da, hark lan egin dezakeen olan zerbitzatzeko eta Matiasi ola tiratzaile lanbidea irakasteko asmoz. Tomas Zubiaur aitak ere lan egingo du, eta 17 dukatetan adosten dituzte lan-kontratu honek iraungo dituen bi urteak. Gauza bera egiten du Martin Urkizak gabi-arotzak Martin Jauregi ola-urtzailearekin. Bi urtez edo neguz ere, Urkizak lan egingo duen olan zerbitzatzeko, urtzaigintza lanbidea irakasteko, eta zortzi dukat bi urtean ordaintzeko.

- 1644. Zubialde auzoan, Martin Barañano Ginearen eta Marina Ganboa Olea Gesalaren arteko ezkontza-kontratua burutzen da. Alde batetik, Iñigo Barañano eta Ana Ginea ezkontideek Martin semeari dotetzat zera ematen diote: 200 dukat dirutan eta Errioxatik ardoa garraiatzeko zamaritan, eta **Barañano** baserriko legitimak. Eta beste aldetik, Txomin Olea eta Maria Perez Gesala uztarkideek Marina alabari dotetzat zera ematen diote: infanztoi eremuko **Zubialde** [Olakoa] baserriko izan lezakeen eskubidea, Arteako Antonio Saez Ziarrustaren aurka duten 200 dukat-zentsua, eta arrea.

- Abuztuaren 15ean. Martin Etxezarraga Ugartek mando irendua erosten dio Juan Ipiña Ugarte auzokideari 37 dukatetan. Eta Juanek Martini harena den **Ugarte** baserri zaharra errentan ematen dio sei urterako eta hiru dukat urteroko errentapean.

- Abuztuaren 1 eta 16an. Iñigo Barañano Etxebarri Gorosituren eta Maria Ibanes Uribarriren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Pedro Barañanok, Etxebarri Aldañano, lehen ezteietan Magdalena Gorositugaz ezkondua, eta bigarrenez Marina Amezolarekin, Iñigo semeari dotetzat zera ematen dio: eremu infanztoian kokatuta dagoen **Etxebarri Aldañano** baserriaren erdia, etxaguntza guztiak eta Pedro eta Marina uztarkideak bizi diren aldameneko etxea, zenbait erretserba eginenez. Iturrieta eta Sasia soloak agertzen dira. Eta beste aldetik, Andres (Goti) Uribarri defuntuaren alarguna den Maria Ibanes Uribarri amak Maria Ibanes (Goti) Uribarri alabari dotetzat 220 dukat dirutan eta arrea ematen dizkio. Lekukoak dira Juan Hernani Areilza, Iñigo Barañano gaztea eta Juan Ereñoza Orbezu.

- Uztailaren 10ean. Martin Urkiza ola-mazukari edo gabi-arotza Zeberio haranean bizi den Matias Zubiaurrekin aparejatzen da, hark lan egin dezakeen olan zerbitzatzeko eta Matiasi ola-tiratzaile lanbidea irakasteko asmoz. Tomas Zubiaur aitak ere lan egingo du, eta 17 dukatetan adosten dute lan kontratu honek iraungo dituen bi urteak. Gauza bera egiten du Martin Urkizak gabi-arotzak Martin Jauregi ola-urtzailerekin. Bi urtez edo neguz ere, Urkizak lan egingo duen olan zerbitzatzeko, urtzaigintza lanbidea irakasteko, eta zortzi dukat bi urtean ordaintzeko.

- Uztailaren 2an. Esteban Baraikua txipikaila-maisua eta Marina Sautuola Gesala ezkontideek 16 burdin-kintal sotila emango dizkiote Antonio Meñaka Billela Jaunari Bilboko errenterian. Horretarako euren etxaguntzak berme gisa ezartzen dituzte, eta horietan,

Txomin Sautuola eta Marina Gesala uztarkide eta guraso defuntuen heriotzagatik Magdalenak, **Areitza** baserriko legitimak, egun etxea Pedro Arandia Sautuolak duena.

- Uztailaren 12an. Juan Martinez Sautuolak 70 dukat-zentsua sortzen du Maria Ibanes Sautuola bere arreba ezkongaiaren alde, biak Juan Martinez eta Maria Ibanes Urraza ezkontide defuntuen seme-alabak baitira eta Juanek **Sautuola** [Egiluzena] baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen ditu.

- Uztailaren 13an. Juan Orbezu zirujauaren testamentua. **Orbezu** [Nagusia] bere baserriak Santo Tomas elizan duen hilobian ehortzia izatea eskatzen du. Pantxike Arteagarekin ezkontua dago eta ez dute seme-alabarik. Beraz, dotearen itzulketa agintzen du eta 100 dukat gehiago. Maria Otxoa Barañano ama, zahartua bizi da, eta zaintzeko eta elikatzeko agintzen die Pantxikeri eta Juan Orbezu lehengusuari. Bere etxean Petronila deitutako neska bat dago Marina Ortiz Barañanogaz edukia eta alabatzat errekonozitzen du. Juan Arteaga koinatua da zeinari 50 dukat zor baitzizio. Martin Arteaga sendikoa da eta Madrilen bizi dela agertzen da. Diru-kontu desberdinak ditu, zor duena eta zor diotena. Martin Etxebarri Olalzar osaba da eta oinordeko Juan Orbezu lehengusua izendatzen du.

- Uztailaren 11n. Juan Martinez Sautuolak errentan ditu Iñigo Zubiaur Ugalde jaunarena den **Zubibarría** **ola**, hauspoak eta herramintak 70 dukatetan.

- Uztailaren 11n. Zeberio eta Laudioko haranetako auzokide den Iñigo Ibañez Zubiaur, Martin Ugalde maisu defuntuak sortutako Oroimen eta Erruki Obren patroia da, eta eskubide horretan oinarrituz, Maria Ibanes Urriola Ereñoza umezurtza izendatzen du 80 dukatzen laguntza jaso ahal izateko, sortzailearen sendikorik hurbilena da eta. Diru hori zentsu-zordunengan kargatuko da. Maria Ibanesen gurasoak Lazaro Urriola eta Ana Ereñoza ziren.

- 1642. urteko Fiel infantzoia Iñigo Arandia izan zela agertzen da.

- Abuztuaren 31n. Pedro Elorriagak 60 dukat-zentsua sortzen du Pedro Arteaga Sautuolaren alde, eta horretarako **Elorriaga** baserria, etxaguntza guztiak eta Olabarrietako Santo Tomas patronazgoko fogera hipotekatzen ditu.

- Abuztuaren 26an. Juan Solatxi Moiak Martin Solatxi Ibarren aurka duen 30 dukat-zentsua Antonio Meñaka Billela jaunari transpasatzen dio.

- Abuztuaren 29an. Zarauzko Maria Lertxundi alarguna eta Txomin Arana Lertxundi ama-semeak Uriondo auzoko **Aranabekoa** baserriaren legitimak direla-eta, 37 dukateko ordainagiria ematen diete Pedro Arana Gesalari eta Maria Perez Gesala amari.

- 1644ko irailaren 9an. Juan Aloa gazteak, Pedro Zapateria Agirrerren aurka duen 60 dukat-zentsua transpasatzen dio Juan Arteaga Sautuolari.

- Irailaren 15ean. Maria Saenz Arandia Unzueta alargunak, dote-itzulketa zela eta, 120 dukat emango dizkio Pedro Larrea ola-tiratzaille eta suhiari, honen eta

Pantxike Sautua Arandiaren arteko ezkontza seme-alabarik gabe amaitu zelako. Lekukoak Juan Durango abadea, Patxi Arteaga eskribaua eta Iñigo Aloa zirujaua dira.

- Urriaren 17an. Juan Ameza ola-mazukari eta Maria Saez Ameza ezkontideen seme eta oinordeko den Iñigo Amezak hamar dukat-zentsua sortzen du eliz kabildoaren alde, eta horretarako **Ametzabekoa** baserria hipotekatzen du.

- Juan Arteaga Sautuola gaztearen eta Maria Egia Areztuiren arteko ezkontza-kontratua. Alde batetik, Juan Arteaga Sautuola eta Marina Sautuola ezkontideek Juan semeari dotetzat **Sautuola** [Areztui] baserria eta etxaguntza guztiak ematen dizkiote, gozamenaren erdia eurentzat gordez. Eta bestetik, Juan Egia Areztui defuntuaren alarguna den Maria Areztui Sautuolak Marina alabari dotetzat 130 dukat dirutan eta arrea ematen dizkio.

- Urriaren 12an. Juan Olarra Berzuten eta Marina Arana uztarkideek 50 dukat-zentsua sortzen dute Muruetako San Pedro elizan abade dagoen Patxi Larrea Azpururen alde, eta horretarako **Marin Berzuten** deitutako baserria eta etxaguntza guztiak hipotekatzen dituzte.

- Urriaren 18an. Juan Goti Areilza suhiak 40 dukateko ordainagiria ematen die Pedro Sautuola eta Maria Otxoa Zuibarría ezkontideei, Maria Iñigez Sautuola bere emaztearen guraso direnak.

- Laredoko Mateo Alonso de Pedroso Naja harginak Santa Kurtzeko olarako kaltzea burutu zuela agertzen da.

- 1644ko azaroaren 2an, Martin Gesala Goikoak Zeberioko lurretan harrapatuak izan diren orzkoar batzuen abelburuen fidantza ordaintzekotan gelditzen da bi Fielen aurrean: 36 erreal Pedro Adarorenak diren 12 behiburuengatik, eta 24 erreal hiru behorrenatik; eta Pedro Garaigortarenak diren 24 ahuntzengatik. Lekukoak Patxi Arteaga eskribaua, Tomas Uriarte eta Pedro Gorostiza dira.

- Martin Barañano Etxebarrik 30 dukateko ordainagiria ematen die Juan Larrabide Zeberiogana eta Maria Perez Zeberiogana ezkontideei, eta horrela hipotekatuta zeuden **Zeberiogana** baserria eta etxaguntza guztiak askatu egiten dira.

- Azaroaren 6an. Zeberioگانako Andramariko Juan Arteaga maiordomoak errentan ematen dizkio Pedro Zeberioگانari, Andramari ermitarenak diren **Zeberioگانa** etxea, sagastia eta gaztainadia, lau urterako eta bost dukat urteroko errentapean.

- Abenduaren 1ean. Martin Solatxi Ibarra eta Maria Ibanes Ibarra ezkontideek, Ibarra baserriarena den Adarragako solo bat saltzen diote Iñigo Barañano Isasiri 42 dukatetan. Mugakideak agertzen dira.

- Bestelako zenbait eskuidazki nahasi.

4.7. 1744ko eta 1761eko protokoloen laburpena

Biak Ugaoko Jose Barañano Landa eskribauak idatziak. 1744. urtekoak 20 folio ditu, zenbatuak eta egoera onean. Baina hasierako lehen 20 folioak falta dira eta tartean beste batzuk. Ugaoko eskribauak idatzitako eskuidazki gehienak Nerbio ibar-ertaineko herrietako auzokideei dagozkien protokoloak dira: Arakaldo, Arrankudiaga, Zollo, Ugao-Miravalles, Arrigorriaga eta Zaratamo. Lau bat edo, Zeberioko auzokideei buruz idatzitakoak dira, eta horiek hemen laburtuko ditugu.

- 25. fol. 1744ko apirilaren 16an. Zeberioko auzokideak diren Jeronimo Aperribai eta Josefa Estankona ezkontideak batetik, eta bestetik, Pedro Etxebarria eta Maria Antonia Ibarrondo uztarkideak ere, eta guztiek zera adierazten dute: Pedrok Sautuola auzoko **Bediena** baserriaren labaren gorputzetik aurrera, horma berria eraiki nahi zuela, eta zimentuak ireki, baina aldamenean Jeronimoren **Garziena** etxea zegoela eta honek obrok zirela eta, Pedroken aurka Bizkaiko Korreximenduaren Auzitegian kereila bat aurkeztu zuela. Eta orain, alde bien arteko konponketara heltzen dira, eta Pedrok Jeronimoren etxetik oin eta erdi luzeera errespetatu behar zuela.

- 92. fol. Apirilaren 26an. Olabarrietako Santo Tomas elizako abade den Antonio Arteagak Olazar auzoko Soloandia Juan Idirini saldu zion. Soloak 1.015 estadu eta $\frac{3}{4}$ lur neurria zuen, eta **Tollara** baserriari zegokiona zela. Etxea konkurtsatua izan zen eta egungo jabeak Luisa Beltrana Ortiz de Zarate anderea eta Joakin Ignazio Meñaka jauna ezkontideak dira.

- Ekainaren 23an. Patxi Agirre defuntuaren alarguna den Margarita Arandiak adierazten du 1721. urtean, bere senarrak mando bat saldu ziola Andres Aldekoa Urteagari, eta honek 625 errealeko zorra zuela. Zor honen erdia Tomas Arandia lobari eta Josefa Agirre ezkontideei ematen die. Josefa Patxiren arreba dela agertzen da.

- 126. fol. Abuztuaren 11n. Uriondo auzoko **Olarra** baserriari zegokion basoetako egurrak zirela eta, Juan Olarrak auzia du Tomas Leuraren aurka. Basoak Loisarte, Mintegia, Gurpilondo eta Bidaiganeta direla adierazten da.

- 132. fol. Irailaren 12an. Arrankudiagako auzokide den Elena Ugarteren testamentua. Atxeta baserriak duen hilobian lurperatu izatea eskatzen du. Antonio Garateren emaztea da eta Txominen ama.

1761eko protokoloak Jose Barañano Landa eskribauak ere idatziak dira. Liburuak 185 folio ditu eta zenbatuak daude. Hezetasunak eragindako folioen egoera txarra. Horrez gain, behe-eskumalde zatia janda dauka. Eta zenbait folio falta da: 52, eta 79. folioaren aurretik laupabost. Aurreko protokoloen moduan, Nerbioi errekararen erdi aldeko herri bizkaitarren gaiak agertzen dira. Zeberioko auzokideei dagozkienak hauek dira.

- 16. fol. Urtarrilaren 24an. Areiltza auzoan eta Antonio Ozerin Fiel Errexidore infanzoiaren aurrean, Tomas Arandiak idatzitako testamentua irekitzea eta irakurtzea baimentzen da. Marina Arandia alabak kuaderno bat aurkezten du eta hor aitaren azken borondatea idatzita dagoela esaten du.

- Otsailaren 9an. Ugaoko auzokidea zen Antonia Egiraun alargunak Bartolome Larrea albazea izendatu zuen, eta honek 150 dukateko ordainagiria ematen dio Martin Aranguren Arezandiagari.

- 67. fol. Martxoaren 26an. Lontzo Rotalde zordun nagusia eta Txomin Urraza eta Iñigo Arandia bermari legez, hirurek elkarrekin diru-zentsua sortzen dute Arrankudiagako eliz kabildoaren alde, eta horretarako bakoitzak bereak dituen etxaguntzak hipotekatzen ditu. Idazki honetan Sautuola auzoko sei baserrien aipamena egiten da, hurrenez hurren, **Sautuola** [Egiluzena], **Tollara**, **Hernani**, **Erremitteria**, **Madariaga** eta **Bengoetxea**. Lontzo Rotaldek Sautuola baserria hipotekatzen du “pegante a la casa Tollara y confina con el cantón que media entre esa casa y la de Pedro de Hernani, por el que se sirve la casa de Manuel de Aldecoa y la de Madariaga”. Txominek, **Uriondo Urraza** baserria hipotekatzen du, eta Iñigok oster, Sautuola **Bengoetxea** baserria.

- Pedro Palacios Olabarria defuntuak sorturiko Binkulo eta Maiorazgoaren jabe zen Pedro Palacios Aiesta loba, eta baita **Arbilduko olaren** laurdenaren jabe ere. Olaren zati hori errentan ematen dio Patxi Bruno Leura jaunari bost urterako eta 68 dukat urteroko errentapean.

- 124. fol. Irailaren 16an. Ugaoko auzokide den Juan Azpe arotz-maisuak diru-kontu handiago bateko 1.250 errealean ordainagiria ematen dio Pedro Gotiri. Juanek **baserri berria** eraiki zuen Uriondo auzoan, Pedrok zuen etxe zaharraren orubean bertan “había construido y ejecutado una casa nueva en su barrio de Uriondo en el sitio y planta de la vieja que tenía en dicho barrio”.

- Tomas Leura eta Patxi Bruno Leura Insunza jaunek, aita-semeak, euren artean zehaztu egiten dituzte **Arbildu** eta **Uriondo Goti** azienden kontuak, uzkuntzaren bidez semeari emanak baitizkion berau ezkondu zenean.

- 1761. urtea. Zeberioko auzakide den Pedro Usabelek zera adierazten du: Ugaoko Pedro Hernanik auzia jarri diola Agirre-Olabarrietako herri-basoan, hark, landaketa batzuk egin zituelako, herri honetan ohitura zen moduan.

- 152a-172i.fol. 1761eko urriaren 13an. Jose Antonio Mendixur abade defuntuak Santo Tomas elizan utzitako benefizio-eskubidea eta kargua betetzeko hauteskundeak burutzen dira Miravalles hiribilduan. Txomin Goiri Ugaoko Sindikoa da eta Pedro Yarza Gesalagoikoa patroien eremuko Fiela. Benefizio kargu honetarako bi hautagai aurkezten dira eta irabazlea Juan Manuel Rekakoetxea izango da 102 $\frac{1}{4}$ boto lortuz, eta bigarrena Antonio Legorburu 83 boto eskuratuz.

- 177a-185i. fol. Urriaren 10ean. Aurreko gai bera, baina oraingoan Juan Jose Garai abade defuntuak utzitako benefizio hutsa betetzeko hauteskundeak. Ugaoko Alkate Patxi Artiñano da eta Txomin Goiri eta Pedro Yarza kargu berberean daude. Aurkezten dena Pedro Ipiña Urraza da, zeinak 154 boto eskuratzen baititu, eta abade benefiziatu aukeratua izango da.


5. Auzokideen arteko auziak

Auzokideen arteko bizikidetasun arrunta eta eramangarria batzuetan apurtu egiten zen. Bizitzaren gertakari batzuen inguruan ikuspegi desberdinduak eta kontrajarria sortzen zenean edo, joakera arbuigarri batzuen aurrean, herritarrek auzitara jotzen zuten.

Zeberio herriak historian zehar eta 1860. urterarte izan duen dualtasun juridiko-politikoaren partzialitate infantzoia eta partzialitate patroia-, kontuan harturik, lehen mailako epailea –infantzoientzat– Arratiako Foru Alkatea zen; auzokide patroientzat, aldiz, Ugao-Miravalles hiribilduko Alkatea. Beste berba batzuetan esanda, Zeberio haraneko eta Ugao hiribilduko kasuetan, lehen instantziako epailea Ugaoko Alkatea bera zen. Eta Olabarrietako Santo Tomas elizatekoek ordea, Arratiako Foru- Alkatearengana jotzen zuten.

Partzialitate bientzat, bigarren instantzia, Korrejimenduaren Auzitegia zen. Lehen instantziako ebazpenaz ados ez zegoenak bigarren instantziara jotzen zuen, hau da, Bizkaiko Korrejimenduaren Auzitegira, eta hemen epaile lana Korrejidore Jaunak berak betetzen zuen.

Helegiteko azken maila Valladolideko “Errege-Kantzeleraritza” deitutako auzitegia zen (15. argazkia), bereziki bizkaitarrentzat soilik eratuia, *Sala de Vizcaya* izendaturiko aretoa, hain zuzen. Azken maila honetatik, noizbait bazen helegiteko azken aukera bat ere, erregearengana zuzen joatea, alegia, baina eskatzen zen diru-gordailua handia zela eta, gutxitan erabili zen.



15. Argazkia: Valladolideko Errege-Kantzeleraritza Bere artxiboan zeberioztarren arteko auziak daude

Horretaz gain, elizarekin lotura zuen gairen bat tartean zelarik, bikariatoan eta Calahorrako eta Calzadako Gotzaitegian erabakitzen ziren auziak. Esandakoaren arabera, horra 13. taulan Bizkaiko epaiketa-instantzia juridiko-zibil desberdinak:

Lehen epaiketa-prozedura:

1. a) Patroi eremuokak: Ugaoko Alkate-Epailea
- b) Eremu infantzoiak: Arratiako Foru-Alkatea

Helegiteko instantziak eta auzitegiak:

2. instantzia: a) zein b) Bizkaiko Korrejimendura.
3. instantzia: Valladolideko Errege-Kantzeleritza, *Sala de Vizcaya* deitutakoa.

13. Taula: Bizkaiko hiru instantzia juridiko-zibilak

5.1. Zeberioztarren arteko auziak

Zeberioko Matxurrena baserrian gordetako dokumentazioaren barruan, badira berrogei bat auzi, arestian esandako instantzia desberdinetan jokatu zirenak. Batetik, XVIII. mendeko berrogeita hamar urteko (1716-1766) tartegunea harturik, eta Jose Barañano eskribauaren sinadurapean, Ugaoko Alkatearen Auzitegian urtez urte garaturiko 15 bat gatazka honela labur ditzakegu:

- 1716. Zeberioko Pedro Otxoa Ipiña Amezola eta Luzia Goti ezkontideek, Klemente Arizmendi eta Maria Goti uztarkideen aurka jotzen dute, Uriondo auzoko Klementena baserriaren legitimak zirela-eta. Auzi honek 153 folio ditu eta egoera ona du. Ugaoko Alkate-Epailea Blas Antonio Goiri Beratxa da.

- 1725. Aurreko pertsona berberak, Pedro Otxoa Ipiñak, Patxi Rekalde Amezola auzokidea auzitara eramaten du etxe berria eraikitzen ari denaren salaketapean. bederatzi folio dira, egoera onean, eta Ugaoko Alkatea Juan Manuel Kastañiza da.

- 1735. Erret-ofizio formala doako Zeberioko Juan Solatxi Iragorriri, aginpidearekiko insubordinazioa agertu duelako. 10 folio, egoera ona, eta Alkate-Epaile Juan Algorri da.

- 1738. Ugaoko Jose Barañano eskribaua Ugaoko Tomas Leura Gortazarren aurka, honek ez diolako ordaintzen eskribauak burututako zenbait eskuidazki. Urte honetan, Jose Barañano bera alkate denez, auziaren ebazpena Patxi Lezeta bigarren alkatearen eskuetan uzten da. 18 folio dira, egoera onean eta eskribaua Sierra Sesumaga da.

- 1742. Orozkoko Pedro Palacios Aiesta Zeberioko Tomas Leura Gortazarren aurka, **Arbilduko ola** dela-

eta honek egin beharreko ordainketaz. zortzi folio. Alkate

- 1746. Zeberioko Juan Ibarrondo ola-prestatzailea Zeberioko Txomin Rekakoetxea Barañano jabearen aurka, **Olabarriko** olan gertatutako ahozko mehatxuak eta olako lanen ordainketaz. zazpi folio egoera txarrean. Alkatea Juan Migel Algorri.

- 1747. Arrankudiagan bizi den Antonio Azpuru Torrek Zeberioko Juan anaiaren aurka, bien aitaren legitimen ordainketaz. 39 folio. Egoera ona. Ugaoko Alkate-Epailea Patxi Artiñano da.

- 1747: Zeberioko Juan Rekakoetxea Uria, auzo bereko Patxi eta Manuel Bazterra anaien aurka, hauena den Etxaso Agirre baserriak solo batzuetarako duen bide-baimenaz. 133 folio. Egoera ona. Alkate aurreko Patxi Artiñano berbera.

- 1754. Zaratamoko Maria Sagardui Zaballa Zeberioko Pedro Bengoetxea Urrazaren aurka, honek Mariari birgintasan galera ekarri zion-eta. 19 folio. Egoera ona. Alkatea Juan Bautista Ibarra.

- 1756. Zeberioko Juan Arandia Rementería, herri bereko Txomin Ibarra Tejeriaren kontrako auzia, harek ebagitako zuhaitz batzuen kortiketarako eskubideaz. zortzi folio. Egoera txarra. Ugaoko Alkate-Epailea Joakin Urizar.

- 1764. Ugaoko Juan Uribarri eta Dominika Idirin senar-emazteek Zeberioko Pedro Idirinen aurka, Dominikari Idirin baseritik dagokion legitimen ordainketa eskatuz. zortzi folio egoera txarrean. Alkatea Joakin Urizar aurreko berbera.

- 1765. Orozkoko Antonio (I) Ugarrizak Zeberioko Txomin Urraza Uriondoren aurka, honek izaniko semearen hezeketa gastuak ordain ditzan. 13 folio egoera ona. Alkatea Pedro Palacios Aiesta.

- 1765. Zeberioko Juan Rekakoetxea Galdakaoko Juana Jauregiren kontra, honek izan zuen seme jaioberriaren Juanen aitatasuna ukatu dezan eskatuz. 8 folio egoera onean. Epailea Palacios jaun berbera.

- 1766. Zeberioko Juan Arana Olarra, auzo bereko Txomin Urraza Zarragaren aurka, honek Pedro Arana semeari emaniko kolpe kriminala salatuz. 14? folio egoera onean. Ugaoko Alkate-Epailea Bartolome Larrea da.

Ugaoko Auzitegian garatutako auzi hauez gain, bada beste bat, Arratiako Foru-Alkatearen jurisdikzio pean jokatuko dena eta da, 1721eko auzi bat, non Zeberioko Maria Barañano Isasi andereak, Andres Rio eskribauaren alarguna zenak, Gaztelu eta Elizabetik

Pedro Ruiz Apodaka zirujaua auzitara eramaten baitu, Andresek idatzitako eskritura batzuen ordainketa eskatuz. 22 folio dira egoera onean. Epailea, Arratiako Juan Estankona Foru-Alkatea da. Eta eskribaua Gregorio Bakiola.

Eta bestetik, Bizkaiko Korreximenduaren Auzitegian aurkeztutako hiru auzi dauzkagu, bi XVI. mendearen amaierakoak, eta bat 1764. urtekoa.

- 1574. Zeanuriko Fiel eta auzokideek, Zeberioko eliz-maiordomo, Fiel eta auzokideen aurkako auzia, Gorbeia mendian dagoen Arraba kortabasoaren jabetza eztabaidatzen delarik. 35 folio dira, egoera onean baina zenbait folio falta dira.

- 1584. hamar urte beranduago, beste auzi bat, eta partehartzaile berberak, Zeanuriko eta Zeberioko Fiel eta auzokideak, eta gatazka, Arraba kortabasoak zituen heziak eta bide-baimenak eztabaidatzen dira. 49 folio egoera txarrean.

- 1764. Zeberioko Etxaso eta Gorositu auzoetako jabeek, Antonio Amezaren aurka, honena zen Ametzarrotako kaltzearen altuerak haiei bidea galerazi egiten zielako. 141 folio egoera onean. Epaile Korrexidore Jauna da.

Eta hirugarren instantzian azkenik, 1584. urteko auzia, Valladolideko Erret-Kantzelaritzan jokatu zena. Zeberioko Otxoa Unzueta eta beste 17 auzokide zeberioztar, Zeberioko bi Fiel eta gainerako auzokideen aurka, herri-basoen ustiaketaz iritzi kontrajarria zegoelako. 22 folio, egoera onean.

Bukatzeko, Calahorra eta Calzadako Gotzaitegiko probisore jaunaren aurrean ebatzi beharreko auzia, eta da, Olabarrietako maiordomoek, Martin Ugalde maisuak sorturiko Oroimenen egungo patroia den Antonio Bizente Aldamaren aurka, Oroimen dirutik Zeberioگانeko kapelauari ordaindu egin behar zitzaiolako. 22 folio egoera onean. Eskribaua Jose Barañano.

Beste sailkapen posible bat partehartzaileen auzokidetasuna da, eta horren arabera, Matxurrena baserrian aurkituriko auziak hiru eremutan bana daitezke: 1. Zeberioko pertsonak inplikaturik dauden auziak, kopuruz gehienak (14. taulan daudenak); 2. Ugaoko auzakideak (15. taulan); eta 3. Gainerako beste herritar batzuen auziak (15. taula). Horren arabera, aztertutako auziak honela laburtu daitezke:

Auzitzailea // Aurkaria	Zertaz	Urtea	Folio kop.
Zeaniko Fiel, auzokideak // Eliz maiordomoak	Arraba kortabas.	1574	35
Zeaniko Fiel, auzokideak // Eliz maiordomoak	Arraba kortabas.	1584	49
Otxoa Unzueta, + 17 lag. // Zeberioko gainerakoak	Herriba- soen ust.	1584	44
Ana Ugarte alarguna/ // Jn Gesala eta Maria Ibañez	Bertzuten Torre	1624	15
Pº Otxoa Ipiña Amezola // Klemente Arizmendi	Klement. baserriaz	1716	153
Maria Barañano Isasi alarg. // Arteako Jn Apodaka	Eskribau lanak	1721	22
Antº Biz. Aldama // Olab. Maiordomoak	Oroim. eta kapl.	1722	22
Pº Otxoa Ipiña Amezola // Patxi Rekalde Amezola	Etxe berriaz	1725	9
Erret ofizioaren bidez // Juan Solatxi Irigorri	Aginpid. men	1735	10
Pº Palacios Aiesta // Txomin Leura	Arbildu- ko olaz	1742	8
Jn Ibarrondo prestatz. // Tx. Reka Brño. jabea	Ahozko Mehatx.	1746	7
Arrank. Antº Axpuru // Juan Axpuru Torre	Legitima ordaindu	1747	39
Auzitzailea // Aurkaria	Zertaz	Urtea	Folio Kop.
Juan Rekaoketxea // Bazterra anaiak	Etxason Bideak	1747	133
Maria Sagardui zaratamikoa // Pº Bengoetxea zeber.	Birjinat. galera	1754	19
Mtn Arandia Rementeria // Txom. Ibarra Tejeria	Kortikak saltzea	1756	8
Juan Uribarri Ugaokoa // Pedro Idirin koinatua	Legitim. ordaindu	1764	9
Etxaso-Gorositu auzoak // Antº Ameza errotaria	Ametza- errotaz	1764	141
Juan Rekaoketxea // Galdak. Jna. Jauregi	Aitatas. ukatuz	1765	8
Antº Ugarriza orozkoarra // Txomin Urraza zeber.	Semeaz gastuak	1765	13
Juan, Pº Arana Olarra // Txomin Urraza zeber.	Pedrori zauriak	1766	174
Js Lekanda Arizmendi // Mnl. Ugarte alargun	Ohearen 3 pieza	?	21

14. Taulan: Zeberioztarren arteko auziak

Hurrengo puntuetan bi auzi, 1754. eta 1766. urteetakoak sakonago garatuko ditugu.

5.2. Ugaoko Pantxike Larreari egindako bortxaketa

1754. urtea. Ugaoko-Miravalles hiribilduko Juan Larrea, Pantxike Larrea alabaren aita legez, hiribildu bereko Txomin Goiriren aurka. Epaille Ugaoko hiribilduko Alkate den Juan Migel Algorri; eskribau, Jose Barañano. 13 fol. Gaia: Txomin Goirik adinez

gaztea den Pantxike Larrea bortxatu izana, indarrez, laban batez heriotz-mehatxupean eta abar.

Auzitzailea // Aurkaria	Zertaz	Urtea	Fol. Kop.
Mtn Lekanda sindikoa // Txomin Gandarias	Ardoen horniketa	1719	20
Erandioko Tx. Beitia // Ugaoko Mnl. Ugarte	2 idien kobraketa	1726	27
Js Barañano eskribaua // Tomas Leura	Eskribau- tza lanak	1738	18
Zolloko Jkn. Zumelzu // Ugaoko Jose Basoa	Mando- erosketa	1743	10
Arrigor. Mtn. Bizkarra // Ugaoko Krist. Goiri	Rotalde baserriaz	1744	19
Basauriko B. Arteaga // Ugaoko Jn Amezola	2 zekor saltzeaz	1746	16
Arrigor. Tx. Olabarri // Ugaoko Mikela Agir.	Zor bat ordaindu	1750	4
Jn Larrea, Pantxikeren aita // Txomin Goiri	Birginata- sun galera	1754	13
Maria Uribarri Egiraun // Markioko Juan neba	Aitaren ondasuna	1755	39
Pº Palacios Aiesta // Ugaoko Blas Goioaga	Etxearen errentaz	1763	27

15. Taulan: Ugaokoak inplikatuak dauden auziak

Auzitzailea / Aurkaria	Zertaz	Urtea	Folio Kop.
Tx. Goirigitxia orozk. / Tx. Atxa abadea	Zaloako etxeaz	1739	31
Joakin Rearte abadea Laudioko Orue uztar.	Errealak ordaindu	1739	61
Laudioko Jn Barrones / Ana Maria Arginzoniz	Ardoen horniketa	1753	54

16. Taulan: Gainerako herritarren auziak

Ekintza honen eguna abuztuaren 10ean, gaueko 8:30ak inguruan izan zen, Zeberio haranean ospatutako San Lontzo eguneko erromeriaren ondoren, eta lekua, Ugaorako norabidean Elorriebietatik Arezandiararaino doan kaltzadako Bigarren Sakona bihurtunean. Juan Larrea aitak Txomin Goiri preso hartzea, ondasunak bahitzea, eta alabarekin ezkondu ezik, 600 dukateko dotea ematea eskatzen du Ugaoko Auzitegian.

Abuztuaren 25an, Ugaoko Alkate-Epailleak agintzen dio Maria Antonia Egiraun matronari honek Pantxike Larrea, dontzeila ala beteta dagoen azter eta aitor dezan. Honen erantzuna beteta dagoela da. Hurrengo egunean, Pantxikek berak bere aitortpena egiten du, Maria Andresa Isasi eta Txomin Goirirekin zetorrela, eta Elorriebietako zubian, banandu egin zirela, "... que es camino real sobre el puente de piedra de Elorrebayeta, y dicho puesto donde se toma para dicho Uriondo es camino real para venir a esta Villa en tiempo de crecimiento de aguas y se nombra camino de Saldarian Larra. Y lo que se anda por dicho puente es como atajo en tiempo de aguas bajas...".

Eta zubi horretan honoko hauek geldi aurkitu zituztela: Juan Urrazaren emaztea, Antonio Urrazaren zerbitzaria, eta Pantxike Bengoetxea, hirurak Saldarian auzoan bizi zirenak. Eta hortxe Maria Andresak galdetu zuen ea nor zen neska hori, eta Pantxike Bengoetxeak erantzun zion San Juan (Larrea) marragaegilearen alaba zela, eta horretan zeudela, Patxi Bengoetxea eta Lontzo Isasi agertu ziren, hauek ere Saldarian auzoan bizi zirenak.

Eta guztiok Saldarian auzorako bidea harturik, eta agur esanik, Txomin Goirik eta Pantxike Larreak Ugaorako bidea hartu zuten, Saldarian Larratik, zeina baso menditsua eta bakartia baita, "...y diciéndoles agur, partieron ambos dos para esta Villa por sicho camino de Saldarian Larra que es montuoso y despoblado, y llegando al sitio que llaman Vigarren Sacona que es un recodo pegante a la calzada, de dicho camino se asió dicho Domingo de Goiri a la declarante y la quiso tender en el suelo...". Eta Txominek bortxaketa burutu ondoren, Pantxike Arezandiaga baserrira joan zen, "... fue a la casa y casería de Arezandiaga que está con alguna distancia e dicho sitio, bajo de él, pasando la ría en el camino de abajo de dicho Valle...".

Juan Larrea aitak lekuko lez aurkezten ditu: Patxi Arangurenena den Arezandiaga baserriko Teresa eta Maria Aranguren alabak, Patxi Bengoetxea, Lontzo Isasi. Honek dio berarekin honoko hauek joan zirela: Pedro Garate, Maria Andresa, Maria Josefa Barañano, Antonio Urrazaren Josefa neskamea, Patxi Bengoetxea eta Pantxike alaba, denak Saldarian auzoan bizi zirenak, eta aipatutako Txomin Goiri eta Pantxike Larrea.

Irailaren 4an, aurreko informazio guztiak jaso eta gero, Ugao-Miravalles hiribilduko Alkate-Epaile Jaunak Txomin Goiri preso hartzea, kartzelara eramatea eta ondasunak bahitzea agintzen du.

Auzi honetan, batetik, zoritxarreko genero indarkeria aspaldikoa dela eta gure inguruan ere bazela ikus daiteke. Eta bestetik, balio etnografikoaz gain, jabetza publikoari buruzko interesa ere badu. Beste modu batera esanda, Ugaotik Areatzara Zeberiotik zihoan kalezada, Arezandiagan hasi eta Elorriebietaraino goi aldetik zihoan, uholdetan erreka hiru aldiz ezertan zeharkatu gabe. Beraz, errepide publikoa izanik, Zeberioiko Udalak ahalbidetu egin behar du, egun, Saldarian Larrako zubitxoaren ondoan burdin-hezi batek trabarik ez egitea eta bertatik edozein pertsona libre igarotzea.

Ondoko 16. argazkian ikus liteke 1929 urteko Ugaoko Udaletxeko batzar-aretoan dagoen mapak markatzen duen z antzerako errepidea. Errepide publikoaren izaera da behin eta berriro dokumentazio historikotik ateratzen den ondorioa, ez egilearen bat-bateko ustea.



16. Argazkia: Elorriebietako kalezada zaharra errepide publikoa da. 1929. Ugaoko Udala

5.3. Uriondo auzoan Pedro Arana Olarrari emaniko kolpea

Ondoren laburtuko dugun auzi kriminala da, Juan Arana Urraza, Uriondo auzoko Olarra baserriaren jabeak auzo bereko Urraza baserriaren ugazaba den Txomin Urraza Zarragaren aurka jarritakoa. Urtea 1766. da. Eta arazoa da Uriondo auzoan bertan, Txominek Juanen seme den Pedrori eskopetaz buruan kolpe bat eman, lurrera bota eta zauriak eragin zizkiola. Antonio Joakin Elorrieta Juan Arana Olarraren Prokuradorea da, Diego Abrisketak eta Matias Arrienek txandaka Pedro Arana Goiri defendatzen dute, eta Patxi Artiñano ostera, Txomin Urrazaren babesean arituko den ordezkaria da.

Elorrietak dioena zera da: 1766ko urtarrilaren 16an, ostegunex eta arratsaldeko seiak inguruan, Uriondo auzoan Txomin Urrazak eta Mateo morroiak topo egin zutelara auzora heldu berriak ziren Pedro Arana Goiri eta Lontzo Urraza Zabala gazteekin. Eta aurrez aurre, Txominek eta Pedrok elkarriketa bat izan ondoren, Txominek eskopetaz bi kolpe eman zizkion Pedrori, eta eskerrak, Lontzok Txominen eskopetari heldu eta ez ziola mugitzen utzi eta bi kolpe horien ondorioz, Pedrok ia konortea galdu eta zauriturik, oheratu egin behar izan zuen, eta gau horretan, Juan Arandia Duñabeitia osagilea etorri zitzaion. Beraz, Juan Arana aitak, Ugaoko Alkate, eta aldi berean Epaile denari zera eskatzen dio: Txomin Urraza gaizkilea espetxeratzea eta behar ainako zigorra ematea.

Urtarrilaren 20an, Bartolome Larrea Ugaoko Alkate-Epaileak salaketa hau aintzat hartuta, diligentziak hastera agintzen du. Lehenik, Juan Arana Olarrak aurkezturiko lekukoak testigantzak hartzea. Lekukoak hauek dira: Lontzo Urraza (17 urte), Antonio Urrutikoetxea (44 urte), Juan Arandia Duñabeitia zirujaua (48 urte), Emeterio Mendibil "Mateo" deitua, eta Martin Urraza Uribarri (28 urte). Eta ondorioz, urtarrilaren 21ean, Alkate-Epaileak Txomin Urraza preso hartzea eta bere ondasunen bahiketa agintzen du.

Bi egun beranduago, Blas Goioaga alguazilak Txomin preso hartu, Ugaoko espetxean sartu eta grilloak jartzen dizkio. Ondoren, zenbait abelbururen bahiketa dago: idi buztarria, zortzi behiburu, lau kaxa eta 40 anega-arto. Ondasun hauen arduradun Uriondo auzoan bizi den Pedro Aranguren izendatzen dute.

Egun berean, urtarrilaren 23an, kartzelatik bertatik, Txomin Urrazak eskabide bat egiten du, esanez batetik, ez dakiela zergatik dagoen preso, eta bestetik, horrela egonik, kalte handiak datozkiola bere haziendari, eta ondorioz, bere ahozko aitortpena edo bertsioa jasotzea.

Hala agintzen du Alkate Epaileak, eta eskribauaren aurrean eta zin egin ondoren, Txominek zera esaten du: 38 urte dituela eta nekazari dela, eta ez dakiela preso egotearen arrazoia (12a fol.). Uriondo auzoan gertatutakoaz, erantzuten du otso baten abisua etorri zela, eta Patxi Aranagaz batera otsoa ehizatzen zela, eta Patxi Aranagaz batera otsoa ehizatzen zela, eta Patxi Aranagaz batera otsoa ehizatzen zela, Gero, arratsaldean, auzoan, Pedro Arana, Lontzo Urza eta Zeledonio morroia aurrez aurre zeudela, zera esan zion Txominek Pedro Aranari: (13a fol.)

- “Ahora estáis mozos a una. Y pues, tú dicho Olarra, has dicho que yo te he quitado vena de junto a la tuya en el puesto arriba del puente de dicho Elorribaieta y monte de Joseph de Larrea”. - “Sí, y te probaré”, respondió Arana. - “¿Tú me has de probar a mí?”, Urrazak dio. Eta Pedro Aranak baietz erantzun zion.

Eta orduan, minduta, Txomin Urrazak eskopetaz Pedro Arana buruan jo zuen, baina Pedro ez zela lurrera jauzi (13i fol.). Eta horrez gain, Txomin baserrian beharrezkoa delako, fidantzarekin bada ere, libre uztea eskatzen du. Urtarrilaren 24an libre uzten dute Txomin (14i fol.).

Otsailak 26an, Diego Abrisketa prokuradoreak Pedro Aranaren defentsa hartzen du, eta jarraian hainbat argudio auzoketaren ditu Txomin Urrazaren aurka: kolpe horretatik hainbat odol isurketa izan zuela, ohean zirujauaren ardurapean egon zela, eskerrak Lontzo Urrazak Txomini eskopeta kendu ziola, zeren bestela, Pedro gaztea jadanik hila egongo zela, Txominek alde egin zuela pentsatuz Pedro hilda zegoela, Txominek gurdia bete ahal izateko Pedroren mea multzotik hiruzpalau burdin-arroba hartu zituela, Zeledonio kriaduak ikusi eta esan bezala... (21a-24a fol.).

Auziak aurrera egiten du, eta are gehiago, guztiz bihurritu, izan ere, Txomin Urrazak Pedro Arana salatzen eta auzitara eramaten duelako, esanez, honek haren ohore eta osparen aurkako gezurrak esan zituela, “tuvo el insolente atrevimiento de tratar e injurirame de ladrón... todo lo cual con duras expresiones denigratorias a mi honor y estimación, profirió una y muchas veces...” (II-26a fol.).

Eremu etnografikoari bagagozkio, oletako burdin-mearen horniketaz datu batzuk dauzkagu. Lontzo Urrazak zalditan mea ekarri zuela eta Arbilduko olan deskargatu. Halaber, Pedro Aranak gauza bera baina

Elorribieta lekua utzi zuen. Eta azkenik, Zeledonio morroiak ere zalditan mea zekarrela eta Elorribietako leku berean baina Pedrorengandik aparte deskargatu zuela. Mineral multzoa nahiko egoten zenean, Txomin Urrazak burdin-mea gurdiz eramaten zuela Areatzako oletara, eta mea gainean, Zeledoniok agotza kargatzen zuela idien janarirako (II-44a fol.). Eta gurdia erabat bete nahian, Zeledoniok ikusi zuela Txominek Pedroren mea-multzotik hiruzpalau arroba hartu zituela. Eta ekintza honetan datza auziaren abiapuntua.

6. Diru-kontuen kaierrak eta zenbait paper

Protokolo notarialez eta auzi judizialez gain, bada bestelako dokumentu historikorik eta da, persona batzuk euren negozio, tratu eta utzitako diruen kontu-arrazoi zehatza eta eguneratua eramaten dutenena. Diru-kontu hauek pribatuak dira eta ez publikoak, zenbait folio erditik eta luzetara tolesturik, kaier edo kuaderno eramangarri eta elkarri josiak agertzen dira. Beste batzuk ordea, ohiko protokoloen neurri bereko kuaderno edo liburuxkak dira. Zeberrioko Matxurrena baserrian agertu diren kontu-liburuxkak sei dira.

1. Liburuxkaren neurriak 20,5 x 28,3 cm dira. 32 folio. Egilea Juan Gesala eskribaua da, eta 1642 eta 1655 urteen bitartean burutua. Azkeneko orriak Juan Barañano Isasik, eskribauaren suhiak idatzitakoak dira. Orri batzuetan egunerokoa idazten duela dirudi: “nere emaztearen heriotza...” edo, “Día lunes 29 de aril de 1647. Envié al muchacho Joanico el de Ysasi a Bilbao a la escuela y de posada a casa de Diego de Ysusia”. Eta ondoko lerroetan egun desberdinetan agindu edo utzitako dirua agertzen da. Eta 1651. urtean, “Murió Marina de Areilça mi mujer, día martes, 16 de mayo 1651 y se le enterró al otro día miércoles, y lo que voy gastando en sus cumplimientos es como sigue...”. Gastatutakoa zehaztuta dator: mezak, argizaria, hilobi-ogiak...
2. 1677 urtea: 16 folio. Eta ondoren, 1716-1720. urteak: 43 folio. Neurriak 23 x 34 cm Zehaztuta agertzen da egindako ikatz-karga bakoitzeko egileari ematen zaion salneurria, bai eta egurgintzan emandakoa, zein zuhaitzak landatzeagatik. Agertzen diren izenak batez ere Areiltza auzokoak eta ingurukoak dira.
3. 1722-1735 urteen bitartean. Neurriak 11 x 31 cm 74 folio zenbatu gabe. Egilea Martin Urza Arana, Matxurrena baserriaren jabea, Maria Kruz Barañano Kareagarekin ezkondu dagoena. Ikatx-kargak, egurgileen lana (bracería), eta zordunen kontrola erabat zehazturik agertzen dira. Horien artean, Arkulanda Patroiena baserriaren jabe dena, “Patrón de Arculanda, ajuste de cuentas y tiene de haber, 34 ¼ reales”.

4. 1740. urtea. Neurriak 11 x 31 cm 89 folio zenbatu gabe. Egilea Jose Barañano eskribaua. Hemen ere, egur eta ikatz-kargak, egurgileen lanak, ordaindu behar duena eta zordunen kontrola erabat zehazturik agertzen da. Gehien bat, Nerbioi ibarreko zordunen izenak agertzen dira. Eta desizen ugari, besteak beste, Chorin, Machicaca, Chipiri, Farro, Betrona...
5. 1741. urteko liburuxka. 11 x 31 cm 84 fol. Folioak ez daude zenbatuta. Egilea Jose Barañano eskribaua. Gehien bat, Nerbioi ibarreko zordunen izenak agertzen dira. Aurrekoen kontu berberak eta izen ugari. Eta 21. folioan, "el alvoguero de Sollo" albokaria.
6. Urterik gabe. 11 x 31 cm 28 fol. Folioak ez daude zenbatuta. Egilea Jose Barañano?

Bada beste legajo edo dokumentu bat guztiz bitxia dena, eta da 1452. urteko Foru Zaharraren 4. kapituluaren datorrenaz bat egiten duena, "Cuanto es el pedido de Vizcaya y quien lo ha de pagar" (BFL, 1991, 109), hau da, bizkaitarrek zer ordaindu behar zioten Bizkaiko Jaunari. Zehazki Foruak dioena zera da. "Otro sí dijeron que los Señores de Vizcaya que *hubieron siempre en los labradores su cierto pedido*, é en las villas de Vizcaya hobieren siempre sus pedidos tasados según los privilegios á las tales villas dados..." Eta aurrerago aipatu kapituloak oso zehatz esaten du nekazari zentsuariak ordaindu beharreko diru kopuru jakina edo tasatua. Hau da lege zaharrak argitzen diguna: "...todos los vizcaínos siempre fueron franqueados y libres é quitos de todo pedido é servicios..., salvo el *pedido tasado que los dichos labradores han de pagar en cada un año...*". Arau legal hau etxe zentsuariari buruz ari da.

Eta hor kokatzen da Zeberio haranak edo partzialitate patroiak (eta ez infantzoiak), urtero ordaindu beharreko dirutza. Matxurrena baserrian aurkituriko paperen artean, bada legajo bat, hogeitau folio dituen eta zabaletara idatzia. Folioen hasieran Bizkaiko Jaurreko agintari baten eskaera, Korrexidorearen, edo diruzainaren, nahiz Arratiako Merindadeko Teniente Merinoaren agindua eta sinadura agertzen dira. 1614-1624 bitarteko urteak hartzen ditu eta paper hauek adierazten dituzte urtero erregeari zor zitzaion marabedi kopuru handien ordainagiriak edo librantzak. Ez dugu aukerarik eduki kobraketa mekanika ezagutu ahal izateko, alegia, diru-kobraketa zehatza.

Legajo honetako paper gehienak taiuketa antzerakoa da: erregeari zor zaien betiereko- zentsua dela-eta, kobratzeko betetzen den agindua eta Zeberioko auzokideei txandako eskribauak luzaturiko jakinarazpena. Zehazki, urtero 16.928,5 marabedi, eta urtero txandaka, patroï eremuko auzokide batek baserri zentsuarien artean kobratzen duena. "Dueños de las casas censuarias del partido de Ceberio y Olavarrieta, darán y pagarán a Juan Cacho de Herrera, en nombre del Proveedor Antonio de Jauregui los **diez y seis mil novecientos y veinte y ocho y medio que deben a Su M. del censo perpetuo**

corrido del año de mil seiscientos y catorce". Eta herrian urtero egiten den jakinarazpen edo notifikazioa, "...a pedir del debido a Su M., yo el escribano infraescrito notifiqué e hice notorio la libranza y mandato de suso y de esta otra parte a los dichos vecinos y cogedor...". Horra ordainketak eginiko urte eta hartzaile zerrenda:

- 1614, Pedro de Guesala Ydirin [Idirinbekoa].
- 1615, Juan Urquiça Larrabide [Larrabidebekoa].
- 1616, Iñigo Ameçola Goti [Ametzolatgotikoa].
- 1617, Martin de Urquiça [Urkizta baserrikoa].
- 1618, Pedro de Mendia [Barbatxao Mendia].
- 1619, Martin de Goroçitu [Gorositubekoa].
- 1620, Pedro de Beti Olalçar [Olatzar Beti].
- 1621, Martin de Beti Olaçar [Olatzar Beti].
- 1622, Pedro de Uria Echaso [Etxaso Uria].
- 1623, Juan de Ydirin [Idiringoikoa].
- 1624, Juan Arandia Olalçar [Arana Andresena].

Beraz, datu hauen arabera, Zeberio haraneko eremu patroiak, Ugao-Miravalles sortu zen nekazari zentsuariak izan zirenek, urtero Bizkaiko Jauna (eta gero aldi berean, Gaztelako errege) zenari dirutza bat ordaindu behar izaten zioten. Horren truke, auzokide patroiek Olabarrietako Santo Tomas elizako hamarrenak kobratzeko, abadeak aurkezteko eskubidea, abelburuak eta zenbait kortabasotako egurraren jestiogintza burutzeko aukera zuten. Gero, besteak beste, horren guztiaren truke ere, 1882. urtetik geroztik, eremu patroï hori Santo Tomas Komunitatea bihurtu zen, eta aurretiko ondasun guztiak 81 pertsonen izenean jarri ziren.

Eta Matxurrena baserriko dokumentazioaren azterketa amaitzeko, protokolo, auzi eta kontu-liburuen artean zenbait paper solte ere nahasian aurkitu izan dira. Paperotan urte, herri eta era desberdinetako gaiak tratatzen dira, eta horra ba, Juan Gesala eta Jose Barañano eskribauen araberrako paperon banaketa eta euron mami laburra.

Juan Gesala eskribauaren paper solteak:

- 1603ko ekainaren 14an, Oñatitik Pedro Otxoa Gesala Doktoreak Juan Gesala eskribau anaiari bidalitako gutuna. Besteak beste zera dio, San Juan egunez Zeberiora joaterik badu eskribauari zaldia eskatuko diola.
- 1613ko ekainean. 2 folio. Txomin Ipiña eta Katalina Arteaga ezkontideek Iñigo Urkiagaren aurka auzia zuten, berau borroka eta kalte batzuk zirela-eta, preso zegoena. Haiek parkamena ematen diote Iñigori kartzelatik ateratzeko, baina bi urteko desherriratzeari betetzeko esanez.
- 1616. urtea. 3 fol. Ugao-Miravalles hiribilduko alkate den Bartolome Barañanori egiten zaion eskabidea. Maria Saez Arandia Olalçar, Martin Unçqueta [Beti] defuntuaren alarguna da. Eta Maria Unçqueta Arandia neskato hilondokoaren ama. Maria Saezek berriro ezkondu nahi duenez, Mariaren tutore eta administratzaile den neurrian, alabaren eskubideak

zainduak izateko tutore berriak izendatzea eskatzen du, batetik, Pedro Arandia Olalçar aitite, eta bestetik, Bertzuten auzoko Untzeta baserrian bizi den Katalina [Beti] Untzeta amama. 1616ko martxoaren 18an, Pedro Arandia aititek tutoretza egingo duenaren zin egiten du alkatearen aurrean, eta honek aititeri tutoretzarako boterea ematen dio.

- 1617. urtea. lau folio. Bizkaiko lur lauean bizi zen Pedro Sautua lehen ezteietako Maria Urizarrekin bost seme-alaba edukirik (bat mutila eta lau neska), bigarrenez, ezkondu zen Maria Saez Arandiarekin. Jada, Pedro bost egun hil delarik, eta bere testamenduan adin txikikoen tutore legez Pedro Uriarte eta Juan Urizar koinatuak izendatu zituela. Orain, ondasunen lerrokapen juridikoa eskatzen da, izan ere, Pedro Sautuak haurdun dagoen bigarren emazteari agindutako 50 dukatak legezkoak diren, ala, lehen ezkontzako seme-alaba txikiei dagozkien. 50 dukatok hilondokoa hezteko badira, onartu beharrekoa agindua dela aitortzen du Bizkaiko Korrexidore jaunak, baina haurra hilko balitz, emazteari horren bosgarrena soilik emango liokete.

- 1621. urtea. zortzi folio. Olabarrietako Artiano etxean Bizkaiko jaurerriko Pedro Urkijo Prestamero Tenientea agindu bat betetzera dator Arrankudiagan bizi den Juan Areilza Artiano enteiliariaren aurka. Honek Pedro anaiaren alde zor bat zuenez gero, hiru zekor enkate publikoan ateratzen dira eta dirua Pedro Artiano anaiarenzat izango da.

- 1621. 4 fol. Egoera eskaxa. Martin Albizuak Magdalena Berastegi Ibarra emazte defuntuaren eta bion seme-alaba gazteen izenean, Ibarra auzoko Hernandoena baserriko ondasunen heredentziarako eskubideak direla-eta. Eta auzitara daramatza Martin Ibarra defuntuaren seme-alaba gazteak eta hauen tutoreak. Batetik, Hernando Ibarra eta Maria Ibanes Albizua ezkontideak zirela agertzen da, orain defuntu, eta hauek Katalina eta Joanen gurasoak, hurrenez hurren, Katalina Martin Albizuaren amaginarreba, eta Joan, Martin Ibarren aita. Eta Magdalena Berastegi defunta, Katalina Ibarra ama defuntuaren oinordeko zela.

-1621eko abuztuaren 19an. 2 folio. Egoera ona. Martin Ugalde defuntuaren Ana Ugarte alargunak euren seme-alaben tutoretza eskatua zuen, eta Francisco de la Puente Agüero Korrexidore Jaunak eman ematen dio. Lekuko legez, Juan Gesala abadea, Martin Torrezar eskolamaisua eta Juan Barbatxano dira, hirurak zeberioztar auzokideak.

- 1637. urtea. Sei fol. Egoera oso txarra. Blas Urigibel eta Pantxike Olarra uztarkideek duten zentsuetatik 137 erreal eta hauspoen errentaren zorra dela eta. Juan Gesala iltzegile hartzekodunak auzia ezarri zien eta Bizkaiko Korrexidoreak agindu zuen bikotearen ondasunetatik zorraren balioa hartzea eta horretarako deialdi judizialak burutzen dira. Azkenean, Blasek zorra ordaintzekotan gelditzen da.

- 1638-1639. urteetako diru-kontuen zuriketa. 25 folio. Santo Tomas fabrikako maiordomoek Valladolideko

Errege Kantzelaritzan duten auziaren diligentziak ordaintzeko Lorenzo Durango Uribiartek egindako gastu guztien berri ematen da.

- 1645. urtea. 4 folio. Sautuola olaren jabe eta partzuarien arteko diru-kontuen zehazketa.

Jose Barañanoren eskribauaren paper solteak

- 1726. urtea. 4 fol. Martin Gesala defuntuaren bigarren ezteietako emaztea den Maria Tollara kexu da Juan Gesala semeordeak auzi bat jarri diolako zenbait jantzi eta lan-tresna eskatuz.

- 1729. urtea. 6 folio. Jose Barañano eskribaua Arrankudiagako Landaberde olarako ikatz-karga batzuk direla eta.

- 1733. urtea. 6 folio. Aiara haranak planteatzen duen auziaz. Egoera eskaxa.

- 1737. Folio bakarra. Zeberrioko Maria Barañano alargunak, Pedro Urkizaren ama eta tutore denak, Bizkaiko Korrexidoreari eskatzen dio Arakaldoko Patxi Arbideren aurka zortzi dukat kobratu ahal izateko ondasunak bahitzea. Eta arrazoia da Pedro semea kriadu izanik, urtebete aritu zela Patxirentzat era guztietako zamari garraioak egiten (mea, Errioxako ardoa, ikatza), eta baserri-lanak burutzen, eta ez duela ezer kobratu, "...sirvió como criado así con caballerías a trajinar venas, vinos de la Rioja, carbones de los montes, hacer labranzas de heredades y todo género de trabajo caseril".

- 1742. 3 folio. Bizkaiko Jaurerriko Manuel Navarrete Korrexidoreak, eta Juan Azpuru Torre zeberioztarraren eskabidez, Arakaldoko Maria Garbiras alargunaren ondasunetatik. Arakaldoko Amarrenetxe baserrian, eta Juan Galindezek dioenez Maria ama Orozkon egon arren, Pedro Beraza Korreximenduko Alguazilak, soloan zeuden sei anega artoren ejekuzioa burutzen du.

- 1743. urtea. 12 folio. Zolloko elizateko Jose Arana Fielak bere errepublikak dituen gastuen informazioa ematen du eta horien zehetasunak burutu.

- 1743. urtea. 4 folio. Zolloko elizateko Azpiuntza Goienengoa baserriaren eta soloen ukantzaz eta jabetzaz. Mugakide direnak abisatzea eskatzen da, batetik, Gregorio eta Juan Urrutikoetxea eta bestetik, herri-basoak daudenez elizateko Fielak.

- 1746. urtea. Jose Barañano eskribaua. 11 folio. Egoera eskasa. Bizkaiko Jaurerriko errepedeak konpontzeko dekretua. Eta berau aplikatzeko tokian tokiko jaunak izendatzea, eta ondoren, errepedeon ikustaldia egitea. Arrigorriaga eta Arrankudiaga elizateetik eta Ugao-Miravallesetik pasatzen den kaltzadaren errekonozimendua Juan Bentura Legorburu Meñaka jaunak burutzen du.

Honek elizateko Juan Olabari Fielarekin Arrigorriagako errepedeak ikustatzen ditu eta txostenean Ajarte eta Bentako erreka zubiak karelik gabe zeudela eta bidaiariak jausteko arriskuan egonik konpontzea agintzen du. Bai eta Berasatxagarako aldatza sasiz garbitzea, Urgoitin jausitako harrizko orma berregitea, eta kaltzadan ola-eskoria botatzea.

Urte bereko maiatzaren 24an, Ugao-Miravalles hiribilduko kalmazada eta errepeidea ikustatzen dira, hasi batetik, Urrustoi lekuan eta Kristoren ermitaraino, eta hemendik Bakiolako Albiaran errekaraino, eta bestetik, ermitatik ere Zeberio aldera, “habiendo mirado y reconocido el camino real y calzada desde Urrustui hasta la ermita del Cristo humilladero de esta dicha Villa, y desde ella hasta el regato de Albiaran-reca que es en las calzadas de Baquiola por un lado, y por el otro, también camino real desde dicha ermita hacia el Valle de Ceverio hasta la entrada del arbolar de D. Juan Miguel de Algorri...” eta besteak beste, Urrustoitik Usilako zelairaino zoruan dagoen haitza kentzea, San Romas ermitaren ondoko bidea eskoriz betetzea, eta hori guztia ekainaren 15a baino lehenago burutzea agintzen da.

- 1749. urtea. 3 folio. Ugao-Miravalles hiribilduko eta Zeberio haraneko auzokide den Martin Tomas Meñaka Santa Kruz jaunak zera adierazten du: Olabarrietako Santo Tomas patronatoan 18 fogeraren eskubidea duela, eta horietatik 11 Zeberio haranari dagozkiola. Eta Martin Urrazak eta Txomin Reka Bizkarrak azken hauetatik kobratu nahi dutela.

- 1757. urtea. Juan Amezola Labeaga eta Maria Beti Barañano Bazterretxe ezkontideak Zolloko Basakoetxeabekoa baserriaren jabe direla agertzen da. Ezkontza-kontratu bat dago.

- 1763. urtea. 8 folio. Baranbioko Jose Landaluzek bere ondasun guztien, eta zor guztien borondatezko uztapena burutzen du.

7. Amaitzeko bi hitz

Zeberio Matxurrena baserrian gordetako eta aurkituriko dokumentazio historiko hau balio handiko altxor kultural legez hartu beharko genuke. Arestiko lerroetan agertu bezala, paper horiek gure arbasoen eguneroko bizitzaren zenbait pasarte eta bizimoduaren hainbat zehetasun eskaintzen digute. Jaio, ezkondu eta hil, saldu eta erosi, kereila sartu zein adosketa bultzatu, gorroto zein maitasuna, guztiak eta gehiago, Zeberio bizitzaren eta historiaren puzzle diren zatiak argitu nahian.

Gutxiendik, dokumentu-ondare honek gure aldetik haintzakotza eta balorazio akademiko osoa du. Hemengo datuak Zeberio haraneko baserri bakoitzaren kronika jarraitua osatzeko eta idazteko ezinbestekoak izango zaizkigu, eta kronikok agertuko diren liburuetarako deia luzatzen dugu.

Eta hemendik aurrera, zer egin honoko material paregabe honekin? Gure iritziz, eta Zugazaga-Lasa familiak hala nahi izanez gero, Zeberio Udaleko Artxiboan gorde eta berau osatzeko baliagarri izango litzateke, artxibo horretan dauden protokoloen hutsuneak bete ahal izateko. Baina bi baldintza jarri beharrekoak direla uste dut.

Bata da, Udalak konpromezuren bat hartu beharko lukeela, batetik, dokumentu horiek duten hezetasuna kentzeko eta osorik garbitzeko, eta bestetik, karpeta jakin eta arautuetan kokatzeko.

Eta bigarren baldintza litzateke, dokumentazio honen zabalkunde publikoa bermatze aldera, Udalak ezelango oztoporik ez jartzea, lantzean behin, erakusketa kultural-historikoren bat burutzeko, zein Zubialde Eskolakoek erabili eta aztertu ahal izateko. Eta Administrazioarekin guztiok dugun esperientzian oinarritua, Udalari dokumentazioa emanaz batera, bigarren baldintza hau idatziz ezartzea hobetsiko genuke.

8. Bibliografia

ANGULO A. (1996). “Un instrumento de seguridad. La carta de pago en la primera mitad del siglo XVIII”, in PORRES R. (directora) (1996): *Aproximación metodológica a los protocolos notariales de Alava (Edad Moderna)*. Bilbo. EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua. 45-52.

BFA: (1991). Bizkaiko Foru Legeria. Legislación Foral de Bizkaia. *Foru Agirien Bilduma*. Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundia.

CELAYA A. (1970). El Derecho Foral de Vizcaya en la actualidad. Bilbao. *La Gran Enciclopedia Vasca*. IV. Tomoa.

— (1975). El Fuero de Vizcaya. *Colección temas Vizcaínos*. 10. zkia. Bilbao. Caja de Ahorros Vizcaína.

PEREZ URRAZA Kepa (2006). *Ingurune hurbileko curriculum soziohistorikoa. Zeberio harana (1567-1967)*. Bilbao. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

PORRES R. (directora) (1996). *Aproximación metodológica a los protocolos notariales de Alava (Edad Moderna)*. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo.